



PIRINIOETAKO BIDEA ARGITZEKO DEIA

Gure Esku, ANC eta FEEC Euskal Herriko eta Kataluniako entitate sozialek uztailaren 2an Pirinioetako 300 gailur argiztatzeko erronka luzatu dute. Herritarrei parte hartzeko deia egin diete Asier Calderon eta Patxi Castillo sustatzaileek. / 12

Bertako gaztainak berreskuratuz

Herriko gaztaina barietateak berreskuratzeko proiektuarekin ari da Arantzako Udala. Probarako eremu bat egokitu dute. / 8

SINADURAK

	JOSEBINE AGIRRE SOTO / 3		AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
	MIKEL TABERNA IRAZOKI / 4		MIREN RUBIO ITURRIA / 4



AITZIBER ABASOLO

**Ekainaren 23an
San Juan sua
pizteko prest dira
herritarrek**



**Izaskun Igoa
Jaimenarena Zigako
gaztearekin bere
poesia hizpide** / 52

**EuskAbentura
Amaiurren, Lesakan
eta Zugarramurdin
izanen da** / 21

**Sarako Izarra
euskal ligan
txapeldun bigarren
aldiz** / 58



KOMUNAK

ISOLAMENDUAK eta TEILATUAK




ZERAMIKA

**ETA...
PINTURA
BURDINDEGIA
MAKINAK
ERREMINTAK
ITURGINTZA
ELEKTRIZITATEA
LOREZAINZA**

TXIMINIAK eta PELLET

ZERBITZUAK

Leitzako Bidea, 39 · 31740 DONEZTEBE Nafarroa · T. 948 45 03 05 · menditxuri@bigmat.es · www.menditxuri.com





NIRE TXANDA

JOSEBIÑE AGIRRE SOTO

Arropa zikinaren beharra

Ez dakit zergatik, sinesten nuen bizi zoriontsua arazorik gabeko bizia zela. Gezur galanta. Nire 21 urte guti hauetan zerbait ikasi badut, arazoekin bizi beharrean gaudela da. Ikasi dut arazoak arropa zikina direla, eta bizia, arropa zikinaren zakua. Zakua hutsik nahi duen hori izanen da malerusa, ez baitu ikusi nahi beti badela trapuren bat garbitzeko. Duela guti irakurri nuen gizakiaren baitan dagoela arazoei aterabideak atzematea: eta problemarik gabe ez dago aterabiderik. Soluzioak sortzea bada gure «gauza», arazoak beldurrez hartu beharrean gogotsu hartu beharko genituzke, geure baitan baitago hauetatik aterabidea atzematea. Obsesionatzeraino bizia errazten digula dioen mundu honetan, ordea, problemek ezinegon geroz eta haundiagoa sortzen dute. Hoberena, baina, arropa zikinaren zakua ez gainezka ez hutsik izaten saiatzea delakoan nago. Arazoen eta norberaren arteko elkarbizitza lantzen duena da zoriontsua, soilik oreka horretan ulertzen ahal baita biziaren gozamena.

**«SOILIK OREKA
HORRETAN
ULERTZEN AHAL
DA GOZAMENA»**



EZPALA

AITOR AROTZEN AIBIZU

Birikak eta babesa

Herritarrak lagun bihurtzeko gaitasuna. Herritarrekin konektatzeko bidea. Birikak eta babesa. Europako klub handienetako batean ari den Niko Mindegia handiak Erreka elkarte xumeari eskainitako solasak. Baina berdin balio dute BKT, BRT, Izarra, SPUC, Arkupe, Txaruta, Aurrera, Baztan, Beti Gazte, Doneztebe, Gure Txokoa edo Umore Onarentzat ere.

NABARMENTZEKOAK



**HAIRA
AIZPURUA**
BERTSOLARIA



**HODEI
LUJANBIO**
LASTERKARIA

Haira Aizpurua Ibargarai saratarrak irabazi du hirugarrenez Xiberua, Lapurdi eta Baxe Nabarreko bertsulari gazteen Xapelgoa. Larunbatean Euskal Herriko finalean kantatuko du.

Sasoi puntu bikainean dago Hodei Lujanbio lasterkari goizuetarra. Intxixu Trail eta Euskal Herria Mendi Erronka irabazi ditu berriki, eta Zegama-Aizkorri lasterketa ere egin du.

GIBELERA BEGIRA



2012-06-14 · TTPI-TTAPA · 568 zk.

Mikel Nieve hamargarren Italiako Giroan

Sasoi onean zen Mikel Nieve txirrindularia 2012an. Urte hartako Italiako Giroa 10. postuan bukatu zuen Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulari leitzarrak, Hesjedal (Kanada, 1980) Giroko txapeldunarengandik zortzi minutu eta zortzi segundora. Lan ederra osatu zuen txirrindulariak, nahiz eta ez zuen aurreko urtean bezala, etaparik irabaztea lortu. Behin Giroa bukatuta, egindako lanarekin kontent itzuli zela kontatu zuen: «Lehenengo hamarren artean sartzea oso konplikatu da, eta pozik egotekoa da. Gainera, arriskatzu lortu dugu, urrutitik eraso eginez eta eta talde elkartua eta ausarta gara erakutsi dugu». Taldea ere kontent zen bere sasoi puntuarekin.

ttipi-ttapa

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odrizola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana

Kalporsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerreko Zerbizuen Mankomunitatea.

2022ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerreka 42
Leitza 33
Hego Euskal Herria 50
Ipar Euskal Herria, Europa 98
Amerika eta Australia 147



KOLABORAZIOAK

MIKEL TABERNA IRAZOKI KAPI

G(r)eban

Izeik trapuzko mingaina du, baina «amatxi» garbi ateratzen zaio; «atatxi» ere bai, noski («atautxi» ez da oraingo moda). Bertzelako solasak ere konprenituko dizkiozu, estreinako aldian ez bada bigarrenen; bere maneran adieraziko dizkizu eta zuk jakinen duzu zer den gauza bakoitza. Oraindik haur-hizkera da gehienbat zuen arteko hizkuntza: «apapa», «toto», «kika», «punbala»; gero, poliki-poliki joanen da helduen munduko hitzak ikasten, adiskidetzeko eta haserretzekoak, maitatzeko eta gorrotatzeko formula guziak. Zuk behin eta berriz erranen dizkiozu eta berak aldiro ekarriko dizkizu bueltan, frontoiko paretaren kontra pilotarekin ariko bazina bezala.

Ez da maiz gertatzen, baina gaur zurekin aterako da paseatzera, aita eta ama lantokian ari baitira. Hartu duzu haren aulkia, gurpilduna, eta azpian sartu badaezpada ere beharko dituzuen puska guziak: jostailuak, jan-edatekoak, ipurdia garbitzekoak, jauntzekoak.

Abiatzeko tenorean, aulkian jartzera gonbidatu duzu. Ordea, berak nahiago du oinez, ttaka-ttaka; zu hala baldin bazoaz, zerbaitengatik izanen da. «Ez» erran dizu, eta ezker-eskuin mugitu du eskuko behatza, edo burua, zer adierazi nahi duen dudarik ez izateko. «No» ere izaten da batzuetan; batekin ez

«INJUSTIZIA AGERTUKO ZAIO NOIZNAHI EZKER- ESKUIN...»

badiogu kasu egiten bertzearekin probatzen du. «Nekatuko duk, alajinkoa!», pentsatu duzu zeure baitan, eta segitu duzue bidean. Xubixabalen nahitaez gelditu behar izan duzue, harri koxkorra errekaratutako,

putzuan egiten duen plasta aditzeko. Bakarrarekin ez baita konformatzen, denbora puska bat eman duzue bertan, baina ez zaizu inportatzen; zu zerori ere zenbat aldiz zeure bizian urari begira, sorgindua, eta urarekin jostetan?

Noizbait ere abiatu zarete berriz, tira aitzinera herriko karriketan barna. Kasu eman behar, espaloiak ez baitira behar bezain zabalak toki gehienetan, eta zolan ere nahi baino koska eta zulo gehiago. Eta errepidera ez hurbildu sobera, motorrak arrisku eta txoferrak ez baitira fidagarri inondik ere. Badakizue badi-rela han eta hemen toki babesak, txirrista eta bertzelakoz hornituak (bidenabar errateko, ez denak, ez beti, behar bezala zainduak), eta horietako batera ailegatzea duzu burutan. Harat joaki zaretela, halako batean taka gelditu da zure ondoan doan minipertsona, ezaguna duen etxe bati begira, goizero bisitatzen baitu: Mukixu haur eskola. Gaur ere ez da posible bertara sartzea, eta ez du entenditzen sobera ongi zergatik. Pankarta horian paratzen duena atera zaizu ahotik: «Mukixuko langileak GREBAN». «Geba!» errepikatu du gaurko zure lagunak. Haren azpitik pasatu zarete, eta pentsatu duzu modu horretan lehenbiziko aldiz sartu dela sinbolikoki ttikia bizitza errearen karrika luzean, han non injustizia agertuko zaion noiznahi ezker-eskuin eta modu batean edo bertzean jokatu beharko duen; «Geba!» oihiu eginez, konparazio batera.



MIREN RUBIO ITURRIA

Zuri-gorritz jantzita

50 bat urte bertzerik ez dira pasatu sanferminetan herritarrek zuriz janzten hasi zirenetik modu orokortuan. Iruñeko La Veleta peñan omen du sorburua ohiturak: langile klaseko kideek osatzen zuten taldea, eta 1931n arropa zuria erabiltzen hasi ziren, dirudienez, bertze peñetatik bereizteko. Izan ere, langileak izaki, arropa zuria lortzea eta garbitzea aski merkea zen, eta tratante eta harakinen jantzi beltzen aldean, bereizgarria suertatu zitzairen.

1960ko hamarkadan, ordea, hedatu zen sanferminetan zuriz janzteko ohitura, historiadoreen hitzetan. Udalak herritarrei hala proposatu zielako eta etxeetan garbigailuak ere agertzen hasiak zirelako. Laster, herritarrek bat egin zuten proposamenarekin eta bere egin zuten janzkera; langile xumeentzat hain eroso zen uniforme hori. Gaur arte. Baita Lesakan eta bertze hainbat bestetan ere.

Kuriosoa da, gero. Mende erdi eskas baita kuadrilla bati bururatutakoa anitzentzat ohitura bihurtu dela ikustea. Betidanik egiten den ohitura, tradizioa.

Mixel Etxekopar musikariari behin entzun nion gisan, tradizioa sorburua ahantzia duen ohitura bat bertzerik ez

«TRADIZIOA SORBURUA AHANTZIA DUEN OHITURA BAT DA...»

baita. Hedatzen eta aldatzen doana, jabetzen ez bagara ere. Eta horregatik ere bada gai transmititzeko. Sortzeko, aldatzeko eta eraldatzeko, herritarrek beretzat duten artean.

Uztailaren 6ko altxaferoa

botatzerako, nik ere izanen ditut soinean kamiseta eta galtza zuriak. Aurten, gainera, aparteko ilusioz. Zuriz eta gorritz jantzita besta eta komunitate baten parte bihurtuko naizelako, aspaldiko partez; kalimotxo eta garagardo erorientzako mihise perfektua. Eta Veletako peñako langileez oroitu naiz. Gazteak ziren gizon kuadrilla hartaz. Lau sos sakelan, besta gogoak bultzatuta izan zuten burutazioaz. Ordura arteko tradizioarekin hausteko jantzien jolasaz. Hain aldatuta eta eraldatuta, orain bestarekin bat egiteko nire ohitura ere badelako.

11 GALDERA LABUR

GARBIÑE AGERRE ETXALAR ALMANDOZKO GAZTEA

«Herriko bestak herritar guziok gozatzeko dira»

Ekainaren 15etik 19ra Almandozko bestak ospatuko dituzte eta antolakuntzan lanean ari da Garbiñe Agerre.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Neska alaia eta familiarra, natura eta lagunekin gelditzea gustuko duena.

Zein dira zure zaletasunak?

Irakurtzea, eskulanak egitea eta mendia.

Almandozko besten antolatzailea zara. Nola aukeratzeko duzue?

Normalki, urtero bi gaztek haien burua aurkezten dute urte baterako.

Nortzuk zaudete aurten antolakuntzan?

Aurten lau lehengusuok aurkeztea erabaki dugu, bi urtetarako; Oihan, Uxo, Alazne eta ni.

Lan handia da?

Urtetik urtera gauzak aldatzen dira. Gure kasuan, bi urtez deus egin ezin izanak zailtasun gehiago sortu dizkigu, antolakuntza ia-ia zerotik hasiz. Baina lauron artean errazagoa da.

Hala ere, bi urteren ondotik gogotsu egonen zarete...

Bai pentsa! Herritar guziok, heldu nahiz gazte, ikaragarriko gogo dugu aurtengo bestak ospatzeko.

Herrian ilusioa nabaritzen da?

Bai, antolatzen hasi garenetik herritarren ilusioa eta laguntza nabaritu dugu, eta eskertzekoa da horrelako herri ttiki baten dako.

Zer hartu duzue kontuan egitaraua prestatzerakoan?

Laurok argi dugu Almandozko bestak herritar guziok go-



zatzeko eta parte hartzeko direla. Hori dela eta, herritar guziongana pentsatzea izan da gure helburu nagusia.

Zer da bestetatik gehien gustatzen zaizuna?

Bestak antolatzeko eta prestatzeko sumatzen den herritartasuna eta elkartasuna; denak prest daude edozertan laguntzeko.

Antolakuntzan egonda, bestarako astirik izanen duzu?

Bai eta ez; azken finean antolatzailea izateak erantzuz-

kizunak ekartzen ditu, baina hor egoteak eta giroaz gozatzeko lanari pisua kentzen dio. Gainera, lau izateak lana guttitzea eta bestez disfrutatzeko errazten du.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Lanean segitzea eta egunean egunekoa gozatea.

Eta epe luzera?

Dauzkadan zaletasunekin segitzea, inguruko pertsonekin bizitzaz disfrutatzeko eta posible dudana guziaz bizitzea.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Mairidireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Egiten ahal da

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Aldaketak bizitzaren parte dira. Dena berdina izateak aspertzen gaitu. *Berria* hitzak erakarpen berezia du denongan. Umeengandik hasi eta adineko guztiengana. Berri guztiek aldaketaren bat suposatzen dute, eta horiek ez dute denen onarpena izaten, onerako izan arren. Ohiturak, oso sustraituak baldin badira, aldatzea zaila gertatzen zaigu, bai ohitura pertsonaletan, bai gizataldekoetan. Zailtasunak hor daude.

Denok gara zailtasun horien lekuko, nahiz eta askotan gure osasunaren aurkako ohiturak izan. Garai baten, ez zegoen nahiko informazio alkoholari edo tabakoari buruz, eta ez zitzaien garrantzirik ematen, ez bati, ez besteari. Alderantziz, haurrei, adibidez, edari goxoak baina alkoholdunak ematen zizkieten makalaldiren bat izaten zutenean, beren egoera hobetzeko asmotan.

Tabakoarekin ere, berdin gertatu zen. Hasiera batean, ezaugarri sendagarriak zituela uste zuten. Eta orain urte gutxi arte, ez ziren ezagutzen bere ondorio kaltegarriak. Horregatik, ez da harritzekoa zigarroa erretzeak ez debekurik sortzea. Toki guztietan erretzen zen; bai toki pribatueta, bai publikoetan. Etxebizitzako egongelan edo jantokian erretzen zen. Irakasleek ikasgelan ikasle adingabekoen aurrean erretzea normala zen. Eta horiek adinez nagusi izatean ere bai, unibertsitatean, adibidez.

Garraio publiko eta pribatueta ere berdin gertatzen zen. Autobusetan, trenetan, hegazkinetan, bakoitza bere auto barruan... Denak ziren erretzeko tokiak. Gogoratzen dut hegazkinetan erretzaile eta ez erretzaileen tokiak bereizten ziren;

eta billetea erostean galdetzen ziguten non nahi genuen bidaiatu: erretzaileen edo ez-erretzaileen artean. Eta behin baino gehiagotan, erretzaileen artean bidaiatu behar izaten genuen erretzaile askok ez-erretzaileen aldea aukeratzen zutelako, nahiz eta gero, zigarroa erretzeko erretzen ahal zen aldera mugitzen ziren. Zigarroari lotuta gogoratzen dudan beste bidaia Marokora autobusez egindakoa da. Bidaiari gehienak erretzaileak ziren, eta itzuleran, autobuseko ordu luzetan sortu zen ke giroa jasangaitza izan zen ez-erretzaileontzat. Baina bereziki tabernak eta jatetxeetako bazkalondoak edo afalondoak izaten ziren askorentzat une preziatuenak beraien zigarro edo puru habanoez disfrutatzeko. Erretzaile gehienak gizonezkoak izaten ziren. Emakume batzuk erretzen ikustea onartzen bazen ere, ez zegoen oso ondo ikusita; gutxi ziren erretzaileak.

Garai haietan ez genuen uste gaurko egoera ezagutuko genuenik, eta erretzaileek hainbeste eragozpen izango zituztenik. Halere, ez dira gutxi oraindik zigarroaren menpe daudenak.

Gaur egun desagertuta dagoen beste ohitura, egun berezi batzuetan izan ezik, tabernatan hondakinak lurrera botatzea zen. Zigarro erretzaileei jarritako oztupoak denon onerako izan dira, eta batez ere ez-erretzaileok eskertu dugu egoera berri hori. Baina azken batean denok irabazi dugu. Adibide horiek erakusten digute, aldatu ezinak diruditenak posibleak direla, eta beste erronka askoren aurrean esperantza ezin dela galdu.

BOTA BERTSOA



MAIALEN ORMAETXEA ERRO

LESAKAKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER
LEHIAKETAN A MAILAN 1. SARIA
(10 URTETIK BEHERAKOAK)

Ikasketak

Doinua: Behin batian Loiolan

*Klasean baditugu
milaka azterketa
orritz beteta dut nik
motxilan karpeta.
Hainbertze azterketa
behar dut txuleta
hiruhilekoa akitzeko
gogoa dut eta.*

*Kurtsoa penkatzeko
dutela beldurra
zero bat aterata
amari gezurra.
Bata aurretik jarrita
ordun naiz lapurra
irakasleak niri
eman dit egurra.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Berria egunkariko estilo liburuko lantaldeak berriki oroitarazi duen «modako kalko alfer» bat bildu dugu aldi honetan Euskararen Txokoa: *balioan jarri.

Honela ageri da Berriako estilo liburuan:

balioan jarri* eta **balorean jarri*** erabili beharrean, **balioa eman, balioa onartu, aintzat hartu, -ren balioa nabarmendu, -ren balioa ezagutarazi, azpimarratu...** erabil daitezke. Adibidez:

-*Udalaren egitasmoak balioan jarri du museoaren eredua

> Udalaren egitasmoak agerian utzi du museoaren eredua ona dela.

-*Hitzak balioan jarri nahi ditu

> Hitzei beren balioa eman nahi die.

Hizki zopa

Batzuk belarretan hasiak izanen dira, bertze batzuk egin gabeak izanen dituzte oraindik. Bilatu hemen belar lanarekin lotura duten hamar hitz.

N	H	V	F	W	G	V	J	S	R	O	G	X	S
T	T	J	G	U	R	D	I	W	K	U	V	O	H
Z	F	P	W	U	I	V	N	N	V	R	F	X	L
F	A	R	D	O	O	K	I	B	T	R	F	L	E
B	A	S	E	R	R	I	T	A	R	I	C	B	N
A	J	K	L	P	D	N	C	C	L	B	P	K	Y
R	X	F	A	L	E	D	X	J	L	E	M	Y	X
R	B	T	R	A	K	T	O	R	E	L	U	M	C
A	U	M	A	I	N	D	I	R	E	A	K	R	L
S	C	M	I	I	T	K	K	L	Z	R	U	R	E
T	O	O	O	M	C	O	Z	E	D	N	R	H	J
E	A	V	L	E	D	F	R	N	G	B	U	P	S
L	V	H	P	T	O	G	G	Y	X	B	R	S	Q
U	T	I	O	A	X	S	A	R	D	E	Z	V	K

Nola erran



LI duten hitzak euskaraz

Euskaraz ere badago *il* (elle). Hor ditugu Euskaltzaindiaren Hiztegian, bertzeak bertze, Hegoaldekoak diren hitz hauek:

-Tortilla, pastilla, bonbilla, billete, lentilla, paella, galleta...

Edo nazioartekoak diren bertze hauek:

-Gerrilla, artilleria, gillotina, billar...

Pertsona- zein leku-izenetan ere ageri da, bai euskarazkoetan, bai kanpokoetan:

-Alluitz, Pello, Erremelluri, Illare, Sunbilla, Allo, Mallabia, Zalla, Mallorca, Sevilla...

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61



Imanol Lukanbio Arantzako Udaleko mendi zinegotzia –ezkerrean– eta Dabid Iturria Arantzako alkatea –eskuinean– eskolako haurrek egindako landaketan. TTPI-TTAPA

Bertako gaztainaren balioa aitortzeko lanean

Herriko gaztaina barietateak berreskuratzeko proiektuarekin aitzinera segitzen du Arantzako Udalak. Herritarrek gaztainondoak txertatzen ikasteko egin dituzten saioek erantzun ona izan dute eta horrez gain, probarako eremu bat egokitu dute

G. PIKABEA ARANTZA

Herriko gaztaina barietateak ez galtzea eta identifikatuak izatea. Horixe izan zen Arantzako Udalak esku artean duen proiektuaren abiapuntua, baina Dabid Iturria alkateak dioenez, «gauza batek bertzea ekarri du» eta azkenean haratago joan dira. Bertzeak bertze, herritarrek ikastaroak paratu dituzte martxan eta horrekin batera, probak egiteko eremu bat egokitu dute gaztainondoekin.

Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentuak

egin zien lehenbiziko proposamena. Bertako gaztainak berreskuratzeko asmoz, Nafarroa mailan gaztainak aztertzen ari dira, eta Imanol Lukanbio Arantzako mendi zinegotziaren arabera, «Nafarroa mailan gaztaina gehien kontserbatu dituen herria Arantza dela ikusita, Mikel Diaz Ingurumen Departamentuko basoak kudeatzeko zerbitzuko teknikariak Arabako Apilaiz herrian egin duten proiektua Arantzán martxan paratzea proposatu zigun». Gobernuaren gonbitak herri-

tarren eskaerarekin bat egin zuen: «Aunitzek erraten ziguten gaztainarekin kezkatuak zeudela, txertatzen saiatzen zirela baina ez zietela hartzen, gustura egingen luketela ikaslaroren bat...».

Eta bateko eta bertzeko eskaerak bat eginda, Efen Martin adituarengana jo zuen udalak: «Efreni proiektu bat eskatu genion eta hiru urteko egitasmoa aurkeztu zigun», dio Iturriak. 2020ko urrian aurkeztu zuten, eta geroztik bertze lau saio egin dituzte, bakoitza bi eguneko. Egun

batean, Martin Nafarroako Gobernuako teknikariekin eta udal ordezkariekin bildu izan da, eta bertzean herritarrek eta gaian interesa dutenekin ikastaroa izan dute.

Alderdi teorikoa eta praktikoa landu duten saioak izan dira, eta Lukanbioaren hitzetan, «gaztainondoa landatzen dugunetik fruta ematen duen momentura arteko prozesuan egin beharreko guziaz azaltzen digu: txertaketa motak, difereenteak baitira udaberrian eta udan egiten diren txertaketak; mentuak nola hartu, kimaketa lanak; zainketa lanak; gaitzak ez hartzeko edo guttiago jartzeko zer egin... Garai batean egiten zuten lana da, denbora-rekin alde batera utzi duguna».

Gaztainadien abandonua

Bertze lezio bat ere eman die Martinek: «Txipa aldatzeko erran digu» erran du alkateak, hau da, «gaztainei buruz dugun ikuspuntua aldatzeko. Tinta eta txankro gaitzak hor daude,

baina Efrenen ustez, neurri haundi batean gaztainondoa alde batera utzi dugulako garatu dira gaitzak, ez direlako behar bezala zaindu. Zuhaitza bera gaitzak garaitzeko gai dela erraten du». Lukanbiok ere bide beretik jo du: «Ez dira sagarrondoak bezalakoak, ez dituzte sagarrondoek behar dituzten zainketak behar, baina ezin ditugu pagadi bat bezala utzi. Gaztainondoak bere zaintza lanak behar ditu, kimaketak, garbiketak... 90eko hamarkadan gaitzak gogor jo zituen gaztainondoak, eta aunitz galdu ziren. Baina, gaur egun, gaitzen aldetik egoera ez da hain txarra txarra. Badi-ra bizpahiru gaitz eta plaga batzuk, baina arazorik handiena gaztainadien abandonua izan da».

Aterabide ekonomiko

Ikastaro hauen bitartez, gaztaina aterabide ekonomikoa izan daitekeela ere ikusi dute: «Ez genekizkien gauzak azaldu dizkigu; konparazio bate-ra, gaztainak zein aterabide dituen. Frutak berak eskaera handia du, Euskal Herrian eta estatu mailan kontsumitzen denetik hagitz gutti produzitzen da bertan. Horrez gain, gozogintzan gaztainaren irina hagitz preziatua omen da, gaztaina elikagai energetiko bezala ere merkaturatzen dute, garagardoak egiteko erabiltzen dute, ezta egiteko... Aterabide andana ditu», dio alkateak. «Efrenen bere jakituria erakusten digu eta norbaitek probestu nahi badu hor du».

Horren harira, zenbait tokitan despopulazioaren aurkako bitarteko eraginkorra izan dela azpimarratu nahi izan du Lukanbiok: «Extremaduran, adibidez, gaztainaren bidez biztanleria finkatzea lortu dute. Bizitzeko bertzera aukerarik ez dagoen tokietan, gaztainarekin egin dute aitzinera. Oraingoz, hemen baditugu bertzera aukerak, igual ez dugu horren bertzeko beharrik, baina norbaitentzat aukera bat izan



Gaztainondoa korra teknikarekin txertatua.



Adar begiko txertaketa.



Ingeles estiloko txertaketa.

daiteke, edo egiten duenaren osagarri». Extremaduran ez ezik, Galizian edo Gaztela eta Leonen ere diru iturri omen da gaztaina.

Denboran gibelera eginez, gaztainak izan duen itzala ere agerian utzi nahi du Arantzako Udalak. Iturriak eta Lukanbiok oroitarazi dutenez, «datu zehatzik ez dugu, baina aitzinak oengandik jakin dugu Arantzako gaztainak garrantzi handia zuela; idatziz ere hartu dugu». Horren oinarrian, 1988an Basartearen enpresako Jesus Garitacelaya teknikariak gaztainari buruz egindako ikerketa dago. «Ikerketa horretan, elkarriketa batzuk egin zituen, tartean, Atanbordeko baserriko Cipriano Goñiri.

Elkarriketa hartan Ciprianok erraten zuen urrian gaztainekin bi jornal ateratzen zituztela. Garai batean, baserri guztietan saldu edo trukerako erabiltzen zuten gaztaina. Diru sarrera ona zen. Efrenen hitzetan, hamar urteko epean urteko eta hektareako 3.000 euro ateratu daitezke».

12 barietate

1988ko ikerketa berean gaztainaren hamabi barietate identifikatu zituzten Arantzako: *sanmigela*, *txerta zuria*, *gaztain goxua*, *porkaltsa*, *roketarra*, *txerta gorria*, *morkots latza*, *lesakarra*, *anboltsa* edo *danboltsa*, *meauregorria*, *sarobia* eta *sanmartina*. Gaur egun, ordea, barietate horietatik

zazpi baino ez dituzte berreskuratu: «*anboltsa*, *sanmigela*, *porkaltsa*, *roketarra*, *meauregorria*, *gaztain zuria* eta *lesakarra*», kontatu du Lukanbiok. «Gainerakoak igual mendian izanzen dira, baina ez dugu lortu identifikatzea».

Horiekin analisi genetikoak egin dute, «hostoak hartu eta Galiziaraz aztertzea bidaliz, barietate berekoak diren edo ez ikusi dugu». Baina azterketa horrek «zaintza batzuk» utzi dizkie airean: «*Porkaltsa*, *lesakarra* eta *gaztain zuria* barietateen zuhaitz bakarra aterada. Nafarroako Gobernuak barietate bat kontsideratzeko bi zuhaitz behar dira, eta horregatik, gobernuak barietate horien bigarren lagin bat hartzea erabaki du». Herriko etxe-koek hiru barietate horiek daudeneremuak identifikatuak omen dituzte, baina herritarrei ere egin die deia zinegotziak: «*porkaltsa*, *lesakarra* eta *gaztain zuria* barietateak dauden gaztainadiak badirela jakinez gero, udalarekin harremanetan jar daitezela. Horien bigarren lagin bat lortuz gero, Nafarroako Gobernuak barietateak hartuko luke». Gehiago ere aitortu du: «Jakituria hori biltzera justu-justu ailegatu gara. Jende helduak badaki zerbait, baina ez lehenagokoek adina. Jakituria aunitz galdu da».

Probarako eremua

Argatsoro izeneko eremuan gaztainondoekin hektarea bateko «probarako landaketa eremu» bat sortu dute, eta hori «bertako gaztainak identifikatuak mantentzeko» eta «mentuak hartzeko» tokia izatea nahi dute. Zati batean, landaketak eskolako haurrek egin dituzte, zehazki patroiak edo oinak landatu dituzte, gerora bertako barietateetatik ateratako mentuak txertatzeko. «Interesgarria iruditzen baitzaigu haurrak inplikatzeko, eta herritarrek tartean sartuz, etorkizunean proiektuak segida izatea», adierazi du —>

«UTZIKERIA IZAN DA ARAZORIK HAUNDIENA»

IMANOL LUKANBIO, ZINEGOTZIA

«GAZTAINAK ATERABIDE ANDANA DITU»

DABID ITURRIA, ALKATEA

—> alkateak. Eskolako neska-mutikoek egin duten landaketaz gain, bertze zati batean, «garai batean bota zen pinudian berez naturalki aterira diren gaztainondoak txertatzeko probestu dugu».

Genetikoki barietate bera

Mendi zinegotziak probarako eremu horretan egin duten eta egin nahi dutena kontatu du: «genetikoki % 100 barietate berekoa izateko bertakomentu zati bat hartu eta txertatu behar da. Gisa horretara txertotik goiti %100 barietate hori dela ziurtatzen dugu. Frutatik heldu dena gaztainondo baten umea da, baina bertze batek polinizatutakoa da, eta beraz, nahasketa da; ezin da ziurtatu amaren barietate bera denik».

Hala, barietate bera bermatzeko, tintarekin hondatzen ez diren gaztainondoen oinak erabili dituzte Argatsoroko lur eremuan. «Extremaduratik ekarri ditugu. Gaztainekin urte aunitzez ikerketak egin dituzte eta egurretarako onak diren, fruta ematen duten eta tinta gaitzarekin hondatzen ez diren barietateak bereizi dituzte. Gure kasuan, tintaren kontra eraginkorrak diren barietateak landatu ditugu. Tinta gaitza zainetatik sartzen den onddoa da, eta hortaz, tinta ez zaio zainetatik sartuko». Hurrengo pausoa landatu duten gaztainondo hori moztea izanen da, «gutti goiti-beheiti metro bat eta erdiko altura emanez, azienda ibiltzen den tokira arte», eta horiei bertako barietatea txertatuko diete.

Materiala ateratzeko

Argatsorokoa ez da Arantzan gaztainondoekin martxan duten proiektu bakarra. Bulatsegi alderdian bertze bat dute: «udalak herri lurra utzita, Nafarroako Gobernuak egurra produzitzeko gaztainondoak landatu ditu. Orain dela 40 urte Arizkunen egurra produzitzeko barietateen landaketa bat egin zuten, eta hobekien



Lukanbio eta Iturria gaztainondo bati egindako txertaketei begira. TTPI-TTAPA

funtzionatu zuen barietate hori landatu dute. Gobernuak bere gain hartu du proiektua osotasunean, eta gaztainak, pinuak bezala, urte guttiz kalitate oneko egurra produzitzen ahal duela eta errentagarria dela ikusi nahi dute».

Bertako gaztainak berreskuratzeke proiektuan ere eskua sartua du gobernuak. «Argatsoroko eremuaren zainketa eta prestaketa lanak gobernuak bere gain hartu ditu eta herri-

tarrentzako ikastaroa da udalaren esku gelditu dena». Udalak gaztainondoei buruzko jakitura zabaldu nahi baitu: «Proiektuaren helburua bertako barietateak identifikatuak izatea eta txertatzea da, baina aldi berean, garrantzitsua iruditzen zaigu herritarrek ikastea, luzera begira segida izan dezan. Zenbat eta jende gehiagok ikasi, biziraupena bermatua goa izanen dugu», adierazi du Lukanbiok.

Uda aldera egingen dute Efrén Martinekin hurrengo saioa. «Igual plantatu ditugun oinetan bertako barietateak txertatu ahal izanen ditugu. Ikusiko dugu». Orain artekoarekin behintzat gustura daude. Lukanbioren hitzetan, «jendeak hagitz ongi erantzun du. Nabari da baduela interesa. Gehienek ikastaroetan ikasitakoa etxean praktikatu dute». Eta alkateak «ikasteko ilusioa» nabarmendu du: «Badago gaztainarenganako maitasuna eta lotura, jendeak badu berreskuratzeke grina eta hagitz kontent gaude». Hortik aitzinera proiektuak segida izatea izanen da erronka, denen artean, herriko gaztaineri kontu eta duten balioa aitortzeko.

«INTERESGARRIA DA HERRITARRAK INPLIKATZEA»

DABID ITURRIA, ALKATEA

«NABARI DA JENDEAK BADUELA INTERESA»

IMANOL LUKANBIO, ZINEGOTZIA



Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



IÑIGO ARRETXE
SUNBILLA ESCAPE ROOM

«Familia edo lagunekin elkarlanean abentura bat bizitzeko aukera ematen du»

Escape room bat irekiko du Iñigo Arretxeak Sunbillaan ekainaren 15ean Harbizi karrikan, «bide berdearen ondoren». Kontrabandoa du gaia: «kontrabandista talde bat atxilotu dute muga zeharkatzean eta kartzelara eraman behar dituzte; hor hasten da istorioa, polizien furgioan. Partaideek ordu bat izanen dute furgioitik atera eta herritik ihes egiteko». Kontrabandoaren historia eta Sunbilla ezagutzera eman nahi ditu, «turismoarentzako lagungarria izanen da». Diseinu

«arras landua» du, «xehetasu-nei garrantzia eman diet murgiltzea erreala goa izateko. Lagun edo familiarekin elkarlanean abentura bat arriskurik gabe bizitzeko aukera ematen du».



PABLO FEO GOMEZ
OKILLE TAILERRA - LEITZA

«Bizitzarako beharrezkoak diren baliabideak eskaintzen ditugu»

Leitzan dagoen tailer okupazionala da Okille. Bertan egiten du lan Pablo Feok hamar erabiltzaileekin, «desgaitasunak dituzten pertsonen bizitzarako beharrezkoak diren baliabideak eskaintzen». Hainbat gauza egiten dituzte tailerrean, «baina garrantzitsuena ez da bertan egiten duguna, hona etortzen diren langileentzako suposatzen duena baizik». Duela 29 urte hasi zuten ekimena, «alternatibarik ez zuen kolektibo bat zegoelako herrian». Mankomunitate eta udalak sortu zuten

tailerra eta Nafarroako Gobernuak erdia finantzatzen du. Gaur egun, paperezko eguzkiloreak eta egurrezko erlojuak egiten dituzte bereziki; «birziklatutako materiala erabiltzen dugu, gastu gutxiarekin ahalik eta etekinik handiena ateratzeko».



AINHOA IPARRAGIRRE PERURENA
SALTING IRIUÑA - IRIUÑA

«Ohe elastikoz jositako eta ongi pasatzeko zentroa da Salting»

«Ohe elastikoz jositako zentro bat» da Salting Ainhoa Iparragirrearen hitzetan; «ongi pasatzeko zentroa». Duela zazpi urte ireki zuten, «zentro mota hau erabat ezezaguna zen hemen eta beldurra genuen kristoren inbertsoa zelako, baina harrera ona izan du. Gainera, negua hemen luzea izaten da eta arratsalde hotz horiek pasatzeko aukera ona da». Urtebetetze ospakizunak, ikastetxeentzako alokairuak, salto libreak... hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte. Udan «goi-

zez eta arratsaldez» irekitzen dute, ikasturtean, berriz, «goizetan ikastetxeentzako eta arratsaldekotan denentzako». Salto ikastaroak ere egiten dituzte; «arratsaldeko lehen orduan, jende gutxi ibiltzen denean».



LEIRE AMOROS GRANER
ONDDO TA PUNTO - DONEZTEBE

«Gazte sentitzen den edozeini zuzendua dagoen marka da Onddo ta punto»

«Kotoizko arropa diseinatu eta saltzen duen marka» da Onddo ta punto, 2007an Donezteben sortu zena; «identitate propioa duen marka euskaldun bat sortu nahi genuen». Kamiseta mahuka luze eta motzak, kirol-jertseak, txaketak, poloak... saltzen dituzte eta «kotoiaren kalitatearengatik eta diseinu bereziengatik» nabarmentzen dira. «Markaren izen eta logoarekin jotzen dugu diseinuetan, eta denboraldi aldiro berriak sortzen ditugu». Jantziak «erosoak eta karrika-

koak» dira; «gazte sentitzen den edozeini zuzendua dago marka». Donezteben Artilepo denda dute produktuak saltzeko eta online salmenta egiteko, «baina Euskal Herri osoko hainbat saltokitan eros daitezke gure arropak».





Asier Calderon eta Patxi Castillo uztailaren 2an argiztatuko duten Larhun mendia atzean dutela. TTPI-TTAPA

«Burujabetzaren aldeko aldarria inoiz baino aktiboago dago»

ASIER CALDERON ETA PATXI CASTILLO PIRINIOETAKO BIDEA EKIMENEN SUSTATZAILEAK

Uztailaren 2an Pirinioetako 300 gailur argiztatzeko erronka dute Gure Esku eta ANC elkarteek, tartean eskualdeko 31. Ekimenaren bidez, autodeterminazio eskubidea aldarrikatu nahi dute

A. LARRETXE BERA

Uztailaren 2an Euskal Herria eta Katalunia lotu nahi ditu Gure Esku eta ANC Asambleak Nacional Catalana ekimenen antolatutako Pirinioetako Bideak. Helburua erabakitze eskubidearen alde 300 mendi argiztatzea da, autodeterminazioaren aldeko aldarria Europara eta mundura zabaltzeko. Patxi Castillo eta Asier Calderon beratarrek buru-belarri ari dira ekimenaren antolaketan, eta herriarrei parte hartzeko deia luzatu diete. Izen ematea www.gureesku.eus helbidearen bidez egin behar da.

Uztailaren 2an Pirinioetako ia 300 gailur argiztatuko dituzue.

Nondik sortu da Pirinioetako Bidea ekimena?

Asier Calderon: 2019an hasi ginen antolatzen. Katalunian gailur batzuk argiztatu zituzten eta ondotik, modu inprobisatuan Euskal Herrian gailur batzuk argiztatu ziren. Aiako Harria egin zen lehenengo, eta gero Euskal Herrian mendi pila argiztatu ziren, tartean Larhun ere bai. Horren ondotik, lagun batzuen artean sortu zen Pirinioak Katalanekin elkarlanean eta modu erraldoian argiztatzeko ekimena.

Zer da ekimenaren bidez aldarrikatu nahi duzuen?

Patxi Castillo: Bi herriren arteko elkarlana. Nazioarteko

ikuspegia eman nahi diogu. Pirinioak muga bezala kontsideratu izan dira, eta guk mendiak muga beharrean, lotura bihurtu nahi dugu. Helburua gure aldarrikapenak, bai euskaldunenak zein katalanenak, Europara begira eta nazioartera zabaltzea da, Pirinioak erakusleho izatea.

Zein da lortu nahi den irudia?

P.C: Gure aitzinetik, munduan eta Europako hainbat lurraldetan nazio gatazka badago: Eskoziako galdeketa sortzeko erreferenduma, Ipar Irlandako afera... Baina, ikusi dugu gure aldarrikapenak ez direla maiz modu berean aditzen. Haien parean jarri nahi dugu haien helburu bera dugulako:

erreferendum bidez gure etorkizuna erabakitze ahalmena izatea. Ikus dadila bada goela subiranotasunaren aldeko mugimendu zabal bat Europar mailan.

Euskaldunek 115 gailur argiztatuko dituzue, eta eskualdean dira horietako 31. Erronka handia da. Nola beteko duzue?

A.C: Horrek ez du erran nahi eskualdean dauden 31 mendi horiek eskualdeko herritarrek bete behar dituztenik. Euskal Herrian eremu horretan sartzen ez diren bertze herrialdeetako herritarrak ere etorriko dira. Aukera dago nahi duenak nahi duen gunean izena emateko, baina, herri bakoitzak bere erreferentziako mendia izanen du. Larhunen erraterako beratarrek egonen dira, baina, baita lapurtarrak, eta Gipuzkoako hainbat herritako herritarrak ere.

Larhun aipatu duzu, bertan elkartuko dira Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko herritarrak. Berezia izango da?

A.C: Berezia izango da bai. Pirinioak muga geografiko gisa saldu izan dira, baina, oraingoan lotura izango dira. Larhunekin neurri txikiagoan gauza bera gertatzen da. Muga artifiziala da, eta lotura izango da egun horretan. Egia erran denek daukagu burutan zer argazki atera zen Larhun argiztatu zenean, eta nik uste dut hori gaudituko dela. Hura kristorena izan bazen, erraldoia izango da orain etorriko dena. **Bi kategoriatan banatu dituzue mendiak, gorriak eta berdeak. Zein ezaugarri ditu kolore bakoitzak?**

P.C: Berdeak dira mendirik errazena, alpinista edo mendizale porrokatua ez den horrek egiteko modukoak. Mendi horiek edozeinek igotzen ahal dituenak dira. Mendi Gorriak, gehienak Pirinio Zentralean daude, nahiz eta hemen Aiako Harria gorritzat hartu den. Horiek mendizale trebatuentzako dira. Izena emateko bertzeko modu bat dago,

eta horiekin bertze harreman mota bat lantzen da antolakuntza aldetik ere. Zailtasun handiagoko mendiak dira.

Gorrietan ezin du, beraz, edozeinek parte hartu.

A.C: Mendi gorri horiek jende kopuruan mugatuak daude. Baldintza batzuk ere bete behar dira: federatua egon behar da, edota bertzela aseguru ordaindu eta material zehatza behar da. Mendi horietako batzuetan goian egin beharko da lo, jaitsiera luzea izanen delako. Segurtasuna izan behar da irizpide nagusia. Donostian koordinazio gune zentrala ezarriko da, eta dena ongi kontrolatuko da. Eguna ziur aski uztailaren 3ko goizean bukatuko da guretzat, bermatzen denean mundu guztia etxera ongi ailegatu dela.

Nola egin behar da izen ematea?

P.C: Mendi gorri zein berdeetarako izena eman behar da. Berdeei dagokionez, herri bakoitzak erreferentziatzeko mendi bat izanen du, baina, hala ere herria eta mendia aukeratu eta bertan parte hartzen ahal da. Federatuta dagoenak ez du segurua ordaindu beharrik, eta federatuta ez dagoenak aukera du aseguru hartzeko. Horrez gain, kuota txiki bat ordaindu behar da. Izen ematea egitea komeni da. Ziur azken momentuan etorriko dela jende dezente ez zekiena izena eman behar zenik, eta horiek ere noski parte hartzen ahal dute.

Nola doa orain arte izen ematea?

A.C: Mendi gorri aunitz itxita daude dagoeneko, beharbada xarmarik gehien dutenak direlako. Bertze mendietan, oraindik ere gauzak lotzeko daude. Ziur aski hitzorduak egingen dira mendira elkarrekin joateko, eta horiek lotzen ari gara.

22:00etan argiztatuko dituzue gailurrak. Zer egingen da horren aitzinetik?

A.C: Denetan masiboena Jaizkibel izanen da, hor 2.000 lagun sartzea aurreikusten da, eta bertan egonen da irisga-

Eskualdeko herritarren parte hartzea

Herria	Mendia
Arano/ Goizueta	Komizko Gaina
Arantzaz	Izu
Areso/ Leitza	Atxuela
Baztan	Abartan
Bera	Larhun eta Manttale
Bertizarana	Oteitzoiana
Etxalar	Kokoriko
Igantzi	Unanu
Lesaka	Fraingo Gurutzea
Malerreka	Oteitzoiana
Urdazubi	Lizartzu
Zugarramurdi	Atxuri
Sara eta Senpere	Larhun eta Xoldokogaina

rritasun arazoak dituztenentzako gune bat ere. Larhun, ere, adibidez masiboa izanen da herri aunitz bideratu direlako bertara. Mendi teknikoez ezin da horrelako ekintzarik antolatu, baina, bertzelakoetan herri bakoitzak aukera izanen du igoera edo egitarau propioa antolatzeko.

Uztailaren 2ko ekitaldiaren aitzinetik nola ikusten duzue karrika? Zein fasetan dago gaur egun autodeterminazioaren aldeko eskaria?

A.C: Katalunian, batez ere galdeketaekin mantentzen da neurri batean tentsioa. Borroak aitzinera segitzen du, baina, bertze termino batzuetan. Euskal Herrian kontuan izan behar da banaketa administratiboak ere bere eragina duela, eta erritmo desberdinak daudela. Burujabetzaren aldeko aldarrikapena inoiz baino aktiboago dago. Ikusi bertzerik ez dago Amaiuraldiak adibidez ze arrakasta izan duen, eta Nafarroa Berriz Al-

txak iraunkorki nola paratu duen dinamika bat 500. urteurrenaren inguruan eta nafartasun eta euskaltasunaren inguruan. Nafarroan behintzat, inoiz baino aktiboago dago hori. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan aldarrikapena sozialki hagitz txertatua dago, eta egunerokotasunean badago. Horrelako dinamika ongi heldu dira, tentsio maila azalera ateratzeko. Ipar Euskal Herrian burujabetzaren alorrean sekulako borroka egin da eremu propio bat izatearen alde, urratsak eman dira, eta horrez harago bertzelako aldarrikapenekin segitzen dute, baxoa euskaraz aldarrikatuz adibidez. Hori hizkuntza kontua bada ere, burujabetzarekin zerikusia badu, eta inoiz baino gehiago aktiboago dago. **P.C:** Egia da prozesu honetan dena ez dela ekintza masiboen bidez egin, bertze ekintza eta lanketa batzuk izan dira, adibidez Hamaika Gara plataformaren eskutik sinadura bil-

keta egin da, horrek ere balio dezan akuilu gisa, eta instituzioei erakusteko hemen gaudela. Pandemiak eraginda mantsoago joan bada ere, mugimendua ez da gelditu eta instituzioen gain ere jarri dugu begirada. Uztailako ekintzaren ondotik, hurrengo ikasturtean hauteskunde ziklo berri bat heldu da, eta oroitaraziko diegu instituzio eta alderdi politiko guztiei hemen gaudela eta gure ahotsa aditzeko beharra badagoela.

Amalur Alvarez Gure Eskuko bozeramaileak iaz emandako elkarrizketa batean nabarmendu zuen Katalanekin «sintoniatik sinkroniara» igarotzeko beharra zegoela. Ekimen gehiago antolatuko dituzue batera?

P.C: Hau izango da elkarrekin antolatuko dugun lehenengo ekintza handia, baina, ziur nago ez dela azkena izango. Honek ziur balioko digula harremanak estutzeko, eta hurrengo ikasturteari begira harreman hauek mantendu, eta ekintza desberdinak egiteko.

A.C: Sinkronia ez da lehiakortasun ikuspegi batetik sortzen, azken urteetan gure aurretik egon direnez beraien beraien parean egoteko lehia gisa. Sinkronia ulertzen dugu estatuari bi fronte paralelo irekitzeko, horrela hagitzez lorpen gehiago lortzen ahal ditugulako.

P.C: Bi fronte dira, baina, ez dira bakarrak izango. Ez dira Pirinioetan tokatzen, baina, Galiziatik interesa adierazi dute ekintza honetan moduren batean parte hartzeko, han zerbait eginez, edo hona etorritz. Bi fronte ditu orain Espainiar estatuak irekiak, baina, ez dira bakarrak izango. **Zein antzekotasun dituzte bi prozesuek?**

A.C: Nazio askapenaren aldeko aldarrikapena. Eremu bakoitzean ibilbide desberdina dago, eta horrek modu differentetan lur hartzen du leku bakoitzean eta lehentasun desberdinekin.

«HELBURUA GURE
ALDARRIKAPENAK
NAZIOARTERA
ZABALTZEA DA»

«EKIMENEAN
PARTE HARTZEKO
IZENA EMAN
BEHAR DA»



Lorategia sortu duten parte hartzaileak maiatzaren 28an. UTZITAKOA

Auzolanean lorategia sortu dute hainbat herritarrek

Bi hilabetez Juan Mari Artazkoz eta Fulgen Sutilekin lorezaintzari buruzko ikastaroa egin dute

A.LARRETXE

Bi hilabetez lorezaintzari buruzko ikastaroa egin ondotik, Julio Caro Baroja pasealekuan, belardia egokitu, eta auzolanean lorategia egin dute zenbait herritarrek. Maiatzaren 28an elkartu ziren 25 lagun inguru, eta lurra landu ondotik ondorengo landareak landatu zituzten: *Carex everillo*, *Carex morrowi*, *Tulbalghia violacea*, *Erigieron karvinskianus*, *Gaura lindheimeri*, *Sesleria autumnalis*, *Calamagrostis* eta *Pennisetum*. Hemendik aitzinera, Aspaceko langileek ureztatuko dute lorategia, eta

ikastaroan parte hartu duten kideak hilabetez behin elkartuko dira zaintza lanak egiteko. Zoritzarrez, lorategia egin eta egun gutxira «besta giroan» landare batzuk lapurtu zituzten gaez.

Udalak antolatu du lorezaintzari buruzko ikastaroa. Eskari handia izan da, eta hainbat herritar tokirik gabe gelditu dira. Ikastaroan hainbat lore eta landare mota ezagutu dituzte eta horien ezaugarriak landu dituzte. Horrekin batera, lorezaintza publikoaren garrantzia eta herritarren partaidetza nabarmendu dute.



NAFARROAKO AUTOMOBILISMO FEDERAZIOA

55 auto Ibardingo VI. Igoeran

Ekainaren 4an egin zuten Ziharka Sport automobilismo taldeak antolatutako Ibardingo Igoeraren VI. edizioa. Denera 55 autok auto zuten parte, eta horietatik 49k bukatu zuten lasterketa. Jendetza bildu zen Ibardingo bidean lasterketaz gozatzeko.

Ekainaren 30ean bukatuko da su-egur lotea eskatzeko epea

TTIPI-TTAPA

Urtero gisan, Berako Udalak su egurretarako loteak esleitu ditu aurten ere. Egurra mendian atera eta udalak kontratatutako enpresak etxe atariraino eramanen du.

Nahi duen herritar orok izanen du lotea eskatzeko eskubidea, baina, eskaria eskaintza baina handiagoa bada, lehen-tasuna izanen dute joan den urtean eskatu ez zutenek. Gainerakoak zozketa bidez esleitu dira.

Lote bakar bat esleitu da Berako bizitza eta unitate fa-

miliar bakoitzeko, eta eskatzaileak etxebizitza hartan erroldatua egon beharko du. Eskatutako loteak, bortz tonakoak izanen dira, 200 euro inguru ordaindu beharko da, eta 2023ko udan entregatuko dira eskatzaileak eskatutako helbidean.

Interesatuak Herriko Etxera deitu eta lotea eskatu behar dute ekainaren 30a baino lehen eta honako datu hauek eman: eskatzailearen izena eta abizena, telefono zenbakia eta lotea entregatu beharreko helbidea.

Ansonera
ostatu · jatetxea

T. 948 63 01 07
Foruen plaza, 1 · BERA

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 · Alizate, 17 · BERA

Izaskun Erasun
Nutrizionista

Dieta pertsonalizatuak
Eskatu hitzordua

San Esteban, 17 Behea | Bera
617 30 41 00

Bidasoa ibaiaren garbiketa egingen dute larunbatean

09:00etan egin dute hitzordua: oinez garbitzeko San Martingo presan, eta uretan garbitzeko Txarandaka parean

A. LARRETXE

Recicla Birziklatu elkarteak eta Behe Bidasoko zazpi udalek (Lesaka, Bera, Urruña, Biriratu, Hendaia, Irun eta Hondarribia) antolatua *Bidasoa ibaia garbi* ekimena egingen dute larunbatean, ekainaren 18an. Lesaka eta Berako mugan hasi, eta Hondarribira bitartean garbituko dute Bidasoa, ibaiko hainbat puntu zehatzetan. 09:00etan hasi eta 12:00ak arte egingen dute garbiketa, batzuk oinez ibaian sartuta, eta bertzeak uretan kayak, piraguak, paddle surf taulak edo surf taulak erabiliz. Bi modalitatetan parte hartzeko aitzinetik ize-na eman behar da @recicla_birziklatu instagram kontuan, recicla.birziklatu@gmail.com helbidera mezu bat bidalita, edota jarduera

eginen den herrietako udal-letxera bertaratuta.

Beratarrak eta Lesakarrekin gunere berean egingen dute garbiketa. 09:00etan egin dute hitzordua, eta modalitatearen arabera bakoitza leku batean elkartuko da: San Martingo presan (Alkaiaga industrialdean) oinez egingen dutenak, eta garbiketa uretan egin behar dutenak Txarandaka parean. 12:00ak bitartean egingen dute. Garbiketa lanak bukatuta, hamaiketako izanen da Irun eta Hendaia arteko Mugako oinezkoentzako zubian.

Horrekin batera, 12:30ean gunere guztietan bildutako zaborra erakutsiko dute, ibaian bildutako zabor denak hartzen duen bolumena ikusteko, eta herritarren kontzientziazioa sustatzeko helburuarekin.

Transpirenaica Social Solidaria proiektuari harrera larunbatean

TTPI-TTAPA

Gizarte bazterkeria arriskuan dauden gazteak gizarteratze-ko proiektua da Transpirenaica Social Solidaria. GR-11 bideari jarraituz, bazterkeria egoeran dauden gazteak gizarteratzea dute helburu. Beratik larunbatean igaroko da,

eta Berako Udalak harrera egingen die arratsaldean Herriko Etxeko plazan.

Igandean segituko du bere bidea proiektuak, eta Berako gazteei larunbateko harreraren, eta igandeko etapan parte hartzeko gonbidapena luzatu die udalak.



UTZITAKOA

Gure Txokoa Dantza Taldea Granollers

Gure Txokoa Dantza Taldeko dantzariak Granollers (Herrialde Katalanak) izan ziren ekaineko lehenengo asteburuan. Bertan, dantza emanaldia eskaini zuten, L'esbart Granollers dantza taldeko kideekin batera. Irailean katalanek bisita itzuliko diete beratarrei.

zalai
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

Astelehenetik ortziralerara:
07:15etik aitzinera

LABE ZAR

Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

744 484 361

ttipi-ttapa

GONE

Disfrutatu liburu onak irakurriz, aukera zabala duzu.

Eskatu heldu den ikasturterako testuliburuak abuztuaren 13a baino lehen eta jaso erosketaren % 10eko balioa duen bonua*

*Bonu hau erosketak bakarrean erabili ahal izanen duzu eskola materialean kontsumitzeko.

Tonerrak eta tintak enkarguz

LIBURU-DENDA, PAPER-DENDA, MARGO-DENDA, JOSTAILU-DENDA

Kanttonberri, 4 BERA Telefonoa eta 948 630 626 papeleriaigone@gmail.com



Margo lehiaketako saridunak, epaileak eta Beti Gazteko ordezkariak. A. AROTZENA

IX. margo lehiaketa azkarreko sari nagusia Artziniegara

Fernando Ureta Castelok irabazi zuen ekainaren 5ean Beti Gazteko Elias Garraldaren omenez antolatutako lehia

AITOR AROTZENA

Beti Gazte elkarteak bederaizigarren urtez Elias Garralda zenaren omenez antolatutako margo lehiaketa azkarra egin zuten ekainaren 5ean. Denera hemeretzi margolan aurkeztu zituzten eta Javier Igoa eta Paloma Ochoa Lesakako margolariak osatutako epaimahiak aukeratu zituen irabazleak. Artziniegako (Araba) Fernando Ureta Castelok lortu zuen lehenbiziko postua eta 700 euro jaso zituen. Bilboko Carlos Espega Alonso artistak lortu zuen bigarren saria, 350 eurokoa. Etxeko mar-

golariaren saria Jaxinto Otxoteko Altzugaraik lortu zuen, 150 euro.

Haurrek ere parte hartzeko aukera izan zuten, hiru kategoriatan banatuak; A kategorian (LH 1 eta 2) Saioa Tapia Mutuberriak irabazi zuen, B kategorian (LH 3 eta 4) Julen Castro Ordokik lortu zuen saria eta C kategorian (LH 5 eta 6) Laiene Mutuberria Sanjurjo izan zen garaile. Lesakako Zerbitzu Elkarteak eskainitako 30 euroko bonuak izan zituzten saritzak. Margolariak ez ezik, 21 argazkilari ere ibili ziren VI. Argazki Rallyan.



BETI GAZTE

Mahai joko txapelketetako finalistak

Beti Gazteren xake txapelketan Xabi Gonzalez nagusitu zitzaion Mattin Gonzalez anaiari eta pintxazo txapelketan ere, beraiek izan ziren txapeldun eta txapeldunorde. Mus txapelketan Larraitx Gonzalez eta Nerea Bazterrikak irabazi zieten finalean Mikel Mutuberriari eta Gorka Arangureni.

Udako solstizioko besta berriz ere bor-bor dator

Udako solstizioko besta eginen dute ekainaren 23an, *Gu hemen, zuek hor, euskararen alde bor-bor*goiburupean. 18:00etan taloak izanen dira; 19:30ean Lesakako bertso-eskolakoak ariko dira kantari, Lesakako Euskara Batzordearen adierazpena, sua piztea Bor-Bor mugimenduaren eskutik eta ezpatadantzari taldearen entsegu. Ondotik, herri afaria izanen da, norberak eramandakoarekin. Afaldu eta gero zozketa eginen dute eta 21:30ean dantzaldia Gabenara taldearekin.

Organo eta bortz bakarlarik igandean kontzertuan

Lesakako Roqués Organozaleen Lagunen Elkarteak udalaren laguntzarekin, 2022. urteko bigarren kontzertua antolatu du ekainaren 19an, igandean 19:00etan elizan. Sarrerak Teletxea eta Xagu liburu-dendetan eros daitezke (baita elizan ere), bortz eurotan, borondatezko ekarpen gisa. Organista (Ana Belen Garcia) eta Easo Abesbatzaren Easo Musika Eskolako bortz kantu bakarlarik gazte (Agate Pagola, Luken Munguira, Lorea Lopez, David de Oliveira eta Maria Jaunarena) ariko dira.

caser residencial
www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua • Farmazia
- Erizaintza • Psikologia
- Gaitze langilea
- Okupazio terapia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Iriztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzuak

• FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

- Animazio soziokulturala
- Nutritsioa
- Podologia
- Odontologia eta dentista
- Logopedia
- Audioprotesista

Bestelakoak

- Ilu-ogainketa
- Jostuna
- Eriljo zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntza
- Laguntza teknikoak kudeaketa

ANAKA BETHARRAM | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
| Zubietta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 160

JAIONE-GOXOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Alzate, 21 • BERA

TTPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
facebook
www.facebook.com/ttpti.ttapa

Ainhua Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

LIDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Teknologia berrietan oinarritutako Odontologia integral eta pertsonalizatu baten kontzeptua ekarri nahi dugu gure herrietara.

Horretarako, gaur egungo instalazio berrienak erabiltzeaz gain, espezialitate anitzeko lantalde orokor bat osatu dugu ahoko osasuna bermatzen duten zerbitzu guztiak eskaintzeko.



"Hortz klinika klasikoaren irudia alde batera utzi eta ingurune eroso, atsegingarri eta lasai bat sortu dugu zure irribarrea zaintzeko".

Odontologia orokorra

Ortodontzia

Ahoko kirurgia, periodontzia eta implantologia

3D ko Odontologia digitala

Hortz estetika

Ahoko errehabilitazio integrala

Hortz protesia

Endodontzia

Odontopediatria

Azido hialuronikozko infiltrazioak

Aho eta aurpegiko minaren gaineko terapia neurofuntzionala

Kirolaren inguruko Odontologia



Iturrunzubiko plaza, 9-10 | 31770 LESAKA (Na)

Tel. 722 662 478

lidera@hortzclinika.es | @liderahortzclinika

www.lidera.hortzclinika.es





Gasna lehiaketako saridunak eta zenbait epaimahaikide plazan. IRUNE ELIZAGOIEN

Gasna lehiaketako lehen saria Berako Sokorro Almandozek

29. ediziora aurkeztutako hamabi gasnen artean Garmendiko bordakoa gailendu zen, giro ederrean ospatu zen ferian

IRUNE ELIZAGOIEN

Eguraldiak erabat lagundu ez bazuen ere, jende aunitz gerturatu zen ekaineko lehen asteburuan, Altxata elkarteak antolatutako gasna eta eskulangileen feriara. Larunbatean herriko dantzari gazte eta helduek dantza saioa eskaini zuten.

Igandean, hamabi gasna aurkeztu ziren 29. edizioa bete zuten lehiaketara. Berako Garmendiko bordako Sokorro Almandoz izan zen 120 euroko lehen sariaren irabazlea. Bigarren saria (90 euro) Lesakako Agorlekuko Ainhoa Goñik es-

kuratu zuen eta hirugarren saria, 75 euro, Orabideko Kortariko bordako Julen Arburuak. Etxalarko gasnagileen artean, Joseba Danboriena izan zen garailea eta Joseba Arizaleta bigarren. Lehiaketara aurkeztutako gasnen erdiak zozketa egin ziren. Oraindik 4.828, 7.900, 7.932 eta 7.902 zenbakiei dagozkien gasna erdien irabazleak ez dira agertu. Zenbaki horietako bat duenak Altxata Elkartekoekin jarri behar du harremanetan bere gasna eskuratzeko. Segidan bertso bazkaria izan zen Unai Mendizabaleta Oihana Iguaranekin.

San Juan bezperako egitaraua indartua dator aurtan

Ekainaren 23an, San Juan bezperan, ohiko egitaraua berreskuratuko da aurtan. 20:00etan berendu afaria egingen da frontoian, bakoitzak nahi duena etxetik eramanda. 21:00etan joareak joz herriari itzulua emanen diote eta ondotik, herriko musikariek lagunduta, suak piztuko dituzte plazan. Eskola zaharren ondoan jarriko den kontenedorea egun horretarako paper eta kartoiak biltzeko izanen da. Aurtan, berrikuntza moduan, iluntzen duenean, sorgin dantza dantzatuko dute suaren inguruan.

Ikasturte bukaerako ateraldiak Landagain eskolan

Maiatzaren 18tik 20ra Landagain eskolako LHko 3. eta 4. mailakoak Oriola joan ziren. Arraun elkarteak bisitatu eta arraunean aritzeko aukera izan zuten. Orio-Zarautz ibilaldia egin zuten eta hondartzak ezagutu eta gozatu zituzten. LHko 1. eta 2. mailakoak, berriz, Plaiaundi parke ekologikoa bisitatu zuten maiatzaren 18-19an; Hondarribiko hondartzan jolastu zuten. HHko Lamiek eta basajaun-basandereek, ekainaren 6 eta 7a Arantzako aterpetxean pasa zituzten.



LARRABURUA ELKARTEA

Arnedora eskurtsioa

Larraburua elkarteak antolatuta, 43 lagun joan ziren Arnedora egun pasa maiatzaren 28an. Goizean zapataren museoa eta hainbat zapata-denda bisitatu zituzten Errioxako herri horretan. Azagran bazkaldu ondotik, Erriberrin izan ziren. Eguraldi ederra lagun, primerako txangoa egin zuten.

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T/F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina tolosaechepare

Arduo

arropa-denda
etxoeko osagarriak | lentzeria

Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

744 484 361

ttipi-ttapa

USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

San Juan Xarreko ospakizuna bere onera bueltatuko da

Ereiaroaren 24ko meza eta ospakizuna ez ezik, uztaileko igandetako elizkizunak ere bertan emanen dituzte

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Ailegatzen ari da aurten ere San Juan eguna eta, urtero bezala, ereiaroaren 24an San Juan Xarren meza izanen da eguerdiko 12etan. Ondotik, herriko dantzariak bertako zubian, emanalditxo eskainiko dute eguna borobiltzeko. Betiko moduan, bisitari aunitz espero dira egun horretan inguru zoragarri horretan. Biltoki Ttikiko gaztetxoek berriz, beti bezala, 'kantina' jarriko dute pintxo, edari eta erroskilak saltzeko eta diru pixka bat biltzeko.



San Juan Xar. ARTXIBOKOA

San Juan bezperako suak, otorduak eta giroa ere ez dira faltako herriko hainbat xokotan. Uztaileko igandeetako meza ere San Juan Xarren ospatuko dituzte.

Igerilekuak eta ostatua zabalik buruilaren 11ra arte

Ereiaroaren 11n ireki eta buruilaren 11ra arte egonen dira irekiak igerilekuak, goizeko hamaiketatik ilunabarreko bederatzietara. Joan den urtean ez bezala, ostatua ere ireki dute aurtengoan, gazte batzuk hartu baitute lan hau bere gain. Orain eguraldiak lagun dezala.



Dagoeneko erabil daiteke igerilekua.



UTZITAKOA

Giltzarri abesbatzarekin Bretainian

Gustura aski ibili dira herritarrek Giltzarri abesbatzarekin maiatzaren 27tik 29ra Bretainiara egindako irteeran. Zenbait entsegu egin, kontzertu eman eta ingurua ezagutzeko aukera ere izan zuten, Urruñako Kantauri abesbatzakoekin batera. Aipatu digutenez, dena primeran atera zen.



UTZITAKOA

Lehen jaunartzea

Bortz neska-mutikok (Neia, Izaro, Jerai, Jon eta Oinatz) lehen jaunartzea egin zuten ekainaren 5ean. Egun berean Korpuseko prozesioa ere ospatu zen eta, ondotik, herritar guztientzat luntxa eskaini zuten Erretorebaitan. Gurasoek antolaketa lanetan aritutakoak eskertu dituzte.

ANELAN
LAN BERTIKALAK

948 031 174
info@anelan.pro

Egiten ditugun lanak:

Fabladen konponketak,
segurtasun-sistemen
instalazioak, teiletuen eta
azpiegituren mantenimendua, etber.

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

Mutxikoak dantzatzeko aukera ekainaren 25ean

Egun horretan 18:00etan mutxikoak dantzatzera animatzeko deia egin du herriko dantzarien taldeak

NEREA ALZURI

Bortzirietan herriz herri dibilen ekimenak ekainaren 25ean Arantzan egingen du geldialdia. Herriko dantzarien taldeak udalaren laguntzarekin antolatu du hitzordua, eta larunbat horretan, 18:00etatik aitzinera mutxi-

koak dantzatzeko aukera izanen da. Eguraldi ona egingenez gero, plazan ariko dira dantzan eta kaskarrekin, berriz, frontoian hartuko dute atperpe.

Mutxikoak dantzatzea gustuko duen edozeinentzat irekia da ekitaldia.

Bertsopaper lehiaketan herritarrak sarituak

Maiatzaren 27an Baztan-Bidasoko XXXV. Bertsopaper lehiaketako sari banaketa egin zuten eta herriko bi gaztetxo saritu zituzten. 11 eta 14 urte bitarteko B mailan, Kattin Madariaga Apaolazak irabazi zuen *Paper Txuriak* lanarekin. 15 eta 18 urte bitarteko C mailan, bigarren saria Gaizka Zulaika Iturriarentzat izan zen *Arantzako inauterik* lanarekin. Bat-bateko saioan, sari nagusietako bat Kattinentzat izan zen.

Arantza Rocken aldeko pilotakadak ematen hasiak dira

Gazte Asanbladak, aurtengo Arantza Rocken antolaketan laguntzeko, bi txapelketa antolatu ditu. Joan den larunbatean, pilota txapelketaren bueltan, egun osoko egitaraua antolatua zuen. Hamalau bikotek emana zuten izena. Bertzetik, abuztuaren 5ean, frontenis txapelketa antolatu du eta uztailaren 2ra arte izena eman daiteke 689 13 50 27ra idatzita. Bikoteko zortzi euro ordaindu beharko da.



ESTHER BURLADA

Opil jatea Burlada ostatuan

Joan den ekainaren 4an, opil jatea egin zuten Burlada ostatu-jatetxean eta hainbat herritar eta bisitari hurbildu ziren opil goxoak jatera. Horrekin batera, Beñat Mitxelena musikariak girotu zuen mahai ingurua eta giro polita sortu zen.



UTZITAKOA

Dani Iparragirre Zegama-Aizkorri

Maiatzaren 29an jokatu zen Zegama-Aizkorri mendi maratoi ezaguna, eta hantxe izan zen Dani Iparragirre. Ezaguna zuen lasterketa, 2018an egin baitzuen lehenbiziko aldiz, eta aurtengo lanarekin ere kontent gelditu zen. 5.22.44ko denboran egin zuen 42 kilometroko lasterketa gogorra.

TTPI-TTAPA SARE SOZIALETAN




facebook
www.facebook.com/ttppi.ttapa

ANTZUZELAI
S.L. 

BERA - T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Jaukena

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



Haur Hezkuntzako ikasleak Irrisarri Landen egunpasa egin zuten. UTZITAKOA

Ikasturte akabailako ateraldiak egingen dituzte eskolan

Ikasleek ekainaren 22an bukatuko dute ikasturtea eta egun horretan ateraldia egingen dute

N. ALZURI

Ikasturtearen bukaera izanik, zenbait ateraldi antolatu dituzte eskolan. Ortziralean, adibidez, hilaren 17an, hiru garren ziklokoak eta DBHkoak bizikletaz Hendaiara joanen dira eta han surf ikastaroa egingen dute. Hondarreko egunean, ekainaren 22an, Lehen

Hezkuntzako eta DBHko ikasleak eta irakasleak Iruñera joanen dira eta Burlatako igerilekuetan ere egonaldia egingen dute. Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasle taldeak, berriz, inguruan ateraldia egingen du.

Eskolako oporrak bukatuta, horietako aunitz udalekuetan ibiliko dira uztailaren 4tik 29ra.

San Juan bezperan suaren inguruan saltoka

Bueltan da san Juan bezperako besta. Ohitura berreskuratuz, aurten ere ekainaren 23an guraso elkarteak sua egiteko asmoa du. Azken orduko aldaketarik ez bada, 20:00 alde-ra afari autogestionatua egingen dute parkean eta ondotik sua piztuko dute.



Sendabelarren ikastaroak segida izan du

Arrakasta haundia izan du udalak antolatutako sendabelarren ikastaroak. Herritarren erantzuna ikusita bigarren talde bat antolatu zuten, eta ez hori bakarrik, aurreikusitakoa baino gehiago luzatu dute. Hasiera batean hiru eguneko saioa egitekoa zuen talde bakoitzak, baina horietako batzuek segitzea erabaki dute eta bertz hiru hitzordu egin dituzte. Ortzegun honetan, ekainaren 16an, izanen dute hondarreko saioa. Laura Gurbindo adituarekin bilduko dira 16:00etatik 20:00etara.



Gazteek Euskal Herriko hainbat txoko bisitatuko dituzte. EUSKARABENTURA

Aurtengo EuskarAbentura Amaiurren, Lesakan eta Zugarramurdin ibiliko da

TTIPI-TTAPA

Pandemiak 2020an eta 2021ean eragindako gorabeherak gaindituta, 2022ko EuskarAbentura espedizioak jatorrizko izaera ibiltaria berreskuratuko du aurten eta uztailaren 1etik 31ra Euskal Herriko 128 gazteek euskararen lurraldea oinez zeharkatuko dute. Mauletik Getxora, 31 etapatan 700 kilometrotik goiti egingen dituzte, horietatik 500 oinez. 35tik gora herri eta hiritik pasatuko dira, eta aurten, Amaiurren, Lesakan eta Zugarramurdin egingen dute geldialdia.

Espediziorik jendetsuena

Orain arteko espediziorik jendetsuena izanen dela iragarri dute. 128 gazte (jzioquitar) bilduko ditu 2022ko EuskarAbenturak: 20 arabar, 37 bizkaitar, 27 gipuzkoar, zazpi lapurtar, Nafarroa Garaiko 28 lagun eta Nafarroa Behereko bat. Denek hautaketa prozesu bat gainditu ondotik lortu dute jzioquitar izateko beka. Espediziokideek hartzen duten izena da jzioquitar; *Jzioqui dugu guc ajutu ez dugu* glosatik hartua.

Espedizioa debalde izanen da eurentzat. Lan bat eta aurkezpen bideo bat igorri dituzte ezarritako epean, eta Eusko Ikaskuntzako eta PuntuEUS Fundazioko ordezkariak arduratu dira lanak baloratzeaz. Abenturazale guztiak 2005ean eta 2006an sortuak dira.

Kamiseta laranja jantziko duten jzioquitarrekin batera, Familia Urdina edo kamiseta urdina eramanen duten 30 heldu ibiliko dira gazteekin: koordinatzaileak, begiraleak, medikuak, erizainak, gidariak, logistika arduradunak, kamera arduradunak eta kazetariak.

Lesakatik Zugarramurdira, Zugarramurditik Amaiurrera

Gazteak uztailaren 17an ailegatuko dira Lesakara, Oiartzunen barna, Arditurriko meazu-loak ezagutu ondotik.

Lesakan geldialdia egin ondotik, biharaumunean Zugarramurdira joanen dira, 20 kilometroko bidea eginez. Han Zugarramurdiko leizea ezagutzeko eta sorginkeriaz aritzeko aukera izanen dute.

Uztailaren 19an eskualdean segituko du espedizioak. Zugarramurditik Amaiurrera joanen dira, 20 kilometroko eginez. Amaiurko gazteluaren hondarrak bisitatu eta Asisko Urmenetaren bisita izanen dute 500. mendeurrenaren harira solastatzeko. Uztailaren 20an Amaiurtik Bidarra aldera joko dute oinez.

UZTAILAREN 17TIK 19RA ESKUALDEAN IBILIKO DIRA JZIOQUITARRAK

A white Volkswagen Beetle with orange racing stripes is parked in a lot. The car is positioned in the foreground, angled slightly towards the left. In the background, several other cars are parked, and there are trees and a building visible. The scene is outdoors on a paved surface.

22 ttipi-ttapa | 808. zk. | 2022-06-16

Doneztebe Futbol Taldearen Eguna ekainaren 18an

Larunbat goizean futbol partidak jokatuko dituzte, arratsaldean mus txapelketa eta arratsean afaria eta gaupasa

TTIPI-TTAPA

Doneztebe Futbol Taldearen Eguna larunbat honetan, ekainaren 18an, ospatuko dute, egitarau zabalarekin.

Larunbat goizean futbolak izanen du leku berezia. 10:00etan txikien partidak jokatuko dituzte (futbol eskola, aurrebenjaminak eta benjaminak). 10:30ean infantil eta kadeteen partidak jokatuko dituzte eta 11:30ean triangularra herriko hiru taldeen artean. 17:00etan mus txapelketa jokatuko dute eta ordu bat lehenagotik izanen da apuntatzeko aukera txosnan, bortz euro ordainduta. 18:30ean merienda eskainiko diete alebin, benjamin, aurrebenjamin eta futbol eskolakoei.

Larunbateko gau giroan murgiltzeko, 20:00etan triki-poteoa eta 21:30ean afaria izanen dute Santa Luzia plazan. Menua 35 euro ordaindu beharko da (magra, pate, fritoak, entsalada mistoa, arraina saltsan, entrekota, kafea eta kopa edo kubata). 01:00etan hasita gaupasa izanen da Gabezin taldearekin.



Jaime Sein, etxeko partida batean.

Jaime Seinen agurra

Kirol arloan, futbol talde nagusiak iaz lortu zuen Maila Autonomikoa galdu du aurrean, eta berriz ere Preferenten ariko da 2022-23 denboraldian. Gainera, ekainaren 4an hondarreko partida jokatu zuen Jaime Sein kapitainak ere. Talde seniorra sortu zenetik aritu da Donezteben, eta taldearen lorpen guztien partaide izan da: kopa, igoerak, zelaiaren inaugurazioa...



Erreka eta Zarauzko eskubaloia taldeak, Niko Mindegiarekin. ERREKA KE

Erreka Elkarteen Eguna bikaina eta inoiz baino hunkigarriagoa izan da

TTIPI-TTAPA

Erreka Kirol Elkartek, udalaren eta Gazte Burrunbaren laguntzaz, denboraldia behar bezala akitzeko, urteko besta nagusia egin zuen ekainaren 4an, Errekaren Egunaren hamalaugarren edizioa.

Bezperatik mugimendua sumatu zen, ttikienak eskubaloian eta puzgarrietan ibiltzeko aukera izan baitzuten. Santa Luzia Plazako mus txapelketan, berriz, 48 bikoterentarte Sunbilla Pattere eta Nieves Biurrarenak irabazi zuten 300 euroko saria, finalean Alberto eta Carlosi irabazita. Hauek 100 euro irabazi zuten.

Larunbat goizean Malerrekan barna 56 kilometroko bizikleta-bira egin zuten txirrindulariek eta kiroldegian eta frontoian eskubaloia, judo eta pilota erakuskaldiak izan ziren. Arratsaldean segida izan zuen

eskubaloiak. Neskek jokatu zuten, Errekako jubenilen eta beterranoen arteko eskubaloia partidak ikusmina piztu zuen eta zer erranik ez, Errekako talde nagusiaren (Ibai Meokiren fitxaketarekin) eta Oho-rezko B mailan ari den Zarautz taldearen artekoa. *Errekarik gabe itsasorik ez* zioen pankartarekin kantxaratu ziren bi taldeak, Nikori eta Garmeni animoak emanaz. Erreka dantza taldeak ere bere emanaldia eskaini zuen eta Meokiren eta Mindegiaren kamisetak zozketatu zituzten, baita urdaiazpikoa ere (Natalia Rekarteri egokitu zitzaion). Herri afaria ere bikaina izan zen. *Gazbo* Mindegia eta *Poti* Rearte omendu zituzten afalondan eta Iñigo Oskozi eman zioten jokalarionenaren saria. Niko Mindegiak errandako hitzak ere hunkigarriak izan ziren.

Construcciones URBALLO, S.L.
hargin lanak orokorrean

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

Luis Gaztelu, 6
31730 IRURITA
T. 610 367 000
610 367 009
c.urballo@hotmail.com

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatueta esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak:
- Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuituak...

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Tresaneko eskailerak eta lorategia erabili zituzten desfilearako. UTZITAKOA

Desfile eta lehiaketa ikusgarriak egin dituzte Iturenen

Iruñeko moda eta diseinu eskola bateko hamasei ikasleren diseinuak erakutsi zituzten 28 modelok Tresaneko lorategian

ARKAITZ MINDEGIA ITUREN

Yolanda Gaviria eta Naiara Olague moda eskolaren eskutik moda desfile bikaina izan zen Tresaneko lorategian eta terrazan. Bi irakasle hauen ikasleen diseinuak eta jantziak ikusteko aukera izan zen, modeloen eskutik. Guztiz ikusgarria izan zen eta apartamen-

tuetatik lorategiko ibilbidean desfile polita osatu zuten.

Aurtizko joaldunak

Bertze urte batez Aurtizko joaldunen joare soinuak Beasainen aditu ziren. Goizeko lehen orduetan herritarrek iratzarri eta gaupaseroak alaitu zituzten.

Eskolako ikasleak Lesakan eta Elizondon

Hirugarren hiruhilekoaren azken txanpan dabilta Pulunpa eskolako irakasle eta ikasleak. Burubelarri dabilta azken ikasgaietan lantxoak, azterketak eta gaiak barnertzen, baina maiatzaren 25 eta 26an kanpaldia izan zuten. Alde batetik, eskolako ikasle guztiak, Haur Hezkuntzako 3-4 urtekoak izan ezik, Lesakara joan ziren bi egun pasatzera. Herrian jolastu, aterpean jan, diskofesta eta lo egiteaz aparte, igerilekuan bertako monitorean jokoetan aritu bidenabarrean, ederki pasatu zuten. Bertetik, eskolako ttikienek eguneko ateraldia izan zuten. Hauen kasuan, Elizondora joan ziren, hauek ere bertako igerilekuan ibili ziren plisti-plasta, baina lehenagotik Elizondoko Eskola publikoan dagoen oilategia eta baratzea bisitatu zuten. Egun polit hauek pasatu ondok indartsuago itzuli dira azken txanparako. Aurtengoan, gainera, azken eguna ekainaren 23an izanen dute, eskolaren inaugurazio eguna izanen da eta egun guziko egitaraua antolatzen ari dira eskola, udala eta guraso elkarteak.

32 urtez Saldiasko alkate izandako Pedro Urrutia hil da

Ekainaren 3an hil zen Pedro Urrutia Grajirena *Koskorro*, 94 urterekin. Aski ezaguna zen Nafarroako mendialde osoan, baserriz baseri eta herriz herrir arropa saltzen eta ardi-larruekin tratuan ibili zelako eta, gainera, 32 urtez Saldiasko alkate ere izan zelako. Zubietan 2012n lehen aldiz egin zen Malerrekako Egunaren ospakizunak hasteko, omenaldia eskaini zioten 32 urtez Saldiasko alkate izan zen Pedro Urrutiari. Omenaldi modura, aureskua dantzatu zioten eta zapi zuria eskaini.



Pedro Urrutia, ardi-larruekin.

Lau neskak eta mutiko batek lehen jaunartzea

Iturengo bortz neska-mutilek beraien lehen jaunartzea egin zuten ekainaren 5ean. Malen, Alaitz, Naroa, Olaia eta Iñakik egun bikaina pasatu zuten eta beraien familiekin bazkaldu zuten.



Leurtzan lekua gordetzeko online sistema martxan

Urroz eta Beintza-Labaienek Leurtzako aparkalekuan lekua erreserbatzeko online sistema paratu dute martxan, aparkalekuak dituen mugak eragin ditzakeen eragozpenak ekiditeko. Horri esker, etxetik atera aurretik erreserba egin eta lekua egonen dela ziurtatu dezake erabiltzaileak. Horretarako QR kode bat eta webgunerako sarbidea izanen dira eskuragarri. Etorkizunean funtzionamendu hori izatea da helburua, baina momentuz eskuz ordaintzeko aukera ere izanen da.



Musikarekin dantzatzeko aukera izanen da igandean. ARTXIBOKOA

Bestaberriko ospakizuna igandean

Bi urteko geldialdiaren ondotik berriz ere elizkizunak, gazta lehiaketa eta musika izanen dira

FERMINTXO ETXEKOLONEA

Bestaberri eguna ospatuko igande honetan, ekainaren 19an. Azken bi urteotan ospatzeko aukerarik izan gabe egon ondotik, berriz ere erlijio ospakizuna bestelakoekin lotu nahi dituzte.

Hau idazterakoan, oraindik egitarau osoa eta ordutegia erabat zehaztu gabe badaude ere, arratsaldean meza izanen da eta meza ondotik musika izanen da plazan eta gazta lehiaketaren zazpigarren edizioa ere egin nahi dute. Gazta onenak saritzeaz gain, lehiaketara aurkeztutako gazta



Bestaberriko ospakizuna 2019an.

horiekin merienda ere egingen dute.

Horretaz gain, seguru herri-tarrek plaza ingurua eta kaleak txukundu eta dotore-dotore apainduko dituztela.

Fiestetako kamisetarako logo lehiaketa antolatu dute gazteek

Fiestetako kamiseta bat egiteko logo lehiaketa antolatu dute Zubietako gazteek, herri-tarrei zuzendua. Diseinuak entregatzeko azken eguna ekainaren 20a izanen da eta irabazlea bozketa herrikoia- ren bidez aukeratu da. Diseinuan 'Zubietako fiestak' esaldia

agertu beharko da, marrazkiak ezin izanen du kolorerik eduki eta lanak udaletxean entregatu beharko dira gutun azal itxi batean. Irabazlearentzat saria 100 euro eta kamiseta izanen da. Gainera, parte-hartzaile guztiei edalontzi berre-rabilgarri bana oparituko zaie.



UTZITAKOA

Zaborra hilerriko paretan pilatua

Zaborra behar ez den lekuan uzteko ohitura ez da oraingoa, baina hainbeste kanpaina eta hainbeste toki berezi eta egoki prestatu ondotik, zoritxarrez, oraindik ere badira horretan aritzen direnak. Kanposantu inguruan utzitako poltsa eta hondakin horiek horren lekuko.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Omendutakoak zenbait herritar eta alkatearekin. UTZITAKOA



Jaime Urrozek hartu zuen lekukoa Natalia Rekarteren eskutik. UTZITAKOA

Donamariako adineko jendea omendu dute Malerrekako Egunean

Bi urte esperatu behar izan bazuten ere, maiatzaren 28ko ospakizuna borobila izan zen eta jende aunitz bildu zen

TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Bi urteren ondotik, berriz ere Malerrekako Eguna antolatu du Malerrekako Mankomunitateak eta maiatzaren 28koa egun handia izan zuten Donamarian.

Donamariako plazan harre-
ra egin zieten Malerrekako
herrietako udal ordezkari-
ei. Donamariako Udalak 80 urte
baino gehiago dituzten 25 he-
rritarrei omenaldia egin zien.
Denek ez zuten agertzerik izan,
baina bertan izan ziren Patxi-
ku Juanena Elizondo (Urrozen
sortua eta Artzeko Martinde-
nera ezkondua), Beñardo Al-

tzugarai Gragirena (Gazteluko
Bidauztekoa), Patxiku Oteiza
Urroz (Artzeko Migelenekoa),
Roxita Lopez Galilea (berez
Saldiaskoa, Azkarragako Mi-
xeltenera ezkondua), Juanita
Mindegia Muñoz (Kapataze-
nean sortu eta hazia, Leitzara
ezkondua eta Uxarrera buel-
tatu zena gurasoak zaintzera),
Xantus Lizasoain Perez (Uxa-
rrea); Josetxo Telletxea Otxan-
dorena (Artzeko Antxonekoa),
Marijuana Telletxea Otxando-
rena (Artzeko sortzez, Igurin-
go Porotxenera ezkondua), M^a
Carmen Amigorena Goñi (Igu-
ringoa sortzez, Gazteluko Gax-

telenera ezkondua) eta Fabio-
la Maria Lefevre (Alemaniatik,
Iruñean barna, Donamariako
Pagola baserrira etorria). Gai-
nera, Donamariako komentu-
ko hiru moja ere omenduen
artean zeuden; Engraxi Men-
diola Salegi urretxuarra, Alba-
ceten sortutako Herminia
Serrano Rodriguez (1960an
komentura etorria), Zamoran
sortutako Jesusa Fernandez
Guillon eta M^a del Carmen
Coronado Aguilar, Malagan
sortua, Madrilen hazia eta Do-
namariako alaba kuttuna,
mandatuak egiten dituelako
bera baita ezagunena.

Museko txapeldun Saldiaskoak
Goizean, Malerrekako gazteen
mendi martxa abiatu zen Do-
neztebetik. Musikariak, arti-
sauak, talogileak, dantzariak
eta buruhandiak ere ibili ziren.
Aizkora apustua ere egin zuten
eta gero, paella jate jendetsua
frontoian. Arratsaldean Haus-
polariek musika taldeak jo
zuen plazan, umeendako jo-

koak eta tailerrak eta merien-
da izan ziren eta mus txapel-
ketako finalak jokatu zituzten.
Saldiasko Aritz Juanenea eta
Iñigo Zubeldia suertatu ziren
txapeldun, finalean Urrozko
Xabier Matxiñena eta Xabier
Babazeri irabazita. Aurtitz,
Ituren eta Zubietako joaldunek
ere joareak astindu zituzten.
Zozketak egin –bi sari Dona-
mariar gelditu ziren eta hiru-
garrena Legasan– eta mus
txapelketako sariak banatu
ondotik, Natalia Rearte Do-
namariako alkateak Jaime
Urroz Oizko alkateari datorren
urteko antolaketaarako lekukoa
pasatu zion. Ondotik afaria
izan zuten Herriko Ostatuan
eta Gabezin taldearekin mu-
sika.

**2023KO
MALERREKAKO
EGUNA OIZEK
ANTOLATUKO DU**

Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | **HORMANN** banatzaile ofiziala



TOLDOAK - ESTOREAK | Etxea-merkataritza-ostalaritza



Eguzkiaz
babestu
toldo batekin





Suziriak bota ondotik suaren gainean saltoka ibiltzeko aukera izanen da.



Festetako larunbatean haurrek jokoak izanen dituzte.

Bi urteren ondotik San Juan festak ospatzeko prest

Ekainaren 23tik 26ra hainbat ekitaldi antolatu dituzte eta larunbateko bazkarian Julio Soto eta Iker Zubeldia ariko dira

TTIPI-TTAPA

Bi urte eta gero, berriz ere San Juan festak ospatuko dituzte, egitarau zabalarekin.

Ekainak 23, osteguna

BEZPERA

20:30ean beste hasiera emateko suziria. Ohiko zopak. San Juan suak.

Ekainak 24, ostirala

SAN JUAN EGUNA

11:30ean meza txistulariekin. Ondotik hamaiketako. **17:00etan** mus txapelketa (kopak). **Arratsaldez eta gauez** musika Modestorekin.

Ekainak 25, larunbata

14:00etan herri bazkaria Aina Otxandorena trikitilaria-ekin eta Julio Soto eta Iker Zubeldia bertsolariekin animatua. **16:30ean** haur jokoak. **Arratsaldez eta gauez** musika Hauspolariet taldearekin.

Ekainak 26, igandea

12:00etan aizkolarien erakustaldia: Zigako Joxean Etxeberria eta Leitzako Jon Rekondo, aurrez aurre. **19:00etan** Tajudos del Norte mariatxiak. **21:00etan** tortilla txapelketa. **23:00etan** festei amaiera emateko su artifizialak.



Gazteak herri kirolean duela zenbait urtetako festetan.



Tortilla txapelketan prestatutakoak dastatzu akituko dituzte aurten ere festak.

tantada
iturgintza - fontanería

Tel.: 680 255 718 IMANOL ECHEVERRÍA

ERAKUSKETA ELBARREN 51, LEITZA

Aire egokitua • Iturgintza orokorra
Aerotermin • Eguzki plākak • Lurreko suak
Biomasa • Egurrezko galdarak
Peletezko galdarak eta estufak
Zoru bero-emaile • Gremioen koordinazioa

KONPROMISO GABEKO AURREKONTUAK

SALDIAS • tantadaiturgintza@gmail.com

Guillermo LARRAÑAGA dokorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / UINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioak
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekoiterbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507



Doneztebeko irabazleak eta bigarren eta hirugarren sailkatuak sariak eskuetan dituztela. UTZITAKOA

Mus txapelketak eta herri bazkariak egin dituzte bazkideek

Pixkanaka ohiturak berreskuratzen ari da Arkupeak eta herri bazkariak eta mus txapelketak egin dituzte berriki

TTIPI-TTAPA

Urteroko tradizio eta ohiturak berreskuratzen segitzen du elkarteak, eta azken hilabete eta egunetan egiten ari dira aurtengo mus txapelketa eta bazkideen herriz herriko bazkariak.

Etxalarren egin zuten lehenengoa, apirilaren 24an. Ira-

bazleak Jose Joaquin Zelaia eta Santiago Elizagoien izan ziren. Bigarrenak Jesus Arribillaga eta Domingo Aranburu eta hirugarrenak Jose M^a Olagarai eta Jose M^a Maia.

Baztangoizan—Azpilkueta, Erratzu, Arizkun, Zugarramurdi eta Urdazubi—maiatzaren 6an egin zuten mus

txapelketa. Irabazleak M^a Pilar Ariztegi eta Juan Marisko izan ziren eta bigarrenak Matias Arriada eta Nicolas Alkasena.

Ezkurran, Barranka ostatuan herri bazkari goxoa egin zuten maiatzaren 15ean, baina, mus txapelketarik ez zen izan. Maiatzaren 17an Elizondo eta Lekarozko bazkideek mus txapelketa jokatu zuten. Irabazleak Salvador Gabriel Sobrino eta Pedro Maximo Obregozo izan ziren eta bigarrenak Juan Larre eta Tomas Torres.

Igantzikoe maiatzaren 20an bazkaria egin zuten Lesakakoekin batera. Mus txapelketa aurrerago egitea erabaki zuten, eta horrekin batera,

Igantzin partxis txapelketa ere egingen dute.

Saldiastarrek ere egun be-
rean egin zuten herri bazka-
ria eta mus txapelketa. Ira-
bazleak Jose Ramon Etxeber-
ria eta Jacinto Dominguez
izan ziren eta txapeldunordeak
M^a Santos Berasain eta Julian
Erasun.

Bertizarana, Oronoz, Al-
mandoz, Ziga eta Berroetakoe-
k mus txapelketa ere maiatza-
ren 20an jokatu zuten. Ira-
bazleak Pedro Larretxea eta
Esteban Sarratea eta bigarre-
nak Joaquina M^a Bengoetxea
eta Jose Javier Bengoetxea
suertatu ziren. Herri bazka-
ririk ez zuten egin.

Donamaria, Gaztelu, Oiz,
eta Doneztebekoek mus txa-
pelketa jokatu zuten maia-
tzaren 27an. Doneztebeko
irabazleak Jose Roman Ma-
txiñena eta Jose Elizalde izan
ziren. Bigarrenak, aldiz, San-
tos Lizasoain eta Victor Or-
begozo. Urroren ere elkarte-
ko mus txapelketa egin zuten
eta Jesus Matxiñena eta Mar-
tin Lazkano izan ziren irabaz-
leak eta Juan Iribarren eta
Marcos Juanena txapeldu-
nordeak. Bazkaria, ber-
riz, ekinaren 11n egin zuten
Donamariako Ostatuan.



ARKUPEAK

Maiatzeko saria Beintza-Labaienera

Askok eta askok asmatu duzue Leitzako pilotalekuaren izena Amazabal dela. Zozketa eginda, Beintza-Labaiengo Pakita Telletxea Erasun izan da irabazlea. Ekaineko galdera: **Baztango zein margolari famatu zendu zen 2020ko abuztuan?** Erantzunak: 618 56 78 37.

Kaleratu dute elkarteko buletinaren 26. alea

Arkupeak elkarteak kaleratu du aurtengo bigarren buletina, bere ibilbidea hasi zuenetik 26. alea. Uztailetik abendura bitarteko ekintzak jasotzen ditu buletinaren ale berriak.

Buletina zabaltzearekin bat, oroitu dagoeneko ireki du-tela bigarren sei hilabete-
ko ekintza eta bidaietan apun-
tatzeko epea. Bidaia horietan
lehenengoa irailean Portu-
galera egingen dutena izanen
da, eta bidaia horretako izen
ematea uztailaren 4an eta
5ean egin beharko da.

Pablo Irastortza

Lagunok, agur txiki
bat Paulo Irastortzak
bihotz sakonetik.
Nahiz errezo
ankerrak lehendik
izan, maiatz erdi
aldera «ep, aski!» esan
zuen nire garunak.
Lagunok, saiatuko
naiz beti saiatu naizen
bezala, soka tira
lehiaketetan bezala,
kolore berdea eta
gorriko soka zatiak
nire aldera ekartzen.
Eskerrak denei eta
prest tiraldirako.

Arizkungo bestak 2022

Egitaraua

Ekainak 22, asteazkena

17:30etan txupinazoa, dianak eta ezklajotzea. 18:00etan bandera dantza eta txopo goratzea. 19:00etan gazteen herri kirol desafioa. 21:30ean baztan zopak.



Ekainak 23, ortzeguna

10:00etan dianak. 12:00etan tukuketa erraldoia. 17:00etan herritarren pala desafioa. 19:00etan dantzaldia Hauspolarietara. 20:30ean Ezpata dantza. Ilunabarrean San Juan suak eta ezklajotzea. Ondotik mamurru erretzea eta dantzak. 23:00etan dantzaldia Hauspolarietara.



Ekainak 24, ortziralea

06:00etan dianak eta kalejira. 11:00etan meza nagusia. 12:00etan mutildantzak, ondotik dantza ikuskizuna. 13:30ean herriko luntxa. 14:00etan gazte bazkaria. 17:00etan Arizkun Rock: Drunken Barrels. 21:00etan mutildantzak. 23:00etan Arizkun Rock: The Lio, Skakeitan eta Tirri&Tery.

Ekainak 25, larunbata

09:00etan Txaruta elkartearen pilota partidak. 10:00etan dianak. 10:30ean Enrique's Party egun guzian. 13:30ean haurren bazkaria. 14:00etan jubilatuen bazkaria. 17:00etan bertso-poteoa ostatzuz ostatu. 18:00etan txokolatada. 18:30ean Mendauroko ikasleen trikitixa eta pandereta emanaldia. 20:00etan dantzaldia Trikidantzekin. 21:00etan gaita eta mutildantzak. 00:30ean gaupasa Trikidantzekin, ondotik DJ Xinto.

Ekainak 26, igandea

10:00etan dianak. 11:30ean mus-ineztura. 14:00etan zikiro jatea. 18:30ean Los Gavilanes mariatxiak. 20:00etan merienda-afaria. 21:00etan mutildantzak. 00:00etan txopo botatzea eta Gaixoa Ni. Ondotik besta soziedadean.



ONLINE DENDA
elenaaurrutia.com

- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Pedikura, manikura, makillajea...
- Depilazioa argizariarekin eta diodo-laserrarekin
- R200 irrati-maiztasuna, presoterapia, elektroestimulazioa eta LPG



Tximindo, 13 - Arizkun - T. 660 73 17 72
info@elenaaurrutia.com

FORJA ZAPATA
Industrias ANCAR s.l.



**BURDINA FORJATUAN
MOTA GUZTIETAKO LANAK.**

Arizkun-Baztan - 948 45 30 55
industriasancar@yahoo.es

«Gazte zein zaharrak giro ederrean biltzen dituen egunak dira herriko bestak»

Kaiet Iriarte, Migeltxo Sobrino, Asier Ariztia eta Oier Neol
Arizkuno danbolin nagusiak



Lehen, alkateak bi *damunausi* (danbolin nagusi) izendatu ohi zituen herriko bestak antolatzeko. Azken urteetan, aldiz, «gazte bilera bat antolatzen dugu urte akabailan, eta boluntariorik ez badago, bi kargudun hautatzen ditugu. Gero, kargudun bakoitzak bere *damunausi-laguna* aukeratzen du». Guztira lau gaztek hartzen dute bestak antolatzeko ardura, «aurten 21 eta 24 urte bitartekoak gara».

Normalean, «inauteriak akitu eta ahal bezain fite» hasten dituzte prestaketak, eta aurten, «urtarrilerako taldea lotua bazegoen ere, lan gehiena apiriletik goiti egin dugu, ekaina hurbildu bezala». Lan handia da; «gauza guziak lauron artean

solastatzen ditugu eta ordutegiak direla medio, denok batera elkartzea zaila izaten da. Hala ere, ardurak modu paretsuan banatzen ditugu; deliak, ordainketak, erosketak, kontratazioak...».

Besta bereziak

Aurtengo bestak bereziak izanen dira, «bi urteko geldialdiaren ondotik, bistakoa da jendeak bestetarako gogoia duela. Irurita-ko bestetan hala ikusi genuen eta herrian ere arras gogotsu gaude».

«Herriarrok elkarrekin egiten ditugun otorduen falta» sumatu dute gehien azken urteetan, «Baztan zopak eta herriko zikero-jatea behar bezala ospatu ez izana.

ONGI PASA BESTAKI

BURNE
ZURGINDEGIA
ZURGIN LANAK

TEILATUAK

Haritzekoak, gaztainerkoak eta pinuzkoak

PASSIVE HOUSE LEIHO HOMOLOGATUAK

Egurrezkoak eta egur-aluminiozkoak

ESKAILERAK 3D AJURKEZPENAREKIN

Normalak eta konpentsatuak

DISEINUZKO ALTZARIAK 3D AJURKEZPENAREKIN

Lakatuak eta bernizatuak

Ordoki Industrialdea | ARIZKUN

660 62 09 90

iturgainea@hotmail.com

Dutarimuno
Ekologikoki ekoiztutako arroltzeak
Dutaria baseria - ARIZKUN - 616 756 359

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
Tel. 948 453310 • baztandarrascoop@gmail.com
Ordoki Auzoa - ARIZKUN

LTR
Ibilgailuen mantentze-lanak,
zirkuitu elektronikeen diagnostika
eta konponketak
Tel. 948 105 327 | 628 094 619
Ordoki Ind. 681 pabiloia, N-121-B | 31713 Arizkun
administracion@ltrbaztan.com

OROIGARRIAK
Pertsonalizatuak
Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
Hainbat neurri eta kopuru
Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
Ereduak aukeran
Gutun-azalekin entregatzen dira

KULTURKARI
Dizaina grafikoa | Publikatzailea
Info +:
Tel. 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

Gureta, herriko bestak egunerokotasune-ko betebeharreri deskantsua emateko aitzakia onena dira, gazte zein zaharrek giro ederrean biltzen dituztenak».

Egitaraua denen gustura

«Urteroko eskema iduritsuari segituz» antolatu dute aurtengo programa, «adin guzietako jendeari gustua egiten saiatuz. Gauak gazteei bideratuak badaude ere, egunez adin gehiagoko jendearendako programazioa betetzen saiatu gara, denak kontent egoteko». Horren adibide dira «mariatxien emanaldia eta jubila-tuen bazkaria, bertzeak bertze». Gainera, aurtur- bigarren aldiz antolatu-ko dute gazteen arteko herri kirol erron-ka: «desafio honek adin guzietako jendea hurbiltzen du plazara».

Arizkun Rock jaialdia da azken urteetan arrakasta handia hartu duen ekitaldia; «egun horretan jende gehiago izaten dela sumatu dugu. Badira edizio andana bat rock festibala antolatzen dela eta espe-rientzia hartuz joan dira antolatzaileak, beraz, hainbertze jende bilduko duen

ekitaldi hau antolatzeke gaitasuna dutela uste dugu».

Hala ere, «suak dira zalantzarik gabe he-rriko bestetako ikur nagusia». Badira urte batzuk suen ondotik ez dela antzerkirik egiten, «baina aurtur suak saltatzeaz akit-zean plazan mamurru bat erretzea era- baki dugu». Ondotik, urtero bezala, gaitak eta mutildantzak izanen dira plazan de- nek dantzatzeko.

«Suak dira zalantzarik gabe bestetako ikur nagusia»

Besta eta lana bateratzen

Kargudunek «ardura au- nitz» dituzte bestetan, «baina lan haundienak aitzinetik egiten direnez,

besta egunetan ez da disfrutatzeko pro-blemari, nahiz eta beti egon behar garen edozein ezustetarako prest. Besta ardura- z egitea eta ongi pasatzea ez da inongo ara- zoa guretako!».

Akitzeko, «irakurle guzietatik Arizkuno San Juan bestetara gonbidapena zabaldu nahi diegu, eta argi utzi nahi dugu herrian errespetuzko eta inolako erasorik gabeko bestak nahi ditugula».



ordoki erretegia asador

Ordoki industrialdea | ARIZKUN
T. 948 45 31 65 - 608 53 88 61
asador.ordoki@gmail.com

www.asadorordoki.es

ONGI PASA BESTAK

Erretegia | Taberna | Likoreak
Eramateko janaria



ongi pasa bestak!

TASKA

DOLAETXEA

T. 948 453 002 | ARIZKUN

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK | ESKULTURAK

M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com

Erratzuko bestak 2022

Egitaraua

Ekainak 28, asteartea

11:30etik 14:00etara haurren joko eta puzgarriak. **14:00etan** haurren bazkaria Kastonean. **16:00etatik 18:00etara** haurren joko eta puzgarriak. **19:00etan** txupinazoa eta ezkila-jotzea. **21:00etan** zopak plazan (txartelak herriko ostatueta). Ondotik, dantzaldia Fidel akordeoiariarekin.

Ekainak 29, asteazkena

10:00etan argi soinuak. **11:00etan** meza nagusia. **12:15ean** mutildantzak plazan. Ondotik, luntx herrikoia. **16:00etan** mus zimzte eta mahai-jokoak plazan. **19:30ean** dantzaldia Txamukos mariabiekin karpan. **21:00etan** mutildantzak, gaita eta larrain-dantza. **00:00etan** DJ Txillardegi karpan.

Ekainak 30, ortzeguna

10:00etan argi soinuak. **12:00etan** izpe-giko XII+I. igoera, moztarratuak. **14:00etan** bazkaria izpegin. **16:30ean** haurren ginkana heritik barna. **17:30ean** Elektrotxorongo. **19:00etan** haurren merendu-afaria. **21:00etan** mutildantzak, gaita eta larrain-dantza. **23:30ean** dantzaldia Bizpahiru Pelau taldearekin.

Uztailak 1, ortziralea

11:00etan kalejira trikitilari eta panderojole eta buruhaundiekin. Ondotik, parte-hartzaileendako aperitiboa Gorostin. **13:00etan** oliba hezurren jaurtiketa txapelketa Gorostin. **14:30ean** bazkari herrikoia Kanpinean (txartelak herriko ostatueta). **16:30ean** herriko pilotari gaztekoen partidak. **19:00etan** pilota-partidak: San Fermin Txapelketako final erdia eta Bengoetxea-Azanza Mendizabal-Alduntzinen kontra. **21:00etan** mutildantzak, gaita eta larrain-dantza. **23:30ean** dantzaldia Iparlan Frantxiskorekin eta kontzertuak plazan: Harresi, Habemus Papam eta Patxuko Nice.

Uztailak 2, larunbata

11:00etan pilota partidak Gorostapolon. **12:00etan** poteoa herriko gaitariekin. **14:00etan** ziklo jatea Hauspolariet alaiturik (txartelak herriko ostatueta). **19:30ean** kontzertua Zubi Puntan: Piztiak. **21:00etan** mutildantzak, gaita eta larrain-dantza. **23:30ean** dantzaldia plazan Hauspolarietkin. **03:00etan** DJ Tukola.



Kafetegia

GOROSTI
Okindegia

T. 948 453 491

Ongi pasa
bestak!

Bestetan egunero irekia
06:00etatik 00:00etara

Bazkariak eta afariak



ALBANTZENA
Santi Dendaria OSTATUA-DENDA

Ongi pasa herriko bestak!

Albantzenea etxea, ERRATZU - Tel: 948 453 112

SERRERIA ALEMAN S.L



Teitaturako estruktura
Tarimak - KVH
Laminatuak - Egun trinkoa
Tratamenduak

Frantziako errep. 2-A ERRATZU
T. 948 453 173 | serreriaaleman@gmail.com



KASTONEA

LANDETxea
OSTATU-JATETxea
Ongi pasa bestak!

31714 ERRATZU
948.453.065 - 656.933.760
www.kastonea.com - info@kastonea.com

ZUBI PUNTA
ERRATZU USTARRA

**ALTXUKO
DENDA**
JANARI-DENDA

658 81 73 14 | 948 45 34 71 ERRATZU

Doneztebeko bestak 2022



Egitaraia

Ekainak 28, asteartea

18:30ean Bezperak elizan Mendi abesbatzaren eskutik. **20:00etan** txupinazoa. Ondotik kalejira herriko txistulari eta gaiteroekin eta Elutxa txarangarekin. Zopak herriko elkarte eta ostatueta. **00:30ean** dantzaldia Gabenara taldearekin.

Ekainak 29, asteazkena

09:00etan dianak gaitero eta txarangarekin. **11:00etan** meza nagusia, 'Agur Doneztebe' eta Trapatan eta bandera dantza. Elutxa txaranga eta gaiteroak herritik bama. **12:00etan** buruhandiak. **13:30ean** luntxa udaletxe azpian. **17:00etatik 19:00etara** haurrentzako tailerra eta ihes gela eskolako patioan. **17:45ean** Ezkurra frontoian Erreka elkarteko pilotari gazteak eta pilota partida: Bengoetxea VI- Erasun Elizalde-Urruzolaren kontra. Sarrerak 5 eurotan (Anela elkartearentzako). Ondotik txistorrada Santa Luzia plazan. **20:00etan** dantzaldia Gabezin taldearekin. **22:15ean** Erreka dantza taldearen ikuskizuna Bear Zanan. **00:30ean** dantzaldia Gabezin taldearekin.

Ekainak 30, ortzeguna

09:00etan dianak txarangarekin. **11:30ean** buruhandiak. **12:00etan** bertso saioa: Sustrai Colina, Saioa Alkaiza eta Joanes Illarregi, Maialen Belarra gai-jartzailearekin. **14:00etan** Gazte Burrunbaren bazkaria Santa Luzia plazan. **16:30ean** puzgarriak eskolako patioan. **17:00etan** Elektrokula elektrotxaranga. **20:00etan** Mexikortxo Santa Luzia plazan. **22:15ean** zezensuzkoa Bear Zanan. **00:00etan** DJ KOOL.



ONGI PASA DONEZTEBEKO BESTETAN!



Eduardo Gyarzabal
m. 630 511 488

Inzakardi, 10
DONEZTEBE/SANTESTEBAN



HERRITAR ETA BISITARI GUZTIOI,
ERRESPETUZ BESTA EGIN!



DONEZTEBEKO
UDALA



Mendiburu aziendak • tratantea

Ongi pasa
herriko bestak!



608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE



ONGI PASA
BESTAK!!
MINI ESKABAZIO
eta GARRAIO LANAK
enpresa eta
partikularrentzat

T 616 513 491

TIF 948 451 389

Ezpelura, 1 • DONEZTEBE
pitieskabazioak@hotmail.com

Ongi pasa bestak!



GARMENDITX

Bizikleten salmenta eta konponketa

Rosa Seminario, 13 • T. 948 45 15 71
garmenditx@servedena.com

ordua
eskatu

MAITE ileapaindegia

Solarium-a

GIZON ETA EMAKUMEENDAKO

Mourges Etorbidea, 4

948 451 780 • DONEZTEBE



**GARRAIOAK, GARABIAK
ETA ZERBITZUAK**

J.V. Jubera, S.L. eraikuntzak

ONGI PASA
BESTAK **DONEZTEBE**

Leitza bidea, 72 • DONEZTEBE • T. 948 451 793
T. 659 702 694 • jvjubera@gmail.com

Olatz
Zapatu-ahola

ONGI PASA BESTAK!!

T. 948 450 339 • Elizagibela, 5 • beheka • DONEZTEBE



Goldea
tallerre, s.l.

ONGI PASA
BESTAK!!

tel./fax 948 450 060
e-mail: goldetallerre@gmail.com
Pol. Industrial Auzan, 1
3700 Doneztebe (Nafarroa)



Uztailak 1, ortziralea

09:00etan dianak aurrekin. 10:00etan Lore eskaintza San Pedrori elizako plazan. 10:00etan herri musa Gazte Burunbaren eskutik. 11:00etan Udal Tikiaren ongi etorria eta txupinazoa. 11:30ean kalejira eta Dantzari Tikiaren ikuskizuna Bear Zanana. Ondotik luntxa dantzariarentzako. 13:00etan buruhaundiak. 14:00etan Udal Tikiaren aukeratzen parte hartu duten haurren bazkaria. Burrunba luntxa Santa Luzia plazan. Ondotik bingo musikatua.

16:00etan haur jolasak Bear Zanana, Udal Tikiaren emanen dio hasiera. Ondotik Udal Tikiaren diploma banaketa eta botere itzulera. 17:00etatik 19:00etara Ginkana Intzakardin. 17:00etan Poteo Alala, aurorak eta kuadrillak Elutxa txarangarekin. 19:30ean DJ PORRU haur berbera Santa Luzia plazan. 21:00etan Dantza Plaza gaiteroekin. 22:15ean Zezensuzkoa Bear Zanana. 00:00etan Mugi Panderoa.



Uztailak 2, larunbata

09:00etan dianak gaiteroekin. 10:00etan Argitsu feria Parrokia karrikan. 10:00etan discgolf txapelketa Intzakardin (egunean bertan apuntatzeko). 11:00etan herri gosaria Intzakardin. Doneztebeko erraldioen konpartsa herriko barna (eguraldi ona eginez gero). 14:00etan herri bazkaria Intzakardin, Kaldereteak. Bazkarian jokoak. Ondotik erreka igoera. 20:00etan Los Cahuetes mariabakia Santa Luzia plazan. 21:30ean Zezensuzkoa txarangarekin Bear Zanana. Ondoren haurren 'Gaixoa ni' Bear Zanana. 23:00etan kontzertuak: Kota Zero, Bastardix eta Tirri&Tery.



Sampi Aragón S.L.

Mekanika • Elektrizitatea • Txapa • Pintura

T. 948 450 354 | DONEZTEBE | sampiaragon@sampiaragon.com



APEZTEGUIA

margoak eta barnizak hidrogarbigailuak
silikonak **LORATEGIA** lanerako jantziak
esku erreminata abeltzaintza **BURDINDEGIA**
baratzera konpresoreak ERREMINATA ELEKTRIKOA

Apezteguia Berria
ferretería - burdindegia

Leitzako Errepidea - Doneztebe
T: 948 450 994 - Fax: 948 450 882

www.apezteguiaberria.com

*besta zoriontsuak
ona dirikizuegu!*



apezteguiaelizalde
arquitectura y eficiencia energética
arkitektura eta eraginkortasun energetikoa



T. 626 261 990 | laura@apezteguiaelizalde.com | Inato Irazoki Etorbidea 2, DONEZTEBE
www.apezteguiaelizalde.com

ONGI PASA
HERRIKO BESTAKII



Juanotena Zurgina
Juantxo Juanotena

639 855 120 | juanotenzurgina@gmail.com | Doneztebe

ONGI PASA
BESTAK



talleres **EDERKI** tailerra

 Leitza errepidea 57
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 798 Fax 948 451 623
talleresederki@soc.redcitroen.com

Latigilo hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

ONGI PASA
BESTAKI

Clinica Dental
IRURITA RUBIO
ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

Rx. Panoramikoa • Periodontzia • Odontopediatria
Kirurgia • Endodontzia • Protesiak • Hartz-zuritzea
PADI (Hauren hartzak zaintzeko programa)

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19
948 450 267

LEITZA
Manuel Lasarte, 7
948 610 713

ELIZAGA MUGIKA SL
conselmu
CONSTRUCCIONES

ongi pasa bestak!



Etxebizitzaren eraikuntzak
Teilatu berriztatzeak
Mota guztietako erreformak

T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
www.construccioneselizagamugika.es

ONGI PASA BESTAKI



Miguelena

**SUKALDEAK
KOMUNAK**

Etxetresnak | Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

T. 948 450 925 | M. 677 525 324
Amezti zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE



«Jendea gogotsu dago normaltasunera bueltatzeko eta bestak ospatzeko»

Xanti Uterga Labiano
Doneztebeko zinegotzia

Doneztebeko alkate izana da Xanti Uterga (Doneztebe, 1984) sei urtez eta herriarentzako lanean segitzen du gaur egun zinegotzi moduan. Herriko besten antolakuntzan parte hartu du, eta mundu guztia gonbidatu nahi izan du «Doneztebeko bestetan ongi pasatzera».

Bestak «beti gogotsu» hartzen direla dio Utergak, «gainera, bi urte txar eta gero eskertzen dira deskonektatzeko eta momentu txarrak ahazteko egun hauek». Herriarren artean ere bestetarako gogo nabaritzen du; «jendea gogotsu dago lehengo normaltasun hartara bueltatzeko eta bestak lehen bezala ospatu ahal izateko». Azken finean, «gehixeago edo gutxiago baina denak gara bestazaleak».

Herriko bestak «lagunartean eta familiarrekin ongi pasatzeko eta herriaz gozatze-ko egunak» dira berarentzako, eta bezpera du egunik gustukoena; «hor lehertzen baita dena».

Normalean urtarilean hasten dira antolaketa lanetan, «taldeak, txaranga etab, lotzen». Aurten, ordea, «beranduego hasi gara eta arazoak izan ditugu taldeekin gehienbat». Besta egunetan ere «lan pixka bat egin behar da, baina saiatzen gara zinegotzien artean ardura banatzeko». Hala ere, herriko gazteen laguntza dute; «antolakuntzan nahiko inplikatzeko dira, bileretan parte hartzen dute eta haien iritzia kontuan hartzen dugu».

Erronkarik handiena «jendearen parte hartzea handiagoa izatea» dela dio Utergak, «gero eta herrikoia goak, gero eta politagoak dira bestak».



Egitaraua prestatzean ere «adin tarte guztientzako zerbait izatea eta ahalik eta egun gehienetan» da helburu nagusia. Gainera, eskualdeko artista eta musikariak ezagutzera emateko «aukera ona» dela dio, «eta ekitaldi kulturalak urte guztian antolatu eta sustatu behar direla uste dut».

«Titikientzat egunero zerbait sartzen» saiatu dira aurten, «eta urteroko dantza saio eta bertzelakoei bi hitzordu azpimarragarri gehitu dizkiogu: Oinatz Bengoe- txek parte hartuko duen pilota jaialdia eta erraldioen konpartsa berrituaren parte-hartzea».

Bestak bertze modu batera bizitzen ditu orain; «dena ongi joatea, deus txarrik ez pasatzea eta jendea pozik gelditzearen ardura dugu». Guraso izateak ere besta egiteko modua aldatzen du, «baina denek denbora izaten da bestetan».

Denek ongi pasatzeko egunak dira hauek, eta «eraso sexisten aurkako protokoloa erabili behar ez izatea nahiko nuke. Jendearen inplikazioa beharrezkoa da gai honekin bukatzeko».

Azkenik, «azkeneko urte txar hauetan ez bezala, mundu guztia gonbidatu nahi dut Doneztebeko bestetara etortzera, ongi pasatzera eta errespetuz betetako besta batzuetan parte hartzera».

TALLERES ELIZGOYEN

Autoen eta lur orotako ibilgailuen konponketak

ONGI PASA BESTAK!

Mekanika azkarra
Multimarka diagnosia
Injekzioa
Gasolioa
Direkzioa
Balaztak eta ABS
Elektronika
Aire girotua
IAT aurreko azterketa
Eskidura
Txapa eta pintura

MULTIMARKA TALLERRA

Leitzako bidea, 78 - Doneztebe | 948450158
elizgoyen@telefonica.net

IRRINTZI

LARUNBAT GAUETAN SEKULAKO GIROA!!!

ONGI PASA BESTAK!

Merkatarien karrika, 28
31740 DONEZTEBE

OSTATUA

Mailposta
publizitate banaketak

ongi PaSa beStak!

Inprimategia

Publizitate banaketak



Zure inprenta eta publizitate banaketarako enpresa

Arribilagako bidea, 55
31793 Narbarte

686 747 713
648 847 167

www.mailpostabuzoneos.com
amaia@mailpostabuzoneos.com

ONGI PASA BESTETAN!

Angie
ENGLISH ACADEMY

Cambridge English
Exam Preparation Centre

Cambridge English
Teacher



Cambridge English
Exam Preparation Centre
Angie English Academy

8 urtetik aurrera. HAUR - GAZTE - HELDUAK
Hasiera mailatik: A1 - A2 - B1 - B2 - C1 - C2

1991z geroztik Cambridgerako azterketa ofizialak
prestatzen ditugu eta hagitx emaitza onekin.
Itzulpenak ere egiten ditugu.

T. 626 508 076 - angieacademy@gmail.com
Elizagbela, 7 behe - 31740 DONEZTEBE

CTV ALBAITARITZA
ZENTRO
TEKNIKO

ONGI PASA BESTAKI

Rosa Seminario, 15 • DONEZTEBE
T. 948 450 591 • M. 659 884 374
www.veterinariaostiz.com
ctveterinario@telefonica.net

eskaintza baliagarriak
2022ko ekainaren 28ra arte

STIHL

**LORATEGIRIK
PERFEKTUENA**
ESKANTZARIK HOBERENEI ESKER

ongi
pasa
bestak!

ETORRI ZURE DENDI ESPEZIALISTARA

BANATZAILEA
José Luis San Miguel
DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711
www.joseluisanmiguel.com

«Bi urteren ondotik pila bat eskertzen dut jendearen irribarreak berriz ikustea»

Montse Pacha Erreka Guraso Elkarte

«Donezteben bizi den neska baztandarra» da Montse Pacha (Baztan, 1982) eta «jendearekin harremanak eta koinatzea» du gustuko. «Arras pertsona soziala naiz, ez zait geldirik egotea gehiagorik gustatzen». Eta noski, bestazalea ere bada, «lehen eta orain, ongi pasatzea gustuko dut».



Buelta bestetara

Azken bi urte hauen ondotik, «arras gutura» hartuko ditu herriko bestak; «azken bi urtetan izan ditugun traba guztiak eta gero, berriz ere elkartzen ahalko gara, txarangaren gibeletik ibili, pote batzuk hartu, jendea disfrutatzen ikusi... arras polita izanen da».

Herritarren artean ere bestetarako gogoia ikusten du, «jendea gogotsu dago, bai. Adibidez, bestetan erraldoiekin dantzatzeko talde bat sortu dute eta entsailatzen dabilta duela aste batzuk». Bestarako gogoia «adin guzietako jendeak duela» dio Pachak, «eta ekitaldi dezente izanen dira denok disfrutatzen». Bi urte hauetan «jendearekin nahi nuen guztiak elkartu ezin izatea» izan da gogorrena berarentzako, «eta pila bat eskertzen dut berriz jendearen irribarreak ikustea!».

Bestak bizitzeko moduak

Orain gurasoa dela, «arras modu desberdinean» bizitzen ditu herriko bestak; «lehen arratsalde eta gauaz disfrutatzen nuen: kontzertuekin, gaupasa eginez, gosaltzera joaten...». Orain, berriz, «egunez bizi ditut gehiago bes-

tak: txarangaren gibeletik, eguerdi eta arratsaldeko poteoarekin, erraldoi eta buruhaundiekin... baina desberdina izanagatik, ez ditut guttiago disfrutatzen». Hala ere, bestaren bat edo bertze egiten du beti: «bezpera eguna beti markatuta dugu egutegietan!».

Helduentzako ez ezik, «haurrentzako ere gauzak antolatzen dira bestetan eta tiki-tiki ere disfrutatzen aukera dute. Hala ere, zerbait gehiago nahi izanez gero, gurasoen inplikazioa beharrezkoa dela uste dut».

Azkenik, Pachak adierazi nahi izan du «herria eta batez ere pertsonak errespetatuz besta politikak izanen ditugula», eta «egoera arruntera bueltatu gaitela probestu behar dugula ongi pasatzeko. Gure artean elkar maitatu eta mundu guztiak ongi pasatzea espero dut, eraso sexistarik ez ditugu onartuko! Aupa Doneztebe! Ongi pasa herriko bestak!».



erran.^{eus}

zrb.net
informatika

ONGI PASA BESTAK!

Merkatarien kalea, 29
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 752
M. 609 418 097
info@zarbo.net
www.zarbo.net

Arozena
ostatu · jatetxea

Gosariak
bazkariak
eta afariak

ongi pasa bestak!

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84
DONEZTEBE



MAITE
MANGADO
ARKITEKTURA
& DISEINUA

Ongi pasa herriko bestak!

T +34 653 035 091
www.maitemangado.com
Doneztebe (Na)

TELLETXEA
MUEBLES | ALTZARIAK

Altzari rustikoak
Altzari modernoak
Gazteentzako altzariak
Koltxoak
Sukaldeak

C/Rosa Seminario nº12
31740 Santesteban (Navarra)

Mendaur Motor

Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura

*Ongi pasa
bestak!*



Leitza errepidea, 47 - Tel.: 948 45 03 33

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

**ONGI PASA
BESTAK!**

**24 ORDUKO
ZERBITZUA**

BEZEROARENTZAKO
ARRETA-ZERBITZUA ITXIA
DAGOENEAN

**BETE DEPOSITUA MAKINA
AUTOMATIKOAN**

TXARTELAREKIN EDO
ESKUDIRUTAN

**SUPERMERKATUKO PREZIOAK
GASOLIOA ETXERA**



Ctra. N-121-A - Km 48,8 • DONEZTEBE
T. 948 450 272 - 948 450 787



Zurgin lanak orokorrean

Aparan Industrialdea - 31740 DONEZTEBE

Tel. 669 939 057

mutuberriazurgindegia@hotmail.es

ongi pasa bestak!

«Herria bizirik mantentzeko gazteen parte-hartzea ezinbertzekoa da»

Itxaso Estanga Otxandorena
Gazte Burrunbako kidea



Gazteen presentzia handitu nahian

Urte osoan antolakuntza egun finkoak ditu elkarteak: inauteriak, San Pedroak, errebestak... «baina aurten Gazte Burrunbaren presentzia handitu nahi genuen eta aipatu bezala zerbait antolatzen ari gara hilabetero. Oraingo pilotari partida ateraldia, talo jatea, sagardotegia, Burrunbaren eguna eta mendi itzulia egin ditugu, eta urtea amaitu baino lehen egiteko bertze hainbetez ekintza ditugu buruan».

San Pedro bestetan txozna irekitzen dute egunero plazan, «eta aurten gazte eguna ere antolatu dugu orzategunean, ekainaren 30ean; bertso saioa, gazte bazkaria eta elektrotaranga izanen dira, bertze ekintzen artean». Bestetako mus txapelketa antolatzeaz ere arduratzen dira, «ortzirale goizean izanen da eta ondorengo luntxa egingen dugu». Arratsaldean peñen ateraldia egingen dute herriko karriketatik barna.

Guztira 100 kide ditu elkarteak, «baina juntan zehazki 14 gaude eta guk hartzen dugu lan pisutsuena. Orain arte guttiago ginen eta jendea bilatzen aritu gara baina duela gutti sei pertsona gehiago sartu dira lanekin laguntzeko».

Herrian gazteen presentzia «hagitz garrantzitsua» dela dio Estangak, «aunitz gara eta herria bizirik mantentzen laguntzen dugu. Baina dudarik gabe, garrantzitsua gazteen eta herriarren arteko elkartasuna da. Guk eman ditzakegun eta bertze herriarrek eman ditzaketen ideiak

bateratuz, besta politak eta herrikoikiak sor ditzakegu. Azkenean, hori da helburua, herriko bestak herriarrek egitea».

Bestak berrartzeko gogoz

Bestak «dudarik gabe» gogotsu hartuko ditu; «geldirik egotea aunitz nabaritu da eta lehengo marbxa hartzen hasi garela gazteengan gogoia ikusi da. Aurtengoak bereziagoak izanen dira horregatik».

Doneztebeko 21 urteko «neska saltsera» da Itxaso Estanga. Dantza, musika, mendira joatea eta besta ditu zaletasun eta 2020tik Gazte Burrunbako kide da; «beti saltza guzietan sartzen naiz eta momentu hortan juntan zeudenak ea sartu nahi nuen galdetu zidaten eta baiezkoa eman nuen pentsatu gabe».

Gazte Burrunba

Herriko gazteek osatutako elkarte da Gazte Burrunba, eta «bestak, ateraldiak eta mota guzietako ekintzak» antolatzen dituzte. «Beti nago antolakuntzako gaudetan sartua, Gazte Burrunba dela, dantza taldea dela edo bertze edozein ekintza. Gainera, herria bizirik mantentzeko gazteen parte-hartzea ezinbertzekoa ikusten dut eta nik ere horretan lagundu nahi nuen».

**«Gazteen eta
herriarren arteko
elkartasuna da
garrantzitsua»**

Nahiz eta elkartearen helburua gazteen-
tzako gauzak antolatzea eta herriko gaz-
teria elkartzea eta mugitzea izan, «herri
guziarentzako ekintzak antolatzen ditugu.
Aurten hilabetero ekintza bat antolatzen
ari gara: pilota ateraldia, talo jatea, sa-
gardotegi ateraldia, mendi itzulia, Burrun-
baren eguna... beraz, erranen nuke herri
osoaren elkartasuna eta mugimendua
bultzatzen dugula».

«Nire inguruko edozeini galdetuta bestazalea naizela erranen dizu» aitortu du Estangak, «beti kanpoan egoten naiz bestetan, etxea eroriz gero niri ez dit harapatuko (irriz)». Herriko zein inguruko bestak «hagitz gustuko» ditu; «lagunekin eta herritarrekin elkargune moduko bat sortzen da. Ingurukoekin denbora pasatzeko momentu aproposa da, urtean zehar lagunekin bakanrik egoteko joera izaten dugu eta bestetan hainbertze ikusten ez dugun jendearekin elkartzen gara. Izugarri gustatzen zait herri elkartasun hori eta denok denorekin egotea. Doneztebarrak ator eta zapiarekin ikusteak emozioztatzen dit».

Herri eta gazte bazkaria eta plazako eta txoznako giroak ditu gustuko; «kanpoan egiten diren ekitaldiak ahalik eta gehien disfrutatzeko probesten dut. Ostatuak urte guzian ditugu, bestak plazan egoteko dira!».

Ohitura zaharrak mantentzen

Bestazalea izateaz gain, dantzaria ere bada Estanga, «10 urte inguru nituelarik hasi nintzen». Beraz, bestetako ikuskizunetan parte hartzen du; «29an beti dantza emanaldia egiten dugu frontoian. Hagitz polita izaten da eta jendea ikustera etortzera animatu nahiko nuke».

«Doneztebarrak ator eta zapiarekin ikusteak emozioztatzen dit»

Gainera, duela 27 urte Trapatan dantza eta berreskuratu zuten Doneztebeko bestetan; «dantzaria eta doneztebarrak bazara, Trapatan dantza eta bandera dantza momentu hunkigarria da zalantzarik gabe. Herriko ohitura zaharra da eta polita da mantentzea». Ikusi edo dantzatu, dantzaztea nahilago du; «ohitura hori mantendu behar da, eta gero eta jende gehiagok dantzatu, hobetu!».

Azkenik, «espero dut aurtengo bestak gogoekin hartzea denok eta besta herriko eta politak izatea! Gora Doneztebeko gazteak eta gora Gazte Burrunba!».



CASA ETXEA OSTIZ
Ongi pasa bestak!
ZAPASA-DENDA
LIBURU-DENDA
PAPELTERIA
Parrokia, 17 Doneztebe • T. 948450289
www.casaostiz.es

EROSKI city
ENKARGUAK HARTZEN DIRA
Ongi pasa bestak!
T. 948 456 152
Zazpigerutze, 8 - DONEZTEBE
JANARI-DENDA | HARATEGIA | FRUTAK

sare akademía
DBH ETA BATXILERGOA
- MATEMATIKA, FISIKA ETA KIMIKA
LEHEN HEZKUNTZA
- ERREFORTZU KLASEAK IKASDAI DESBERDINETAN
Taldea talaketa eta jarrailpen pertsonalizatuarekin.
2022-2023ko ikasturterako apuntatzeko epea zabalik.
INFORMAZIO GEHIAGO:
T. 615561458 (Nerea)
Emaila: akademiasare@gmail.com
Web orria: sites.google.com/view/sareakademia
Doneztebe

Arnedo Inda SL
Ongi pasa bestak!
Allianz
Aseguruak
Inbertsioak
Eztegara, 26 - BERA • T. 948 625 259
Parrokia, 21 - DONEZTEBE • T. 9484 50 266 } M. 691 384 651
Londres, 16 - IRUÑEA • T. 948 319 725 • M. 633 714 485
arnedo.ind@allianzmed.es

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
 - Zerbitzu fiskalak
 - Lan-aholkularitza
 - Aholkularitza juridikoa
 - Herentzia eta Testamentuak
 - Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
 - Datuen babesa
 - Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
- www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Bartanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO
Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA
Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE
Elizeta, 20 31770 Lesaka
T. 948 581 300 - F. 948 580 648 T. 948 631 108 T. 948 450 395 - F. 948 451 304 T. 948 638 077

Doneztebe autoeskola
BESTA ONAK PASA!
Leitzako errepidea 2 behea DONEZTEBE
doneztebeautoeskola@gmail.com



90eko hamarkadako sanpedroetan Lagunartekoei ateratako argazkia. ARTXIBOA

Ospakizunez betea heldu da ekaineko azken asteburua

Ekainaren 23an San Juan bezpera eta 24an eta 25ean Sanpedroak ospatuko dituzte

ENERITZ IRAOLA

Sanjuan suarekin batera festarako txinparta piztuko da Areson. Urteko egunik luzeena eta gaurik motzena, motz gelditu antza eta sanpedroak segidan ospatzea erabaki du Lagunartek. Hala, ekainaren 23an hasi eta 25era bitarte, hiru egunez luzatuko da festa giroa herrian.

Ekainaren 23an, 18:00 aldera, haurrentzako jolasak eta merienda antolatu ditu guraso elkarteak. Ondoren, herri afaria izango da; jatekoa eramateaz norberak arduratu beharko du eta udalak mahaiak eta edaria jarriko dituela jakinarazi du. Afalondoan suak piztuko dituzte.

Garai batean bezala, sua osatzeko material bilketa etxex etxe egiteko ohitura berreskuratu nahi du guraso elkarteak. Horregatik, herritarrei kartoi eta zakuak bildu eta prest izateko eskatu nahi diete. Datozen egunetan zehaztuko dute bilketa egiteko eguna.

Ekainaren 24an, ostiralean, 17:00etan meza eta ondoren merienda eskainiko du Lagunartek eliz atarian. 18:30ean herriko eskea egingo dute trikitilariekin eta 21:30 aldera mahaiaren bueltan bilduta afalduko dute gazteek.

Ekainaren 25ean, larunbatean, egun luzea izango dute aurretik Lagunartekoei. Indarrak hartzeko gosaria egingo dute Pake Toki elkartearen eta 11:00 aldera baserrietako eskeari ekingo diote. 18:30ean sagardo dastaketa izango da plazan eta 21:00etan herri afaria Pake Toki elkartearen. (Menua: sarrerakoak, entsalada, oilasko errea patatekin, jogurt musa, kafea eta pastak eta kopa bat). Afarirako txartelak Sastinean egongo dira salgai ekainaren 21era arte. Hamabi urtera arteko hurrek 10 euro ordaindu beharko dute eta helduek 18 euro. Afalondoan trikitilariak izango dira eta ordu txikiak arte festa.

Heziketa eta hezkuntzarako dirulaguntzak

Udalak heziketarako eta hezkuntzarako gastuak ordaintzeko dirulaguntza ematea erabaki du. Hamasei urtera bitarteko haur eta gazteei zuzendutakoa da eta 2021ean egindako ikastaroen truke eska daiteke: musika, hizkuntzak, kirol jarduerak ez lehiakorrak... Ez dira lagunduko Kirol Mankomunitateak antolatutakoak. Egiaztatutako gastuaren % 50 lagunduko du, gehienez ere 100 euro urteko eta ikasleko. Udalak, gehienez ere, 1.500 euro bideratuko ditu. Ekainaren 26rako aurkeztu behar da dokumentazioa idazkaritzan.

Kirola egiteko makinak jarri dituzte plazan

Kirola egin eta sasoiari jarri nahi duenak ez du horretarako aitzakiarik orain. Udalak kirola egiteko hainbat makina jarri ditu plazan, parkearen aldamenean: bizikleta estatiakoa, eliptikoa, abdominalak eta besoak indartzekoak... Aukera zabala da.



ESKOLAK UTZITAKOA

Nerea Loiola idazlearen bisita eskolan

Liburuak Gozagarri programaren barrenean, Nerea Loiola idazlearen bisita izan zuten maiatzaren 27an Nazabal eskolan. Euskarazko literatura ezagutzea bultzatzen duten saioak dira, ikasleengan irakurzaletasuna sustatu eta euskararekin eta euskal literaturarekin goza dezaten.



ENERITZ IRAOLA

Jolasean ikasiz, gustura ttikienak

Urrian hasi eta maiatz bukaerara arte psikomotrizitate ikastaroa eskaini du Kirol Mankomunitateak. Ainhora izan dute irakasle eta sei ikasleko taldea gustura ibili da ostegunero salto gelan: eraikiz, margotuz, irudimenarekin jolastuz, ipuinekin amestuz... elkarrekin gozatuz.

Mendialdeko Azoka Ibiltaria igande honetan

Ekoizleen eta artisauen 30 postu baino gehiago jarriko dituzte plazan

TTIPI-TTAPA

Goizuetari lekukoa hartuta, igande honetan, ekainaren 19an, herrian eginen dute udalak, Cederna Garalur elkarteak, Plazaola Partzuergo Turistikoak, Habelarte Mendialdeko Baserritarren Elkar-teak, Bertatik Bertara dinamikak eta LeitzEko kontsumo taldeak antolatutako Mendialdeko Azoka Ibiltaria.

Aurtengo bosgarrena izanen da eta 10:30etik 14:00etara 31 postu jarriko dituzte plazan, jatekoen 17 eta artisauen produktuen 14, eta tartean herri-



lazko azoka ibiltariko irudi bat.

ko hainbatenak: Saralegi taloak, Gorritz gaztak, Txokosfera txokolateak eta Xarmat zilarra eta larrua.

Postuez gain, 13:30ean zozketa eginen dute.



Zortzi lagun elkartu ziren maiatzaren 30eko saioan. AMAIA PAZ

Eraso sexisten kontrako trebakuntza saioa egin dute

TTIPI-TTAPA

«Ustezko hitz ederrak, irainak, ukitzeak, kolpeak, sexu jazarpena, bortxaketa... Indarkeria sexista festa giroan eta egunerokoa» gertatzen dela eta horrek «egiturazko jatorria» duela ikusita, eraso sexistei aurre egiteko eta erantzun egokia emateko bi saioko trebakuntza

egin dute pestetako eraso sexisten kontrako mahaia osatzen duten eragileek. Amaia Paz berdintasun teknikariaren arabera, maiatzaren 30ean egin zuten aurrenekoa, Emagin elkarteko Idoia Arraizarekin eta ekainaren 13an egitekoa zuten bigarrena. Pestetako eraso sexisten kontrako protokoloaz aritzekoak ziren.



JUAN MARI BARRIOLA / ITZIAR AZPIROZ

Interesgune asko Kultur Aroan

Ezkatatu diguten historia erakusketa Beñi Agirrerekin, Fernando Oartzun, Txente Rekondo, Xabier Irujo eta Floren Aioz eta Miren Zabaletaren hitzaldiak, Itziar Azpiroz eta Koke Ardaizen *Naturaren leihoak* erakusketa, azoka, Mikel Illarregiren ikuskizuna, Sagardo Eguna... Ederra izan da Kultur Aroa.



SEÑORA SARIKETA

Ane Labaka pameladuna

Ane Labaka Mayoz da II. Señora Sariketako pameladuna. Ekainaren 4an Herri Aretoan jokatu zuen finalean irabazi zuen. Berarekin batera, Erika Lagoma Pombar, Uxue Fernandez Lasa, Amaia Iturriotz Etxaniz, Aner Euzkitze eta Sarai Robles Vitas bertsolariak aritu ziren. Finalaz gain, egun osoko pesta izan zen.



Emakumezkoen podiuma. EH MENDI ERRONKA



Gizonezkoen podiuma. EH MENDI ERRONKA

475 bat lasterkari bildu ditu mendi erronkak

Jon Ander Zabaleta leitzarra, Hodei Lujanbio goizuetarra eta Leire Baraibar aresoarra EH Mendi Erronkako podiumean

TTIPI-TTAPA

«Auzolan erraldoiaz» mintzo zen Iraitx Uriarte Euskal Herria Mendi Erronkako antolatzaileetako bat lasterketaren atarian, eta halaxe berretsi zuten antolatzaileek ekainaren 4a pasatuta: «Auzolana da gure lasterketaren muina eta boluntarioak gara honetan sinetsi eta aurrera eramaten dugunak». Auzolan horri esker ikusleek zein lasterkariak gozatu zuten lasterketaz.

475 bat lasterkariak parte hartu zuten Euskal Herria Mendi Erronkaren VIII. edizioan. 67 kilometroko proba gogorrean, gizonezkoetan, Ugaitz Artola izan zen bizkorrena, eta bera-ekin batera, Asier Rajadok eta Jon Ander Zabaleta Telleria herritarak osatu zuten podiuma. Artolak zazpi ordu baino gutxiago behar izan zuen ibilbidea osatzeko (6.56.49). Sei minutuko aldea aterazion Rajadori (7.02.56) eta bigarrenaren-gandik hiru minutu eskasera ailegatu zen Jon Ander Zabaleta (7.05.37). Herritar gehiagok ere parte hartu zuten, tartean, 17. izan zen Daniel Parraga Zubillagak (8.01.22) eta 21. egin zuen Beñat Saralegi Izagirrek.

Emakumezkoetan hamalau lasterkarik egin zuten lasterketa luzea. Bizkorrena Oihane Perez izan zen (8.18.32). Handik hamar minutu baino gutxiagora ailegatu zen Izaskun Sanz (8.28.17) eta Montserrat Vazquez eta Maria Ritcher elkarrekin helmugaratu ziren (9.14.20).

43 bikotek osatu zuten erreleboka lasterketa (32,8 km + 34,2 km). Hodei Lujanbio Apezetxea goizuetarra eta Oihana Zubillaga izan ziren podiumaren goiko koskara igo zirenak (6.50.59). Leire Baraibar Garmendia aresoarrak eta Mikel Etxeberriak (7.03.07) bigarren egin zuten eta Iñigo Uribeetxebarriak eta Leire Arrizabalagak hirugarren. Itxaro Zabaleta Telleria herritarra bosgarren izan zen, Julen Erasorekin (7.54.29).

Lasterketaren aurretik aitzindariak izan ziren andereño euskaldunak omendu zituzten. «Euskarari eta euskal irakaskuntzari oztopoz beteriko garai batean egindako ekarpenagatik», Kontxi Beitia Oiarbide (Pasaia), Izaskun Gastesi Zubeldia (Gorriti) eta Kontxi Zabaleta Labaieni (Leitza) aureskua dantzatu eta oroigarria eman zieten.



Erreleboka nagusitu zen bikotea. EH MENDI ERRONKA



Beñat Saralegi eta Iker Zubillaga Albiko parajejan. ENERITZ IRAOLA



Aurtengo omenduak antolatzaileekin. EH MENDI ERRONKA

Eskolako estalpeko lanak udan hasiko dituzte

38 metroko luzera eta 20 metroko zabalera izanen duen estalpea institutuaren pareko eremuan eraikiko dute

TTIPI-TTAPA

Nahi baino beranduago, baina azkenean eskolako estalpeko lanekin udan hasiko direla iragarri du Mikel Zabaleta alkateak.

Aurreko urtean zintzilik gelditu zen obra. Deialdira aurkeztu zen enpresa bakarrak obran hastear zela atzera egin zuen. Baina alkateak gogoratu duenez, «zorionez, EH Bilduk Nafarroako Gobernuarekin adostutako akordioei esker, 2022ko aurrekontuetan Leitza-ko estalpea berriro ere kontuan hartu zuten». Hala, proiektua gaur egungo errealitatera egokituta –aurrekontua handitu dute–, 38 metroko luzera eta 20 metroko zabalera izanen duen estalpea eraikiko dute.

Hezkuntza Departamentuak maiatz hasieran abiatu zuen esleipen prozedura. Bi enpresek aurkeztu zituzten proposame-

nak eta Berako estalpea egin zuen Cubiertas y Fachadas Larra SL enpresak eraikiko du.

Obrak osotara 502.905,17 euroko aurrekontua izanen du eta Amazabal institutuaren pareko eremuan eraikiko dute. Gobernuak 422.905,17 euro bideratuko ditu eta udalak 80.000 euro. Bide batez, udalak eskola eremuan hobekuntzak egin nahi ditu: «kirola egiteko elementu berriak jarri eta hainbat oztipo arkitektoniko ezabatu».

Eskolako leihoak

Zaharkituak gelditu diren Erleta eskolako *anpliazio*ko edo eranskineko 1978ko leihoak ere irtenbidea eman nahi die udalak. 32 leiho eta sarrerako ate nagusia aldatu eta leiho ertzak konponduko ditu. Obra ia 80.000 euro kostako da eta gobernuak 51.663 euro emanen ditu.




ENERITZ IRAOLA

Giro ederra topaketan

XXI. topaketaren harira, Leitza, Areso, Goizueta, Arano eta Ezkurrako haur, guraso eta irakasleak jai giroan elkartu ziren maiatzaren 28an. Egun osoko pesta izan zuten: erraldoi eta buruhandiekin kalejira, tailerrak, bazkaria, jolasak... Topaketako abestia ere behin baino gehiagotan dantzatu eta kantatu zuten.

Goiuri Zabaleta lau eta erdian txapelketa izan da

Goiuri Zabaletak Nafarroako Foru Komunitateko gazteen lau eta erdiko pilota txapelketa irabazi zuen ekainaren 5ean Nafarroa Arenan. Pilotakadetan kalitate eta indar handia erakutsiz, Leire Gleanori 18-10 irabazi zion. Badirudi laster eliteko pilotarien artean lehia- tzeko moduan izanen dela.



Goiuri Zabaleta bikain ari da pilotan.

Joanes Olaizola nagusi Lekunberriko proban

Martxoan aurkeztu zen ondoren, ekainaren 5ean iritsi zen Aurrerako txirindularien lehen garaipena. Joanes Olaizola *Iturrigailendu* zen Lekunberri, haur mailan, 1.300 metroko zirkuitu batean 17 kilometroko ibilbidea egiten azkarrena izan zen. Garaipen askoren artean aurrenekoa izan dadila!



Joanes Olaizola podiumean.



Mingaño Saltsan bertso afari sariaketako finalean hartutako irudia. ATEKABERTS

Jexux Mari Irazuk irabazi du Mingaño Saltsan bertso sariaketa

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 26an jokatu zuen Torrea tabernan Mingaño Saltsan bertso afari sariaketako finala. Iban Urdangarin, Jone Uria, Oihana Bartra, Josu Sanjurjo, Eneko Lazkoz eta Jexux Mari Irazuk irabazi zuten kantuan. 60 lagunetik gora elkartu ziren bertsolarien jarduna en-

tzutera. Mikel Azpiroz gai jartzailerak zutela, saio polita osatu zuten sei finalistek. Ia bi ordu eta erdiko saioaren ondoren, epaileek hala erabakita Jexux Mari Irazukeskuratu zuten lehen postua. Sari gisa pestetako blusa eta pestetako bertso saioan parte hartzeko gonbidapena eskuratu zituen Irazuk.

Artikutzari buelta emateko hitzordua larunbatean

Arriurdinetatik abiatuta, Artikutzari buelta emateko ateraldia antolatu du Arainburu Mendi Taldeak

TTIPI-TTAPA

Arriurdineta, Loitzate, Izu, Eskas, Orozko zubieta, Unalbide eta Arriurdineta. Horixe da Arainburu Mendi Taldeak larunbat honetarako, ekainaren 18rako prestatu duen mendi ateraldia.

32,62 kilometro eta 1.225 metroko malda duen ibilbidea izanen da, eta antolatzaileek «zaila» dela iragarri dute. 06:45ean abiatuko dira herriko plazatik eta kotxez joanen dira Arriurdinetara, harrobira. 16:30 alderako bueltan herrira itzuliko direla aurreikusi dute.

Antolatzaileek adierazi dutenez, kotxea eramateko bolutarioak beharko dituzte eta prest dagoenak izena emateko orrian zehaztu beharko du. Ateraldian parte hartzeko aurretik izena eman behar da eta horretarako azken eguna osteguna, ekainaren 16a, izanen da. Estankoa egin behar da.

Gainerakoan, norberak bere gosaria eta bazkaria eraman beharko ditu eta antolatzaileek argi utzi dute ez direla gerta daitezkeen ezbeharren erantzule egingen.



1956en jaiotakoek giro ederrean ospatu zuten kintoen eguna maiatzaren 28an.

Kinto festekin giro ederra sortu da maiatzeko larunbatetan

ESTEBAN AROZENA

Maiatzeko larunbatek pandemia aurreko itxura berreskuratu dute aurretik. Astebururako hainbat adineko kinto festak ospatu dituzte. Gailurra maiatzaren 21ean jo zen, 14 urtetik goitiko gazte guzietan egun horretan hartu baitzituzten herriko jate-txe, elkarte eta txoko guztiak.

Igande goiz-eguerdiarekin ederrilotu zuten, gainera, gehienek bezperan hasitako festa. Kanpotarrak ere asko izan ziren gururaparrandara etorritakoak.

Maiatzaren 28koa lasaia joan bazen ere –60 urteren bueltakoak izaki egun horretan kinto festak–, giro atsegin eta jendetsua nagusitu zen.



UTZITAKOA

Hodei Lujanbio Zegama-Aizkorri

4.35.17ko denboran osatu zuen Hodei Lujanbio Apezetxeak Zegama-Aizkorri lasterketa ezagun eta gogorra. Proban bere aurreneko aldia zuen eta «esperientzia bikaina» izan omen zen, «espero baino askoz zirrargarriagoa». Geroztik EH Mendi Erronkan erreleboka eta Intxixu trailen garaipenak lortu ditu.



Pala txapelketako finalistak. IGOR ELIZEGI

Etxeberría-Zabala eta Iribarren-Iturgoien nagusi II. Pala Txapelketan

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 25ean borobildu zuten martxoaren 9an hasitako Umore Onaren II. Pala Txapelketa.

Emakumezkoen kasuan lau lagunek parte hartu dute txapelketan eta denak denekin nahastuta jokatu dituzte partidak. Finala bikoterik parekatuen artean egingen zutela iragarri zuten eta halaxe izan zen. Puntu bakarreko aldearekin nagusitu ziren Maríjo Etxeberria eta Gorane Zabala. 25-24 gailendu ziren Uxuri Perurenaren eta Leire Iribarrenen aurka.

Gizonezkoetan bost bikotek parte hartu dute txapelketan: Mikel Huizi-Andoni Larralde, Joseba Apezetxea-Eneko Apezetxea, Patxi Iribarren-Eneko Iturgoien, Xabi Zugarramurdi-Iker Miranda eta Fernando Goia-Ibai Zugarramurdi. Aurrenean ligaxka jokatu zuten denek denekin kontra, ondoren finalerdiak, eta maiatzaren 25eko finalarekin borobildu zuten.

Patxi Iribarrenentzat eta Eneko Iturgoienentzat izan zen garaipena, 22-14 irabazizieten Goiari eta Zugarramurdiri.



Maiatzaren 30ean udaletxeko ganbaran egindako aurkezpena. ALAITZ ESKUDERO

Etxebizitzak berritzeko laguntzak aurkeztu dituzte

Nasuvinsako teknikariek etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzei buruzko informazioa eman diete herritarrei

TTIPI-TTAPA

Etxebizitzak berritzeko dirulaguntzak aurkezteko eta zailtasunak argitzeko bilera informatiboa egin zuten maiatzaren 30ean udaletxeko ganbaran.

Amaia Los Arcos eta Patxi Iriarte Nasuvinsako teknikariek eman zuten dirulaguntzen berri, eta Nafarroako Gobernuak ematen dituen zein Europatik datozen laguntzak aurkeztu zizkieten herritarrei. Blokeak eta familia bakarreko etxebizitzak berritzeko dauden aukerak izan zituzten hizpide, eta besteak beste, irisgarritasuna hobetzeko, leihoak alda-

tzeko, fatxada edo teilatua berritzeko, energia berriztagarrien instalazioa egiteko... Hainbat dirulaguntza daudela azpimarratu zuten. Kasuaren arabera, laguntzak % 40ra artekoak izan daitezke, eta kon-tuan izan behar da energiaren %30 aurreztealortu behar dela.

Dirulaguntzak eskatzeko Nasuvinsak aholkularitza zerbitzua ematen duela oroitarazi zuten aurkezpenean, eta kasu bakoitza aztertzeko Los Arcos teknikariarekin hitzordua hartzeko deia luzatu zuten. 646 31 90 53ra deitu edo alosaurcl@nasuvinsa.es idatz daiteke.



ALAITZ ESKUDERO

Gurerara saio dibertigarria

Ekainaren 3an, Oskar Estangaren Gurerara saioarekin estreinatu zuten Tifanixoko ganbara. Obra egin denetik lehenbiziko ekitaldia izan zen. Ordu berean Herriarteko Pilota Txapelketako partidak izanagatik, hainbat lagun bildu ziren. Ikusleek gaiak proposatuta Estangak abestiak inprobisatu zituen.



FELIX LOIARTE

Giro ederra Mendialdeko Azoka Ibiltarian

Mendialdeko Azoka Ibiltariak ekainaren 5ean egin zuen geldialdia herrian. Eguraldi ona lagun, elikagaien eta artisauen 25 bat postu jarri zituzten herrian barrena. Eguerdian egindako zozketaren saria, berriz, eskualdetik kanpo joan zen.

Umore Ona Pilota Txapelketako finalak ostiral honetan

TTIPI-TTAPA

Ostiral honetan, ekainaren 17an, jokatuko dituzte Umore Ona Pilota Txapelketako seigarren edizioako finalak.

Maiatzaren 13az geroztik, Nafarroako eta Gipuzkoako hamasei pilota eskoletako 40 bikotek parte hartu dute txa-

pelketan, bost kategoriatan banatuta: seinak, kimuak, haurrak, kadeteak eta nagusiak. Horien artean finalerako txartela lortu dutenak ariko dira ostiralean, 17:00etatik aurrera. Bestalde, ostegunean, neskek lagunarteko finala egingen dute 19:00etan hasita.



Pilotariak aurtengo Umore Ona Pilota Txapelketan. IGOR ELIZEGI



Herriko sarreraren eginen dute aparkaleku berria. BAZTANGO UDALA

Erratzuko sarreraren parkinga egiteko aurrekontua onartua

Oraingo behin-behineko lanak eginen dituzte eta 50 auto aparkatzeko lekua izanen da

TTIPI-TTAPA

«Gehiegizko turismoaren etorrerak Erratzun sortzen dituen arazoak konpontzen laguntzeko», Baztango Udalak herriko sarreraren aparkaleku bat eginen du. Horretarako, azken bilkuran diruzaintzako garakinetik 35.700 euroko aurrekontu moldaketa onartu zuten, BEZa aparte, aurrekontuetan heldu zen 6.300 eurori gehitzeko, 42.000 euro osotara.

Aparkalekua egiteko udalak lurren-trukea egin behar izan du barride batekin. Trukearen eskriturak egin bezain fite parkinga egiten ahalko da,

«ekainaren erdi aldera». Orain behin-behineko lanak eginen dituzte; pareten urratzea, drainatze sistema, harri-laxozko zola ematea... denera 50 auto aparkatzeko lekua. Behin betiko lanak aitzinerago eginen dituzte.

Turismoa kudeatzen

Gainera, Xorroxingo ur-jauzirat eta Amaiurko gaztelurat joan ahal izateko erreserba plataforma berrituko dute. Horretarako 4.200 euroko aurrekontu moldaketa egin dute, «kasu honetan eskuorrien argitalpenerako kontu sailetik».



IXABEL ALEMAN

400 partaide inguru Mendi Itzulian

Maiatzaren 29an egin zuten Baztango Mendi Itzuliaren XXVII. edizioa. Bi ibilbide egin zituzten Amaiur eta Baztan arteko mugarrietatik, laburra 20 km-koa eta luzea 28 km-koa. Jendea kontent, eguraldi bikaina eta Amaiurko 500. urteurrenagatik kamiseta oroigarri izan zuten partaideek.



ZIGA

ELEKTRIZITATEA

647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak,
argiztapen-azterketak
eta elektrizitate lanak orokorrean





Hainbat herritar bildu ziren ekainaren 3an Elizondoko plazan. UTZITAKOIA

Benito Menniko langileak haien eskubideen alde

Manifestazioa egin dute Elizondon eta elkarretaratzea Iruñean Gizarte Politiketako Departamentuaren egoitzan

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Benito Menniko langileak manifestazioa egin zuten ekainaren 3an ELA sindikatuaren bidez, «gure egoera salatzeke, gure arazoak gizarteratzeko eta bailarako herritarren babesa bilatzeko». Herriko plazan langileak eta «herritar aunitz» elkartu zen eta herrian barna ibili ziren, haien aldarrikapenak ezagutzera emateko.

Aldarriak Iruñera

Ekainaren 1ean, berriz, Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako Departamentua-



Langileak Iruñean elkartuak. UTZITAKOIA

ren egoitzaren aitzinean bildu ziren. Administrazioari «be-tebeharrei muzin ez egiteko» eskatu zioten, «Benito Mennirekin hitzartuta dagoen zerbitzuaren titularra baita».

Arizkun Rock jaialdia egingen dute Arizkunen ekainaren 24an

TTIPI-TTAPA

Azken urteetan egin den bezala, Arizkun Rock jaialdia egingen dute Arizkunen herriko bestetan.

Prestaketak hasi dituzte dagoeneko herriko gazteek; kartelak banatzen, eszenatokia muntatzen, kanpalekua prestatzen... Ekainaren 24an izanen da ekitaldia eta sarrerak dohainik izanen dira.

17:00etan hasiko da jaialdia, bailarako Drunken Barrels taldearen emanaldiarekin. 23:00etatik aitzinera, berriz, The Lio, Skakeitan eta Tirri&-



2019an egindako jaialdia. ARIZKUN ROCK

Tery izanen dira oholtzaren gainean. Bokataksalgai izanen dira herrian bertan eta kanpin denda eta lo zakua eramaten dutenendako kanpalekua prestatu dute.



ONDIKOL

BRTri harrera Baztango Balleko Etxean

BRT Menditarrak errugbi taldeko seniorrak euskal ligako bigarren mailan txapeldun izan dira. Horregatik, maiatzaren 25ean harrera egin zieten udaletxean. Joseba Otondo alkateak eta Xabi Maia zinegotziak oroigarria eman zieten jokalariei eta entrenatzaileei. Zorionak!

ANZABAL
Inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Cub Cadet
Distribuidor oficial
ENDURO SERIES™

BB BLOK BAT
TALLERES

Santiago kalea 85, ELIZONDO
948 580 898 blokbatt.com



Almandozko bestetako haurren eguneko argazkia hondar urtean. UTZITAKOA

Almandozko bestak ekainaren 15etik 19ra izanen dituzte

Haurrendako, gazteendako eta helduendako egitaraua prestatu dute kargudunek

TTIPI-TTAPA

Iruritako eta Berroetako besten ondotik, Almandozko bestak hasi dituzte aste honetan eta igandera bitarte hainbat ekitaldik osatuko dute egitaraua, «herritar guzien gustura».

Egitaraua

Ekainak 15, asteazkena, bezpera. 20:00etan txupinazoa. 20:30ean kalejira buruhandiekin. 21:00etan Baztan zopak Joxe Angelek alaiturik.

Ekainak 16, ortzeguna, Bestaberri eguna. 08:00etan aurora Parrokiako Abesbatzarekin eta Bixente akordeoilariarekin. 12:00etan meza nagusia eta prozesioa. 13:00etan luntx herrikoia frontoian. 17:00etan herritarren arteko desafioa. 20:00etan tortilla patata lehia-keta. 21:00etan afaria eta 00:00etan DJ Itzoto.

Ekainak 17, ortziralea, haurren eguna. 11:00etan haur jokoak. 16:00etan haurrendako puzgarriak arratsalde osoan. 17:30ean mus txapelketa. 18:00etan haurrendako txokolatada. 21:30ean herri afaria. 00:30ean dantzaldia Ga-



Herriko aurorak Joxe Angelekin.

bezin taldearen eskutik eta 06:00etan xingar jatea gautxoriendako. Gan-torri zerbitzua izanen da.

Ekainak 18, larunbata, zikiro eguna. 11:00etan mus txapelketako final erdiak eta finala eta 13:00etan sarien banaketa. 13:30ean herri buelta Zubietako joaldunek alaiturik. 14:00etan zikiro jatea. 16:30ean dantzaldia Hauspolarien eskutik. 21:30ean gazte afaria. 00:00etan DJ Kapitan general eta 06:00etan gosaria gautxoriendako.

Ekainak 19, igandea, azken eguna. 12:00etan meza nagusia. 17:30ean herri kirolak. 20:00etan sarien zozketa eta bestak akitzeko 22:00etan 'Gaixoa nil'.



Bi erreginak dantzan saratsen koplen erritmora. ONDIKOL

Erreginak eta saratsak ospatu dituzte Arraiozen maiatzeko azken igandean

NEREA MORTALENA

Urtero bezala, maiatzeko azken igandean Erregina eta saratsak ospatu dituzte Arraiozen. Ohiturak dioen bezala, bi erreginek saratsen koplen kantuen laguntzarekin, dantza egin dute.

Aurten, Nahia Lazkano eta Olatz Bergara izan dira erre-

ginak. Saratsak, aldiz, Aiora Arraztoa, Alaitz Urrutia, Uxue Viela, Anne Iturralde, Olaia Gamio, Ainara Zubigarai, Irati Gamio eta Lide Larnagarai.

Gaur egun, saratsek baserri-tar jantzia, blusa xuria eta zinta urdina paratzen dute. Erreginek, berriz, soineko xuria, zinta eta lorez egindako koroa.

Elizondo-Donztebe arteko bide berdea eginen du gobernauk

Nafarroako Gobernuak bide berdea egiteko UGEpa onartu du. Bideak 15,3 km izanen ditu eta Elizondo, Arraioz, Oronoz, Oiategi, NARBATE, Legasa eta Donztebetik pasako da, Bidasoko trenbide zaharra segituz. 1,6 milioi euroko aurrekontua izanen du proiektuak.

Lanbide eskola bat eraikiko dute Oronoz-Mugairin

Nafarroako Gobernuak Lanbide Heziketako ikastetxea eraikitzeko proiektuaren idazketa baimendu, 19 milioi euroko aurrekontuarekin. Oinarritzko Lanbide Heziketako, Erdi Mailako, Goi Mailako eta Lanbide Heziketa Bereziko hamabi ziklo eskainiko ditu.

Ikastolak hurrengo ikasturterako curriculum bilketa abiatu du

TTIPI-TTAPA

2022/2023 ikasturterako lan poltsarako curriculumen bilketa eginen du Baztan Ikastolak. Ekainaren 17an, ortziralean, irekiko da epea eta 24ra arte bidaltzen ahalko dira curriculumak.

Magisteritzan Haur Hezkuntza zein Lehen Hezkuntzako diplomatura edo gradua eskatuko da, baita hauen berezitasun zein aipamenak ere (hezkuntza berezia, atzerriko hizkuntza, musika, gorpuztze heziketa...).

Curriculumak posta elektronikoz baztan@baztangoi-kastola.com helbidera bidali beharko dira eta gaian Curriculum-Magisteritza/Espezialitatea adierazi beharko da.

Udako Jostaldia Euskaraz antolatu du bertze urte batez Euskara Zerbitzuak

TTIPI-TTAPA

Baztango Euskara eta Gizarte Zerbitzuek udako jostaldiak antolatu dituzte bertze behin, Dindaia fundazioarekin. Bi herritan izanen da; Erratzun uztailearen 4tik 15era eta Elizondon abuztuaren 1etik 12ra. Astelehenetik ortzirralera egingen dituzte jostaldiak, 10:00etatik 13:00etara, eta 3-12 urte bitarteko haurrei egonen dira zuzenduak.

Izena emateko epea ekainaren 13an ireki zuten eta 20ra arte luzatuko da. Plazak mugatuak izanen dira eta lehen-



LABUR.EUS/BAZTANUDAKOJOSTALDIA

tasuna lau aste egingen dituztenek eta Baztanen erroldatuak daudenek izanen dute. Informazio gehiagorako edota izena emateko *dindaia.eus* webgunea dago eskuragarri.



NEREA MORTALENA

Hiru arraioztarrek jaunartzea egin dute

Ekainaren 5ean jaunartzeak izan zituzten Arraiozen. Aurten, bi neskek eta mutiko batek egin dute jaunartzea. Ezkerretik hasita, Alaitz Urrutia, Eiger Iturralde eta Aiora Arraztoa. Denbora lagun, egun polita pasatzeko aukera izan zuten. Zorionak hiruroi!



NAFARROA BERRIZ ALTXA

Giro ederra izan dute Amaiuraldian

Ekainaren 5ean Amaiurko gaztelua izan zenaren oinean duela 500 urteko gertaerak gogoratu zituzten, burujabetzaren aldeko aldarrikapenekin. Nafarroa Berriz Altxa ekimenak antolatu zuen, baztandarrekin auzolanean. Eguzkia, musika eta giro zoragarria izan zituzten egun osoan.

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROTZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harriian.com www.harriian.com

HARRI LAN, S.L.
HARRIEN MANTENTZIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

JOSEPHINE'S
20 ENGLISH 13
BAZTAN

Lokali berria!
Pedro Auztar kamik, 2. Elizondo

TALDEAK
Lehen hezkuntza 5. mailatik goiti
DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)

Matrikula irekita
abuztuaren 31ra arte

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com



'Hotza bazkatzen' lanarekin aurtengo Donostia Kultur Poesia saria lortu du Igoak. IZASKUN IGOA

«Poesiak bizitzaren alde ikusezin eta eder batekin erlazionatzen nau»

IZASKUN IGOA JAIMERENA ZIGAKO GAZTEA

Baztango poeta gaztea da Izaskun Igoa. Hainbat lehiaketetan parte hartu du, eta aurtengo Donostia Kultur Poesia saria lortu du 'Hotza bazkatzen' lanarekin

R. OSKARIZ ZIGA

Bere burua aurkeztea «bate-re erraza» ez dela aitortu badu ere, «gauza xumeak maite dituen eta detaile ttipiei arreta paratzen dien norbait» da Izaskun Igoa Jaimerena (Ziga, 1995). Poesia idaztea eta leitztea gustuko du, eta aurtengo Donostia Kultur Poesia Lehiaketa irabazi zuen martxoan, *Hotza bazkatzen* lanarekin. Orain, bere lana liburu bihurtu du Balea Zuria argitaletxearekin batera. Maiatzaren 26an kaleratu zuen liburua.

Noiz hasi zinen poesiaren munduan?

Institutuko garaian hasi nintzen. Hirugarren DBHn poe-

sia landu genuen euskarako ikasgaietan eta etxean poemak idatzi behar izaten genituen. Poemak idatzi bezala, lagun batek eta biok elkarri deitzen genion gure poemak errezitatzeko. Ikaragarri motibatzen nintzen horretan eta telefono dei haien oroitzapen arras ederrak ditut. Ondoko ikas-turtean ere nahiko idatzi genuen bai euskarako ikasgaietan baita gaztelanian ere.

«PENTSAMENDU, EMOZIO ETA HAUSNARKETAK IDATZI DITUT»

Poesiara hurbiltzen hasteko abiapuntua garai horretan kokatuko nuke.

Markatu zaituen lan edo autorik izan al duzu?

Hemeretzi urterekin lagun bati poesia leitzen hasi nahi nuela aipatu nion, berak ohitura baitzuen poesia leitzeko eta idazteko eta aspalditik harreman berezia zuelakoz poesiarekin. Orduan, postaz Pako Aristiren *Urari ostuta-*

«ORDUAK PLAZEREZ DEDIKATU DIZKIOT LIBURUARI»

ko poemak liburua igorri zidan. Liburu hori poesian bigarren hasmenta izan da niretako.

Donostia Kultur Poesia saria irabazi duzu aurtengo. Parte hartu al zenuen noizbait horrelako lehiaketaren batean?

Bai, aitzineko urtean Iruñeko Udalak antolatzen duen Egile Berrien lehiaketa parte hartu nuen. Horren aitzinetik, deus irabazi ez dudana lehiaketa pare batera ere aurkeztu izan naiz.

Zergatik erabaki zenuen aurkeztea?

Poesia eta literatur lehiaketak Jon Barberenarengatik eza-gutu nituen. Iruñea Hiria saria irabazi zuenean, zerbait arras berezia sentitu nuen. Arras kontent nintzen inguruko norbaitek halako sari bat irabazi zuelakoz eta poesia idazten zuela jakiteak zerbait piztu zidan barnean. Hor pentsatu nuen lehenbiziko aldiz nik ere horrelako zerbait egin nahi nuela. Batzuetan, inguruan norbait zerbait berria egitera ausartzen denean, bertzendako ere aukera hori sortzen du.

Nola hartu zenuen irabazi izana?

Arras kontent paratu nintzen. Berria telefonoz eman zidaten, eta egia erran emozio-natuta eta pozez ezin kabiturik nintzen. Ilusio haundi-haundia egin zidan saria irabazteak.

'Hotza bazkatzen' lana aurkeztu duzu. Nolakoa izan da sormen prozesua?

Sormen prozesua urte pasakoa izan da, mantso-mantso egina. Inspirazioa alderdi aunitzetatik etorri zait, batez ere naturatik. Tristeia bada ere, ez dakizkit arbola aunitz bereizten baino aunitz inspiratzen naute, bertz elementuekin batera: musika, bertz idazleen hitzak eta batez ere, jende artean bizitako elkarriketa eta eguneroko arruntak. Parean pasatzen denari adi begiratu eta entzun ahal izateak inspiratzen nau.

Zerbait kontatu nahi izan duzu lan honekin? Edo barnea husteko modu bat bertzerik ez da izan?

Pentsatzen dut zerbait sortzen denean beti barnea husten dela, sortutakoa zeure buruari buruz ez bada ere. Sortutakoa edozeinen esku da goenean, zerbait hustu duzula ere sentitzen ahal da; zure izateari uzten dio. Ez dakit arras ongi laburtzen kontatu nahi izan dudana, baina hemen saiakera bat: kasik kontrako bi denboretan bizi garela iruditzen zait, naturaren denborak eta denbora modernoak. Lehenbizikoan gauzek iraupen bat dute, baina denbora modernoan iraupen horiek aunitz laburtu ditugu. Guk baditugun aparatu aunitzek denbora *aurrezten* digute, eta horrela egun batean gero eta gauza gehiago egiten ahal dira. Denboraren nozioa erabat aldatu zaigu eta harreman diferentea sortu dugu denborarekin. Ez dakit arras ongi moldatzen garen zerbaiten esperoan egoten, adibidez. Bi denbora horien artean bizitzeak sortu dizkidan pentsamendu, emozio eta hausnarketak biltzen saiatu naiz.



Maiatzaren 26an aurkeztu zuen Igoak 'Hotza bazkatzen' liburua. UTZITAKOA

Hotza bazkatzen. Zergatik paratu diozu Baztango erranairu baten izena lanari?

Eguberrietan, lana akitzen ari nintzenean, Baztango Euskara Zerbitzuak *Baztanen nola?* izeneko joko bat sortu zuen, bideo sorta bat. Horietako batean *hotza bazkatzen* erranairua agertu zen eta segidan nire lanarekin lotu nuen. Etxera deitu nuen, erranairu horri buruz eta bertze batzuek erran nahi

zutenari buruz galdetzeko. Horrelako jokoek, jokoaz gain gero elkarriketa politikak sortzen dituzte. Hotza pasatzen ari direnei erraten zaie, eta nire ulerkeratik bederen, absurdoa da kanpoan hoztuta egotea, horretarako beharrik ez badago sorik. Egungo bizimoduan, zenbait emozio, pentsamendu edo hausnarketak elikatzen egotea ere pixka bat absurdoa izaten ahal da batzuen begietara.

Poesiak liburu batean bildu dituzu orain. Lan handia izan da?

Lana izan da, baina zerbait gustuz egiten denean, ez da halako lan haundiaren sentsazioa gelditzen. Orduak dedikatu dizkiot plazerez. Kasu honetan, erabakia hartu nuen eta banekien poema hauek jendearekin elkarbanatu nahi nituela. Lan hau egitearen plazera irakurlearen eskuetara ailegatzea nahi nuen.

Beraz, emaitzarekin kontent?

Bai, arras.

Non lor daiteke liburua?

Elizondon, Axular eta Nafarpresen dago. Hemendik kanpo, hainbat liburu-dendatan egonen da.

Etorkizunera begira, poesiarekin segitzeko asmorik duzu?

Bai, segitu nahi dut. Eginez ikasten dut eta eginez lotu naiz poesiari eta poesia idazten dutenei. Bizitzaren alderdi ikusezin eta eder batekin erlazionatzen nau poesiak, eta pentsatzen dut bertze jende aunitz ere, baina nik bederen horren beharra izaten dut. Beraz, dudarik gabe, bai. Ez dakit zein formatan, baina poesiarekin segituko dut.

UDAKO JOSTALDIA

EUSKARAZ

2022

3-12 URTE

ERRATZU Uztailaren 4tik 15era

ELIZONDO Abuztuaren 1etik 12ra

Astelehenetik ortziratera, 10:00etatik 13:00etara

Izen ematea: **Ekainaren 13tik 20ra** | www.dindaia.eus

Info +: 948 266 240

<https://labur.eus/BaztanUdakoJostaldia>

Info +

PREZIOA

BAZTANEN ERROLDATUAK. Arrunta:

1 aste: 35€ | 2 aste: 70€ | 3 aste: 105€ | 4 aste: 140€

Familia ugariak, guraso bakarrekakoak eta haurride batek baino gehiagok izena eman baldin badu:

1 aste: 30€ | 2 aste: 60€ | 3 aste: 85€ | 4 aste: 110€

BAZTANEN ERROLDATURIK EZ DAUDENAK: 55€/astea

Antolatzaileak:



150 lagunek afaldu zuten bestetako lehen gauean. MAIALEN IANTZI



Umorezko herri kirolak izan ziren larunbatean. MAIALEN IANTZI

Giro ederrean joan dira aurten ere Berroetako bestak

Ekaineko lehen ortziraleko altxaferoaren eta txopo goratzearen ondotik, lau egunez gozatu ederra hartu zuten

MAIALEN IANTZI

Ezin hobeki atera dira aurten-go Mendekoste bestak Berroetan, ekaineko lehen aste hon-darrean. Ortziralean hasi ziren eta jendetza ikaragarria bildu zen herrian. Altxaferoaren eta txopo goratzearen ondotik, 150 lagunek afaldu zuten herriko frontoian eta ondotik, jende andana hurbildu zen Trikidantzekin dantzatzera eta besta girora.

Baina hurrengo egunetan ere, giroa mantendu zen. Larunbatean, gazteek Aizkoan bazkaldu zuten eta txarangak alaitutako arratsaldeaz goza-

tu eta umorezko herri kirolak ikusteko aukera izan zen. Gauez, herriko plazan egin-dako lehiaketako paella afaldu ondotik, erromeria taldearekin dantzarik ez zen faltatu.

Igandeko egun handian ere ekitaldi andana bat izan zin, giro lasaigoan gozatzeko: erraldoiak, pilota partidak...

Akitzeko, astelehean, 48. Bizikleta itzulua eta gero, ziki-ro-jatea izan zen; 70 herritar elkartu ziren eta berriz ere frontoia musikaz bete zen.

Egindakoarekin kontent, heldu den urtera esperatu behar orai!



Ttikienek erraldoiekin jostatzeko aukera izan zuten igandean. MAIALEN IANTZI



Berroetako 48. txirrindulari itzulua izan zuten astelehenean. MAIALEN IANTZI

IBARDIN	BEHOBIA	LUZAIDE	DANTXARINEA	EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
31780 Bera	20305 Irun	31660 Luzaide	31712 Urdax	

www.venta-pelio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK:

- etxeak
- landetxeak
- lokalak
- komertzioak
- enpresak

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)



Dantxarineko Merkatarien Elkarteko Txomin Iribarrenek eman zion txekia Lecroq-i.

Pentekoste eguna gogoz ospatu dute Dantxarinean

Ekainaren 6ko ospakizuna borobiltzeko, auzoko bentetan gastatzeko 1.500 euroko txekia Michele Lecroq-i egokitu zaió

ARANTXA ETA IRAIA

Besten ondotik ohitura den modura Pentekoste eguna ospatu zuten ekainaren 6an Dantxarinean. Goizean, haurrendako jokoak, euskal dantzak, herri kirolak, eta bukatzeko txotx sagardoa eta pintxoak izan zituzte. Horrez gain, Dantxarineko bentetan erabiltzeko 1.500 euroko txekia zozketa egin zuten eta Michele Lecroq-i egokitu ziztzaion.

Ospakizun historikoa

Egun hau gogo berezi batekin hartu dute aurtengoan. Pen-

tekoste besta betidanik Dantxarineko bi alderdiak elkartu dituen besta izan da. Hainbat egoera zailek ere ez zuten besta hau gelditzea lortu, gerra zibilean eta ondorengo urte zailetan ere ospatu zelako. 2020an eta 2021ean, aldiz, Covid-aren pandemiak besta hau lehenbiziko aldiz gelditzea lortu zuen eta bi urtez segidan Dantxarinean Pentekoste eguna isil eta tristea bilakatu zuten. Aurten, ordea, inoiz baino gogo gehiagorekin hartu dute Urdazubi eta Ainhoa, Nafarroa eta Lapurdi, bat egin dituen herriko besta hau.



UTZITAKOA

Kobazuloen Eguneko aurkezpena herrian

Lurpea taldeak antolatutako Kobazuloen XII. eguna ospatu zen ekaineko lehen aste hondarrean Euskal Herriko leizeetan. Egun horren aurkezpena Urdazubin egin zuten. Aitzinera begira, Ikaburuko leizearen eguna uztailaren 16an ospatuko dute, ohiko egitarauarekin.

Arkaitz Etxegaraik lehen jaunartzea egin du

Joan den urteko data aldaketa anitzen ondotik, aurten jaunartzeek beren jatorrizko data hartu dute berriz. Ekainaren 4an, larunbatarekin, herriko jaunartzea ospatu zen, ume bakarrarekin: Arkaitz Etxegara Alzuyet. Bakarrik bada ere, ospakizuna ederra izan zen.



UTZITAKOA

Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ERRAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21

KATEA BIKE

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Sara Oinez antolatu du Har Hitzak ekainaren 26rako

26 kilometro luze duen ibilbidea euskaraz egiteko gomita egin du elkarteak eta parte hartzeko 12 euro galdeginen dira

GANEX

Har Hitzak elkarteak Sara Oinez mendi ibilaldia antolatu du ekainaren 26rako. 26 kilometro luzeko ibilbidea proposatu dute, 1.440 metroko desnibela duena. Izen emateak Lurberri gelan egin beharko dira ekaineko azken igandean, 06:30etik 08:00etara eta irteera 07:00etatik 08:00etara eginen dute mendizaleek. Parte hartzeko 12 euro galdeginen dira.

Ibilbidea

Saratik abiatuta, Xominen bordako ardi-bordatik Iturriadarreta eta Atekaleun igan ondotik, Lizuniagako lepora jautsiko dira ibiltariak. Bertan izanen dituzte lehen jan-edariak. Urdakoitzen barna Lizarietara igoko dira eta segidan Nabarlatsen izanen dute bi-



Mendizaleak bertze edizio batean.

garrenez jan-edatekoak. Larreko borda eta Plaxidon borda pasatuz, Borddakobordan ura izanen dute eta handik berriz Sarara joanen dira eta Lur Berrin jatekoak eta edatekoak izanen dituzte.

Antolatzaileek aipatu duteenez, osasun postuak jarriak izanen dira eta ez da inolako sailkapenik egonen, ez baita lasterketa bat. Itzulia euskaraz egiteko gomita ere egin du Har Hitzak elkarteak.

Zangoak Arin taldekoek Oltzartera txangoa

Zangoak Arin taldeko 18 kidek Larraineko Oltzarte pasabidera ateraldia egin zuten maiatzaren 31n. Haraterakoan, Atharratzen egin zuten gosari ttikia, gero pasabidea bisitatu, Iratin ogitartekoak jan eta Saint Sauveur kapera bisitatu zuten. Bidarraiko Noblian tragoa egin eta itzuli ziren.



GANEX



UTZITAKOA

Aurtengoan Longevillen bisitari

Badu orai urte batzuk, Longeville (L'Vendeé), Oberhergheim (Alsazia) eta Sara (Euskal Herria), hiru herri horiek elgarretaratzen direla, bi urtean behin kultur elkartrukea egiteko. Aurtun L'Vendeé eskualdeko Longevillen izan dira maiatzaren 26tik 29rat. Saratik 19 lagun joan ziren.

Haira Aizpuruak irabazi du bertsolari gazteen txapelgoa

Itsasun jokatu zen ekainaren 4an Iparraldeko Eskolarteko Bertsolari Gazteen Txapelketa. Hirugarren urtez segidan irabazi du Haira Aizpurua sara-tarrak txapela. Ekainaren 18an Iurretan jokatu den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa-ko finalean izanen da.



Aizpurua txapeldun hirugarrenez.



GANEX

Olhain ikastolaren sagarno besta

Ereiaroaren 5ean egin zuen bere besta eguna Olhain ikastolak. Jendea bazen, 200 bat heldu eta 50 bat haur. Bazkari ederra izan zuten ikastolako burasoekegina eta zerbitzatua. Gauero taldeak dena ongi airostu zuen, euskal kantekin, haurrak puzgarrietan jostatu ziren eta DJBullek jarri zuen musika.



Ganibet-egileen tresnak eta lanak ikusgai izan ziren. JL BESSONART

Komunioak eta Kanita Urrats Salbatore Egunean

Hemezortzi haurrek egin zuten lehen jaunartzea eta hamabortz ganibet-egileren tresnak ikusgai izan ziren azokan

JL BESSONART

Zeruko hodeiek ez zuten euririk bota eta hori garrantzitsua izan zen Salbatore Eguneako ospakizunak ongi burutzeko.

Goizean jendalde polita bildu zen elizan, kartsuki eta kantuak ozenki emanez. Hemezortzi haurrek bere lehen komunioa zuten eta, hauekin batera, familiek eta adiskide anitzek, baita herritar frangok ere, beraien lekukotasuna erakutsi zuten.

Kanita Urrats

Elizatik jauzi batez pilota plazan ginen, hemen iragan bai-

tzen Kanita Urrats, bigarren aldikotz, herriko etxeak antolatuz. Bazen zer ikus eta eros, hamabortz ganibet-egilek beraien eskuz eginiko tresnak aurkeztu zituzten, eta bertze artisau anitz ere hurbilduak ziren beren produktuak proposatzeko. Iduriz, eguerdi inguruan hurbildu zen jende gehiena. Halere, egunean zehar, publikoak ongi erantzun zuen, hauen artean ganibeta artisauen zaleak, aski urrondik etortzen direnak horrelako ekitaldietara. Dударik gabe, ekimen honek merezi luke erreberritzea.

Ortzadarra elkartearen erakusketa zabalik

Herriko Ortzadarra elkarteak margolariek eta zizelkariak, urtean zehar tailerretan egin dituzten obrak ekainaren 13tik 20ra erakusten dituzte Larreko harrera gelan. Egunero idekia da, igandeaz kanpo, 10:30etik 12:30era eta 16:00etatik 19:00etara, urririk.

Uda jokoetan parte hartzeko deia herriko gaztetxoei

Aintzirak eskaintzen dituen jokoetan parte hartzeko 9 eta 16 urteko herritarrek izena eman behar dute ekainaren 17rako (05 59 54 58 21). Jarduerak iragarriak dira astelehen, asteazken eta ortziraletan, 10:00etatik 12:00etara. Astearen prezioa: 20 euro.

Antzerkia ezagutzeko, ikasteko eta ikusteko aukera izanen dute Larrekon

Kixka Théâtre antzerki taldearen eskutik haur eta helduei zuzendutako antzerki tailerrak egingen dituzte **ekainaren 19an**, igandean, Larreko kultur gunean, Guy Foissy eta J.P. Alègreren omenez. 16:30ean sorkuntza izanen dute, haurren Kixka Antzerki tailerraren eskutik. 17:00etan ekitaldi bateko antzerkiak prestatuko dituzte oren eta erdiz, helduen tailerraren eskutik.

Ekainaren 30ean eta uztailaren 1, 2 eta 3an, berriz, Scaramuccia antzerki elkarteak haren urtea *Passons aux actes*



Antzerki tailerra izanen dute.

festibalarekin bukatuko du. Antzezle amateurrek, heldu ala gazte, hilabete luzeetan egindako lana erakutsiko dute eta zortzi ikusgarri taularatuko dituzte.



Lokarri abesbatza Larrekon kantari. JL BESSONART

Lokarri abesbatzaren emanaldi bikainak entzuleak loriatu zituen Larrekon

JL BESSONART

Ezin daiteke Donibane Lohizuneko eta Ziburuko kantariak biltzen dituen Lokarri abesbatza taldeari buruz hizno bat eman gabe egon. Hauen agerraldi ederrak, maiatzaren 28an, mututurik utzi zituen entzuleak, amateurrek izanik ere, goi-mailarekin topo egin baitzuten. Eskusoinu eta bi gitarrek kantu gehienak lagundu zituzten baina tarteka *a capella* ere aritu ziren, publikoa loriatuz. Euskaraz kantatu zuten gehienik, baina baita kortsilarrez, italiarrez eta gazteleraz ere plazaratu

zuten beraien erreperitorioa. Kantu ezagun anitz, beraiek harmonizatuak, frango lau ahotsetan. Emanaldia bururatzekoan jakin zuten publikoa parte har arazten ere.

Beti errana da «hainbat gaizto falta direnzentzat» eta hala egiaztatu da. Haatik bertze aukerak ere izanen dira donibandar eta ziburutar kantari hauen entzuteko. Batzuen estakuruetan, larunbat arratsuan, errugbia eta futboleko Europako finalak telebistan emanak ziren, baina ez daki-te ongi zein ikuskizun galdu zuten.



Sarako basurdeak eta jarraitzaileak Elorrión, liga irabazi ondotik.

Sarako Izarra errugbi taldea euskal ligan txapeldun bigarrenenez

Maiatzaren 28an Elorrión (Bizkaia) jokaturako finalean luzapenean puntu bakarragatik irabazi zion etxeko taldeari

GANEX SARA

Handia egin du Sarako Izarra errugbi taldeak bere sorreraren 50. urteurreneko ospakizunetan murgildurik dabilenean. Ligan doi-doi sailkatu zen lau onenen artean, gehien bat azken sei partidak segidan irabazi zituelako. Finalerdian Arrasate kanporatu zuen, bai Saran baita Arrasaten ere irabazita eta finala Betsaide-Elorrioren kontra jokatu zuen, Elorrión bertan (Bizkaia) maiatzaren 28an. Lehia estua izan zuten, ikusgarria. Arauzko 80 minutuak bukatutakoan hamarna berdinduta bukatu zuten eta luzapenean, Elorriokoak aitzinetik paratu ziren entsegu batekin (15-10). Ostiko batekin hurbildu ziren saratarrak (15-13) eta azken minutuan gauzatutako bertze ostiko batekin, puntu bakarrarengatik irabaztea lortu zuten basurdeek (15-16), Saratik autobusean hurbildutako zaleen gozamenerako. Honela, bi urtez segidan lortu du euskal liga irabaztea Sarako Izarrak. *Martin eta Iban beti gurekin!* zioen pankarta ere eraman zuten Elorriorat.



Lehia estua izan zuten finalean.

Emakumeak ere errugbian

Lehen aldikotz senior neska talde bat ere antolatua da Sarako Izarra errugbi taldean eta ekainaren 4an jokatu zuen lehen matxa Animainean, adiskidetasunean, Bizkaiko Durango taldearen kontra. Hasi berriak direla kontuan hartu behar da, 0-75 galdu zuten, baina badute gogoia eta bertutea: fite altxatuko dira bertzeen mailarat, hartu kuraia neskak! Goizean, Sarako eta Durangoko errugbilari gazte-txoer arteko topaketa ere egin zuten, 8 urtez beheitikoetatik hasi eta 14 urtez beheitikoak bitartean.

50. urteurreneko besta uztailearen 14ra gibeleratu dute Sarako Izarra errugbi taldeak.



UTZITAKOA

Baztan Rugby Taldearen Eguna

Baztan Rugby Taldearen Eguna ospatu zuten maiatzaren 28an. Zazpiko errugbi txapelketan txapeldunorde izan zen BRT, finala Zarautzen kontra galduta (21-27). Mikel Gorostidi gaztea izendatu zuten txapelketako jokalaria onena eta Iñaki Ezkurra entrenatzailea omendu zuten.



UTZITAKOA

Hodei Lujanbio garaile VII. Intxixu Trailen

VII. Intxixu Trail lasterketa egin zuten ekainaren 5ean Oiartzunen. 16 kilometroko lasterketa burutzen bizkorrena Hodei Lujanbio goizuetarra izan zen (1.19.06), bigarren Legorretako Aitor Zunzunegi (1.19.07) eta hirugarren Manttale taldeko Asier Apezetxea aranaztarra (1.20.33).



Jaouad Boualane helmugara garaile ailegatzan 2019ko edizioan. ERREKA KE

Doneztebeko 42. Herri Krosa ekainaren 26an

Erreka elkarateak antolatutako proba nagusian 7.300 metro egin beharko dute korrikariek eta 150 euro izanen dute irabazleek

TTIPI-TTAPA

Bi urteko derrigorrezko geldialdiaren ondotik, Erreka elkarateak Doneztebeko udalaren eta La Caixaren laguntzarekin antolatutako Doneztebeko 42. Herri Krosa ekainaren 26an egingen dute. Izen-ematea borts euro ordaindu beharko dute jubeni-

lek eta hortik aitzinerako kategoriek, senior eta beteranoek alegia. Gazteagoenzat, berriz, debalde izanen da. Errekaren blogean (www.erreka.org) edo www.herrikrosa.eus webgunean edo ekaineko azken igandean bertan, irteeran egin daiteke, 10:00etatik 11:00etara.

Aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak 10:30etik aitzinera aterako dira. Kadeteak, jubenilak, seniorrak eta beteranoak, berriz, 11:30ean.

Distantziei dagokienez hauek izanen dira: maila berezia: 75 metro; aurre-benjaminak: 420 m; benjaminak: 420 m; alebinak: 820 m.; infantilak: 1.220 m; kadeteak: 1.825 m; jubenilak eta senior eta beteranoen lasterketa motza: 3.650 m. Senior eta beterano lasterketa luzea 7.300 m.

Sailkapen orokorrean, proba luzeko gizon nahiz emakume irabazleek 150 euro jasoko ditu; bigarrenek 90 euro; hirugarrenek 60 euro. Urdaiazpiko bana ere izanen da lasterketa luzeko herriko lehenengo gizonezko eta emakumearentzako.

2019an egin zen 41. edizioa eta orduan Jaouad Boualane (23.24) eta Majida Maafouf (27.11) nagusitu ziren.

Errekaren Egun zirrarragarrian pilak kargatu ondotik dator elkaratearen bertze hitzordua. Belauna xehetuarekin ere, bertan izan zen Niko Mingedia ere, bere ttikitako klubari sustengua emanez eta dion atxikimendua adieraziz.

Nafarroako XVII. erremonte txapelketa Iruritan hasi da

TTIPI-TTAPA

Euskal Jai erremonte fundazioak antolatutako Nafarroako Foru Komunitatearen XVII. Erremonte txapelketako lehen partida ekainaren 11n jokatu dute Iruritako Aranabian. Xanti Uterga doneztebarra eta Agirrezabala, Eloy Otxandorena doneztebarraren eta Otanoren kontra aritzekoak ziren. Ortzirale honetan ere, **ekainaren 17an**, eskualdean jokatu dute bigarren jardunaldia. Zehazki, Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan ariko dira Otxandorena eta Otano, Aimar Jabalera doneztebarra eta Barricarten kontra, ortziralean 19:30ean hasita.

Elizondon uztailaren 24an

Hiru bikote hauez gain, Zeberio II.a eta Aimar Saldias oiztarra, eta Matxin III.a eta Ion ariko dira txapelketa honetako final laurdenetako ligaxkan. **Ekainaren 26an** Lekunberrin, **uztailaren 2an** Garesen, **uztailaren 22an** Irurtzunen, **uztailaren 23an** Vianan, **uztailaren 24an** Elizondon, **uztailaren 29an** Tafallan, **uztailaren 30ean** erabaki gabeko lekuan (ez bada bertzerik Tafallan bertan egingen dute) eta **abuztuaren 7an** Fustiñan jokatu dute final laurdenetako bertze norgehiagokak. Lau bikote onenek finalerdiak jokatu dute **abuztuaren 11n** Agoitzen eta **abuztuaren 20an** Ilunberrin eta irabazleek finala **abuztuaren 28an** Zubirin.

Aipatzekoa da jaialdi guztietara sartzeko 5 euro eskatuko direla sarreran eta dena oso-osorik ADANO elkartera bideratuko dute.

Joan den urtean Uterga eta Otano suertatu ziren txapel-dun, finalean Otxandorena eta Azpirozi irabazita.



AITOR AROTZENA

Beti Gazteko jubenilak euskal ligara igo dira

Gipuzkoako ohorezko mailan txapeldunorde izan ondotik, Arabako eta Bizkaiko txapeldunordeen kontra euskal ligara igotzeko txartel bat jokatu zuten Beti Gazteko jubenilek ekainaren 4an Mastegin eta lesakarrak nagusitu ziren.

AGENDA

EKAINAK 16 - 30

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARIZKUN ROCK

ARIZKUN Arizkun Rock jaialdia

Kontzertuak, bokatak eta kanpalekua.

Plazan, ekainaren 24an. 17:00etan Drunken Barrels, 23:00etan The Lio, Skakeitan eta Tirri&Tery.

MUSIKA

LESAKA

Organo eta bakarlarien kontzertua

Lesakako Roques Organoaren Lagunen Elkartearen eskutik. Elizan, ekainaren 19an, 19:00etan.

Lesakako Soinulari Taldearen kontzertua

Alondigako arkupeetan, ekainaren 27an, 20:00etan.

IRURITA

Baztan Kantuz

Plazan, ekainaren 19an, 12:00etan.

ARIZKUN

Arizkun Rock jaialdia

Plazan, ekainaren 24an, 17:00etan.

BERA

Satelitik taldearen kontzertua

Larungo Kaiolan, ekainaren 25ean, 16:00etan.

DANTZAK

BERA

Baztango Gaita Dantza ikastaroa

Baztandarrak dantza eskolarekin. Eztegarra pilotalekuan, ekainaren 18an, 10:00etan.

ARANTZA

Mutxikoak

Plazan, ekainaren 25ean, 18:00etan. Eguraldi txarra eginez gero frontoian.

TAILERRAK

ARANTZA

Sendabelarren ikastaroa

Laura Gurbindorekin. Ekainaren 16an, 16:00etatik 20:00etara.

SENPERE

Antzerki tailerra

Kixka Théâtre taldearen eskutik. Larrekon, ekainaren 19an, 16:30ean haurrentzat eta 17:00etan helduentzat.

ELIZONDO

Ametsen kutxak

Haurrendako tailerra. Baztango Liburutegian, ekainaren 29an, 11:00etan. Izen ematea ekainaren 28ra arte kultur etxean.

IBILALDIAK

GOIZUETA

Artikutzara ateraldia

Arainburu Mendi Taldearen eskutik. Plazatik, ekainaren 18an, 06:45ean.

SARA

Sara Oinez

Ekainaren 26an.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, ekainaren 18an eta 25ean, 10:00etatik 14:00etara.

LEITZA

Mendialdeko Azoka Ibiltaria

Plazan, ekainaren 19an, 10:30etik 14:00etara.

ERRATZU

Baztango Artisauak

Plazan, ekainaren 26an, 11:00etatik 15:00etara.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Nafarroako Ostalaritzaren Historia 25 emakumek kontatua

ANAPHE elkartearen eskutik. Arizkuneko lehenbiziko solairuan, apirilaren 25etik ekainaren 26ra, astelehenetik ortziralerara 18:00etatik 21:00etara.

Hondarribiko txokoak

Emeki Margo Bildumaren eskutik. Arizkunenean, ekainaren 13tik 29ra, astelehenetik igandera 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

SENPERE

Arte erakusketa

Ortzadarra elkartearen eskutik. Larreko harrera gelan, ekainaren 13tik 20ra, astelehenetik larunbatera 10:30etik 12:30era eta 16:00etatik 19:00etara.

BERA

Larungo irudiak

Nerea Bilbaoren erakusketa. Larungo Kaiolan, ekainaren 25etik aitzinera.

JARDUNALDIAK

DONEZTEBE

Futbol Taldearen eguna

Futbol partidak, mus txapelketa, afaria eta gaupasa. Ekainaren 18an.

NIRE AUKERA

«Kontzertuek pertsona bezala garatzen lagundu didate»

AINHOA ZABALETA IRIBARREN 'GABEZIN' TALDEKO ABESLARIA



«26 urteko Goizuetako gaztea» da Ainhoa Zabaleta, «animaliak, esku pilota eta musika» gustuko dituen. Duela 13 urte hasi zen Gabezin taldean abesten, eta hainbat plazetako oholtzen gainean ibili da kantari.

Ttikitatik musikarekin

«Betidanik» gustatu izan zaio musika eta ttikitan Aralar Musika Eskolan solfeoa ikasi zuen. Abestea gustuko du baina pianoa, gitarra eta panderoa jotzen ere ikasi du. 2009an, 13 urte zituela, Gabezin taldean hasi zen kantatzen eta panderoarekin. «Taldea sortua zegoen dagoeneko eta musika eskolak antolatutako topaketa batean eza-gutu nituen gaur egun nire taldekideak direnak».

Geroztik, herriz herri eta plazaz plaza ibili dira jendar-

tea alaitzen. «Esperientzia oso aberasgarria izan da, kontzertuei esker Nafarroako zein Euskal Herriko herri pila bat ezagutu ditut, bertako ohiturak eta kultura, lagun asko egin ditut bidean eta bizipenei esker pertsona bezala garatu naiz. Ez baita festa soilik, ordu eta lan asko daude honen atzetik».

Txarrenari onena ateratzen

Azken bi urteak «oso gogor-rrak» izan dira erromeria taldeentzat; «gure formatua jai herrikoien menpe dago eta hauek antolatu ezin ziren bitartean ezin izan dugu kontzerturik eman».

Hala ere, «ez gara geldirik egon», orain arte beste taldeen bertsioak jo izan dituzte eta pandemiako bi urte hauek «uzta propioa ereiteko auke-

ra eman digute, abesti propioak sortzeko denbora hartu dugu 14 urteren ondoren. Lehen ez genuen horretarako astirik, beraz, zerbait positiboa atera ahal izan dugu».

Buelta plazetara

Herrietako besten itzulera «arrunt gogotsu» hartu du Zabaletak, «bazen garaia!». Poztasun handiena «herriek ere gogotsu hartu gaituztela ikustea» izan da; «lehenbiziko kontzertutik nabaritu da jendeak festarako eta erromerietarako edo behintzat plaza giroko daukan gogo».

Taldea «arrunt eskertua» dago izandako harrerarengatik; «telefonoa sutan daukagu oraindik ere eta pena haundiz ezezkoak ematea tokatu zaigu sekula baino gehiago, data librerik ez dugu-lako».

Diskoa prestatzen

14 urte eginen ditu aurtengo Gabezinek, «zeinek esan behar zigun! Gaztetik hasi ginen baina gazte mantentzen gara!» (irriz). Aurtengo haiei lehen diskoa kaleratuko dute, *Korapiloak*, eta «ekainaren bigarren edo hirugarren astean» argitaratzea aurreikusitako dute. «Gure kontzertuen isla izanen da; kalejirak, fandangoak, arin-arina, ska, reggae, rantxerak...».

«Lehenbiziko aldia da horrelako proiektu batean murgiltzen garela eta lan asko dago aurretik eta atzetik. Abestiak dioen bezala, *kantu berri bat sortzen zenbat ahalegin, zenbat buruhauste ideien atzetik*. Orain inoiz baino zentzu gehiago hartzen diogu kantari kontzertuetan abestean».

Zabaletak ez du etorkizuna begiratzen, «orain bizi eta disfrutatu nahi dugu eta datorrena datorrela, arrasto ttiki bat uzten badugu jendearen bihotzetan, gu kon-forme!».

«PANDEMIAK UZTA PROPIOA EREITEKO AUKERA EMAN DIGU»

«HERRIEK GOGOTSU HARTU GAITUZTE PLAZETAN»

ZUBIETA Bestaberri ospakizuna

Meza, musika, gazta lehiaketa eta merienda.
Ekainaren 19an.

ARANTZA San Juan suak

Afaria eta suak.
Parkean, ekainaren 23an, 20:00etan.

ETXALAR San Jaun suak

Merienda-afaria, herri itzulua joareak joz, suak, musika eta dantza.
Ekainaren 23an, 20:00etan.

LESAKA Udako solstizioko besta

Taloak, bertsoak, sua piztea, dantzak, afaria eta zozketa.
Ekainaren 23an, 19:30ean.

IGANTZI San Juan Xar

Meza, dantzak eta Biltoki Ttikiko kantina.
Ekainaren 24an, 12:00etan.

BERTZELAKOAK

BERA 'Memoria historikoa vs inpunitatea' solasaldia

Bel Pozuetarekin.
Kultur etxeko erakusgelan, ekainaren 16an 18:30ean.

ETXALAR 'Baztan Bidasoako oihan hezeak' dokumentalaren proiektzioa

Iñaki Atxaren dokumentala.
Ekainaren 17an, 19:00etan.

DONEZTEBE Doneztebeko 42. Herri Krosa

Ekainaren 26an 10:00etan. Izen ematea 'www.herrikrosa.eus' webgunean edo egunean bertan.

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

LEGASA. 104 m²ko apartamentua salgai. 3 logela, kanpoaldera, terrazarekin. Maizter batekin dago salgai, bertze bi urtetarako alokairua duena. 2021ean berritua, oso eroso eta oso gune lasaian. Prezioa: 107.500 euro. Igogailurik gabe. ☎687 63 27 37.


DONEZTEBE. Apartamentua salgai. 2 logela, egongela handia, sukaldea eta komunarekin, erdigunean. 2020an margotua eta 26 m²ko ganbara diafanoa du bainugela batekin. Prezioa: 108.000 euro. Igogailurik gabe. ☎687 63 27 37.

OIZ. Etxe adosatua salgai. 4 solairu, 275 m, garajea, 2 komun, terraza eta 342 m²ko lorategi-lursaila. Egoera ezin hobean eta oso eguzkitsua. 2010ean eraikia. Prezioa: 350.000 euro. ☎687 63 27 37.

BORTZIRIAK. Borda salgai. Deitu gaez. ☎647 58 81 63.

ELIZONDO. Braulio Iriarte karrikan apartamentua salgai, igogailuarekin. Sukaldea, egongela, jangela, bainugela eta bi logela erreka eta mendi aldera bistekin. 25 m²ko ganbara, barnetik apartamentuarekin lotuta dagoena. Prezioa: 115.000 euro. ☎678 26 84 44.

ERRENTAN EMATEKO



ALMUÑECAR. Granadako kostan, partikular batek lagun bat edo bi-erentzako apartamentua errentan emateko du, bi asterako edo hilabete osorako. Lehen lerroan, bista zoragarriak dituen terrazarekin, aire girotuarekin eta hagitz ongi hornitua. Uztaileko eta abuztuko bigarren hamabostadietan libre. ☎658 94 37 02.

ELIZONDO. Gela bat errentan emateko, 100 euro + gastuak. Pisua xarmanki dago eta gela zabala, eroso eta ongi zaindua. ☎618 40 85 14.

IRUÑEA. Arrosadia auzoan hiru logelako pisua errentan emateko. Unibertsitateko ikasleendako aproposa, borts minutura baitago Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP). Guztiz mobleztatua. ☎676 00 93 29.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Bizum bidez (erran.eus/tpv/ordainketa)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

ERRENTAN HARTZEKO

IRUÑEA. Arrosadia auzoan edo unibertsitate inguruan, lau neskek pisua errentan hartu nahi dute datorren ikasturtetik aurrera. ☎617 80 88 48.

ELIZONDO. Pisu edo etxe bila. 50 urteko emakumea, lana duena. ☎630 45 21 89.

KONPARTITUAK

LESAKA. Irailetik ekainera logela bat errentan hartzeko pisukide bila. ☎685 75 09 39.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMAN

LESAKA. Eltzeta karrikan garajea errentan emateko. ☎628 03 25 58.

SALGAI

LEITZA. Industrialdean, nabea salgai. Bi solairu eta komuna. ☎655 15 61 71.

LANA

ESKAINITZAK

BERA. Ibardingo Benta Gorrian zerbitzaria behar dute lanaldi erdian aritzeko, eguerdiko zerbitzuan. Frantses pixka bat dakiena. Bidali curriculumak bentagorria@hotmail.com helbidera edo deitu. ☎618 00 27 31.

ETXALAR HOTELEAN gaez lan egiteko atezaina behar dute, astean borts egunez lan egiteko eta bi besta egun. 00:00etatik 08:00etara. Lanaldi osoa, kontratu finkoa, eta berehala hasteko prest. Baldintza onak. Bidali curriculumak info@etxalar.com helbidera edo deitu.

etxalar.com helbidera edo deitu. ☎948 63 50 00.

ETXALAR HOTELEAN barrako eta jangelako zerbitzaria, hizkuntzak dakizkien harreragilea eta sukaldeko laguntzailea behar dituzte. Bidali curriculumak info@etxalar.com helbidera edo deitu. ☎948 63 50 00.

LESAKA. Muebles Ametsen altzariak muntatzen aritzeko pertsona bat behar dute. ☎948 63 05 37 / igor@mueblesamets.com.

ZUGARRAMURDIko landetxe batean laguntzen aritzeko pertsona bat behar dute uztailean eta abuztuan. Harremanetarako Whatsappez. ☎670 48 45 67.

LEKAROTZ. Lozy's Pharmaceuticals, goxoki farmazeutikoak garatu, fabrikatu eta ontziratzaren dituen enpresak, Fabrikazio eta mantentze lanetarako langileak behar ditu. Harremanetan jartzeko idatzi helbide honetara. xabier.aldunate@lozyspharma.com.

SUNBILLA. Ariztagain kanpnean, lanaldi osoan aritzeko esperientzia duen sukaldari euskalduna behar dute. Lan finkoa. ☎948 45 05 40.

BORTZIRIAK. IKA euskaltegiak euskara-irakaslea behar du ordezkapen bat egiteko 2022-23 ikasurte osorako. Izangaiek curriculumak bidali beharko dute ekainaren 23a baino lehen bortziarik@ika.eus edo euskaltegiako egoitzara bertaratu (Matxinbeltzenea, Arretxea 22, Lesaka).

SENPERE. Makinista bat behar dute mendiko lanetan aritzeko. ☎(0033) 676 62 69 52.

BERA. Errekalde ostatuan udan lanaldi osoan aritzeko sukaldari laguntzailea behar dute. Idatzi errekaldeostatua@hotmail.com helbidera.

ESKARIAK

Ostalaritzan eta baserriko lanetan esperientziadun mutila lanerako prest. Orduka edo lanaldi osoan. Ordutegietan malgutasuna eta autotua duena. ☎643 79 05 06.

Neska gazte bat udan haurrak zaintzeko prest, baita edozein etxeko lanetan edo klase partikular emateko ere. ☎616 35 74 39.

Jatorri nikaraguarra duen 26 urteko neska batek interna moduan adinekoak zaintzen lan egiten luke Segidan lanean hasteko prest. ☎677 36 57 93.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,91
- 1.koa 4,79
- 2.koa 4,67

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,02
- 1.koa 4,88
- 2.koa 4,77

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,86/4,96
- Zaldi-behorrak 2,18/2,35

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,10/7,20
- 8-10 kilokoak: 5,80/6,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 63 €

Zerri gizona 1,545 €

Zerramak 0,780€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua maiatzaren 27tik ekainaren 3ra bitarteko prezioak)

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK


ARANTZA
ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisonik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Border collie eta Gorbea artzain zakurren nahasketa den **txakur-kumea** oparitzeko. Bi hilabete ditu. Desparasitatu dago. **686 73 81 52 / 687 11 14 32.**

ELIZONDO. Bi urte eta erdiko artzain zakur alemana oparitzeko. Toki faltagatik eta ateratzeko denbora faltagatik. **618 69 88 35.**



Katakumeak opari. Etxe bila gabiltza. Lagun berriak egitea gustatzen zaigu, baita jostatzeko eta patxadan egotea ere. Zure etxean hartu nahi bagaituzu, deitu! **652 75 08 17.**



ITUREN. Katuak oparitzeko. Ama ehiztari bikaina. **683 27 31 65.**

SALGAI



Urteko **behoka** salgai. **619 11 68 81.**



Txerrikumeak salgai bizirik edo laborako prest. Pintoak eta lonja arrazoak. Oso politak. **690 98 61 18.**

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko sua-

rendako, etxera eramateko zerbitzua barne. **690 08 56 65.**



ETXALAR. Su egurra salgai, 1'5 metroko eta 5 metroko luzerakoak. **690 61 61 06.**



Bizikletako kasko integrala salgai. S1X S1X ONE marka, M taila. Berria, estreinatu gabe. 155 eurotan. Kaskoaren funda opari. **606 04 25 11.**



Bizikletako kasko integrala salgai. GIRO marka, S neurria. GOPRO-rentzako euskarriarekin. Oso egokia onean, gutxi erabilia. 85 eurotan. Kaskoaren funda opari. **606 04 25 11.**

ELIZONDO. Ohe artikulatua salgai. **678 59 54 34.**

MOTORRAK

SALGAI



BERA. Salgai Yamaha Racer 700 motoa salgai. 3 urtekoa. 8.700 Km. Erorketarik gabekoa. Atzeko maleteroarekin. Beti garajea altxatua. Berria bezala. **600 75 07 29.**

TAILERRAK

SANTESTEBAN
TAILERRAK

RENAULT CLIO IV 1.5 DCI 75 CV
65.900 Km. - 2017koa

www.talleressantesteban.com
DOMEZTIBE: T. 948 450 282
info@talleressantesteban.com

GANIX
Tallerra

948 63 06 69
Zalain Pol., 11 - BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

ETIKETAK eta PEGATINAK

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tppi.eus
www.kulturkari.com

ESKATU
AURRE
KONTUA

AGORLEKU

DISEINU eta INPRENTA LANAK
Hainbat neurritakoak - Itsasgarriarekin edo gabe
Elikadura-packagingerako berezia

URTEBETETZEAK




Adur Olano Loiar 9 urte bete ditu ekainaren 9an. Zorionak eta espero dugu egun ona pasa izana. Muxu bat Aner, Aiur eta Joarren partez.



Xabier Ugalde Fagoagak hiru urte beteko ditu ekainaren 29an. Aunitz urtez eta muxu haundi Arantzako eta Azpeitiko familien partetik.



Berako **Jare Iparragire** 7 urte bete ditu ekainaren 12an. Aunitz urtez, dantzari! Muxu haundi bat familia guziaren partez.



Nora Otxandorena Petrirenak 6 urte bete ditu ekainaren 4an. Zorionak etxeko printzesari. Segi beti bezain alaitu eta maitagarri. Ilargi-raino maite zaitugu!



Leitzako **Lide Urkio-la Mariezkurrenak** 8 urte beteko ditu ekainaren 19an. Zorionak June, Izargi eta Haizederren partetik. Merienda goxoa prestatu!

SORTZEAK

- **Lorea Ameztai**, Sarakoa, maiatzaren 15ean.
- **Gaia Gillet**, Sarakoa, maiatzaren 16an.
- **Enaitz Azkarate Galarregi**, Gartzaingoa, maiatzaren 24an.
- **Oihan Azkarate Galarregi**, Gartzaingoa, maiatzaren 24an.

EZKONTZAK

- **Laurant Serou** eta **Marie Santesteban**, maiatzaren 19an Saran.
- **Laurent Devalnu** eta **Helene Guterman**, maiatzaren 29an Saran.

HERIOTZAK

- **M^a Carmen Goizueta Perurena**, Goizuetakoa, maiatzaren 24an, 52 urte.
- **M^a Dolores Oronoz Oronoz**, Elizondokoa, maiatzaren 26an.
- **Felisa Maia Bergara**, Berakoa, maiatzaren 27an, 96 urte.
- **Felisa Madariaga Arruza Zabala**, Donamariakoa, maiatzaren 29an.
- **Jose Manuel Garcia Zanbrano**, Elizondokoa, maiatzaren 29an, 69 urte.
- **M^a Teresa Dorregarai Zestona**, Iruritakoa, maiatzaren 29an, 94 urte.
- **Milagros Goizueta Perurena**, Goizuetakoa, maiatzaren 29an, 81 urte.
- **Pedro Urrutia Grajirena**, Saldiaskoa, ekainaren 3an, 94 urte.
- **Luis Erbiti Arregi**, Leitzakoa, ekainaren 4an, 89 urte.
- **Jose Cano Miña**, Berakoa, ekainaren 5ean, 76 urte.
- **Maria Josefa Alduntzin Gogorza**, Leitzakoa, ekainaren 6an, 89 urte.
- **Julian Taberna Petrirena**, Lesakakoa, ekainaren 7an, 83 urte.

URTEURRENA

Aitor DANBORIENA ALZUGUREN

Etzalarren, 2016ko ekainaren 13an
VI. URTEURRENA

*Gure gau ilunak
argituko dituen izarra
buruan bueltaka dabilen
irriaren oihartzunaren islada
Gure bihotzean beti gordeko dugun
Aitor maitea izanen zara.*

ZURE FAMILIA



IZARRA
HERMI, ZURE OROGINA
JASOLA ETXERAT

Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

BAZTAN BIDASOA
Heriotza Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com


Betika taldea zu laguntzeko

HITZ GEZIDUNAK

	◆ Izena		Hoben		Harribiti mota		Barre xume		Harroin, zutabe	
	Izugarri		Guraso arra		Abx!		Lehenengo letra		Edari bizia	
	▶		▼		▼		▼		▼	
	Herri handia	▶					Antzezlarien joko	▶		
	Bertuteak						10			
Galarazi, eragotzi		Dauzka	▶	▼		Asiako estatua	▶	▼		
Emakume izena		Altu				◆ Deitura				
▶		▼			Azkena eta lehena	▶	▼	Presio unitate	▶	
					Barioa			Ibai urtegiak		
Bahetzeko tresna	▶				Baldintzetan	▶	▼	Haur hizke- ran, musu	▶	Bokala
Bortzirietako hiria					Gure planeta			Urola Kosta		Alokairua, alogera
▶				Ohoina, ebaslea	▶	▼			▼	Lantzeko lur eremu
				Arrazoi, zio						
Ergel	▶			▼		Ikertzen	▶			▼
Kementsua, indartsua						Herri hizke- ran, eta				
▶						▼		Hego Korea- ko hiriburua	▶	
								Neona		
Tona, labur-labur	▶	Uretako biziduna	▶				▼		Letra grekoa	▶
Eserleku mota		50							Kontso- nantea	
▶		▼				Jainkoen edari	▶		▼	

◆ Bertsolari beratarra

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

[1] Gaixotasun. [2] Gure lurraldeko udalerria, Malerrekan. [3] Urte honetan. [4] Era eman, itxuratu. [5] 12 hilabeteko epe. [6] Gironako ibaia. [7] Zuhaitz mota. [8] Izkina, hegia, bazterra. [9] Garo, ira. [10] Arropak soinetik kendu. [11] Eukal Autonomia Erkidegoko polizia.

ERANTZUNAK



PLAZAN BAZAN



DOMINOAN

Garaian garaikoa. Domino hau ekainean azoketan ikusiko ditugun sei gaiiez egina dago. Honakoak dira: ziazerba edo espinaka, angurria, marrubia, gerezia, brokolia eta piperra. Marraztu hutsunetan falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiumi)

ZURIKO ETA XAPI

Hona hemen gure bi laguntxo: ZURIKO zakurra eta XAPI katua. Bete itzazu sudokuen hutsuneak, bi izenak osatzen dituzten hizkiez (seikoan Z, U, R, I, K eta O, eta laukoan X, A, P eta I). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



BADUNK HAMAHIRU



Beno, beno, beno, hori da
abere pilal Eta gidariek ez
al dute arriskurik ikusten?!
Nolanahi dela ere, aurki
itzazu bi irudien artean
dauden aldeak. Hamahiru
dira guztira.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Keskuntako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

807 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Juan Carlos Leiza Sagastibeltza | LEITZA
Buatxabal - Kamiseta bat
Amaia Meoki Plaza | ELIZONDO
Bidasoil - 30€ko deskontua
Jose Luis Sirera Alvarez | IGANTZI
Mendukilo - Bi sarrera
Juana Goñi Albistur | BEINTZA-LABAIEN
Irrisarri Land - Sarrera bat
Alizia Sagaseta Irigoien | NABARTE
Okille tailerra - Eguzkilore bat
Sagrario Goñi Mitxelena | BERA
Wow Park - Bi sarrera
Mikel Mitxelena | ZUGARRAMURDI
Tarttalo - Liburu bat
Beñat Rekalde Irigoien | AMAIUR

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

SALTING IRUÑA
www.salttingcenters.com



Bi sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com



Sarrera bat

TABERNA EDARIAK
www.tabernaedariak.eus



Lote bat

WOW PARK
www.wowpark.fr



Bi sarrera



**LI
BU
RU
AK**



4 liburu

elkar
www.elkar.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.txalaparta.eus



www.martiko.com